

BERMEOKO TOPONIMIA¹ LANAREN AZTERKETA KRITIKOA

*Patxi Galé,
Onomastika batzordea
Euskaltzaindia*

AURREKARIAK

Bermeoko udalak 1999. urtean plazaratu zuen herriko toponimia dokumentatu, jaso, ikertu eta normalizatzeko beka deialdia. Urte hartako maiatzaren 31n Iruñe Allika eta Bitor Uriarte ikertzaileei esleitu zitzaizkien beka eta berehala hasi ziren lanean buru-belarri. Zuzen jokaturik, era honetako lanetan erabili ohi den metodologia berbera jarraitu dute Allikak eta Uriartek. Oro har, metodologia honek, bi zutabe nagusi ditu: idatzizko iturrietan agertzen diren datu dokumentalak batetik, eta inkesten bitartez bildutako ahozko lekukotzak ondoren. Azken fasean, jasotako datu horiek guztiak kontuan izanik, herriko izaera desberdineko lekuak (mendi, erreka, baso, soro, etxe, kale, plaza...) nola izendatu behar diren erabaki behar da eta, erabaki horri loturik, izen horiek nola idatzi behar diren proposatu. Beka deialdian bertan ageri ohi den moduan, hala ere, helburua harago doa: lanari behar bezalako hedabidea emanik, landutako toponimia horren «normalizazioa» lortu nahi da, hots, toponimia hori *normal* bihurtu dadin lortzea dugu helburu.

Iruñe Allika eta Bitor Uriarte ikertzaileak beren lana egiten hasi eta Bermeoko udalak Euskaltzaindiari eskatu zion lanaren kalitatea bermatuko zuen zuzendari edo gainbegiratzaile bat jartzea. Garai haietan Ermuko toponimia ikertzen ari zen Fernando Aranberriri eman zitzaion eginkizun hori², Onomastika batzordeko kidea ez bazen ere, leku-izenen arauzko erak proposatzeko irizpideak ongi ezagutzen zituelakoan.

Gauza jakina da Bermeo garrantzi handiko hiria izan dela Bizkaiko historian. Horregatik, ikertzaileak dokumentazioan miatzen hasi zirenean, Bizkaiko elizateetan ohikoa dena baino askoz ere material ugariagoak eta abera-

¹ALLIKA AZPEITIA, Iruñe & URIARTE ANASAGASTI, Bitor: *Bermeoko toponimia*, Bermeoko Udala, Euskera Saila, Bermeo, 2007ko apirila.

²Lan horren emaitza Euskaltzaindiak eman zuen argitara handik gutxira: ARANBERRI ODRIOZOLA, Fernando: *Ermua-Eitzaga, leku-izenak, geure izanaren barrena*, Onomasticon Vasconiae 22, Euskaltzaindia, Bilbo, 2001.

tsagoak aurkitu zituzten. Bizkaiko toponimia ikerketetan ez dira maizegi arakutzen Valladolideko Errege Kantzelaritzako Artxiboa edo Madrilgo Artxibo Nazionale bezalako fondoak. Alde horretatik, ohi baino aberatsagoa da, dudarik gabe, Bermeoko toponimia lana. Eta aberastasun horretan bilatu behar da beka luzatu izanaren arrazoiak. Hitzaurrean bertan, orduko alkate Juan Karlos Goienetxeak dioenez, «Zortzi urte luze joan dira Bermeoko toponimia ikertzeko udalak Irune Allikari eta Bitor Uriarteri bekea emon eutsenetik» (7. or.). Lan luzea, bai, baina emaitza oparokoa, lana urtez urte luzatuz joan bazen, ikertzaileek datu iturri horien miaketa exhaustiboa egiteko erronka hartu zutelako izan baitzen. Eta emaitza onak begi bistakoak dira. Bizkaiko toponimian egin den ikerketa lan aberatsenetakoa da Bermeokoa, jasotako datu dokumentalei erreparatuta behinik behin.

Ahozko datuen bilketan ere aberatsa da Allika eta Uriarteren lana. Datuon transkripzio lana ere egokia da, azentu eta guztikoa eta oso ondo islatzen du Bermeon XX. mendearen amaierako hitzun jatorrek nola erabiltzen zituzten dokumentazioan jasotako izen haietako gehienak. Izendapen egokiak eta grafia zuzenak erabakitzean, datu hauei eman nahi izan zaien lehentasunaz, hala ere, aurrerago arituko gara.

Ikertzaileek leku-izenen arauzko idazkeren proposamenak formulatzean erabilitako irizpideen zuzentasuna Fernando Aranberri gainbegiratzaileak bermatu behar bazuen ere, lanaren behin-behineko bertsioa oso-osorik (931 orrialde) eman zitzaion Onomastika batzordeari 2005eko martxoaren 3an, lana berriz ere gainbegiratu eta oniritzia eman ziezaion. Hil horretako bileran, martxoaren 30ean, batzordeak guri eman zigun gainbegiratze horren ardura eta maiatzaren 8an entregatu genuen azterketa horren emaitzak zekartzan 30 orrialdeko txostena. Bermeoko udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak lanaren argitalpena atzeratzea Euskaltzaindiaren errua izan zela iradoki bazuen ere³, gure ustetan, nekez defendi dezake halakorik data haiek ezagutzen dituenak.

Txosten hartan, normala den bezala, Onomastika batzordeak emandako arautze-irizpideak hartu ziren oinarri bezala⁴. Irizpideok liburuaren bibliografian (22. or.) eta ohar argigarriren batean aipatzen badira ere (v.g. 27. or., 37. oharra), modu anekdotikoan baizik ez ziren aintzat hartu leku-izenen arauzko proposamenak formulatzean. Aitzitik, ikertzaileek nahiago izan zuten ikasketetan jasotako ezagutzetan oinarri hartu –nahiz, jakina denez, Filologia fakultateetan onomastikari garrantzi eskasa ematen zaion– eta lan zehatz honetarako

³Bermeoko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak, 2005eko azaroaren 7an hartutako erabakia, azaroaren 21ean Euskaltzaindiari jakinarazia (5342 irteera erregistroa). Jakinarazpeneko laugarren aurrekarian, 2004ko udan ikerketa lana «ia» amaitu eta Euskaltzaindiaren Onomastika batzordera bidali zela esaten da eta «hizkuntza erispidetan» [sic] zenbait desadostasun direla eta, «horrek ia urtebeteko etena ekarri» duela.

⁴GORROTXATEGI NIETO, Mikel & SALABERRI ZARATIEGI, Patxi: «Toponimia txikia arautzeko irizpideak», *Euskera*, XLV (2000, 1), 273-314, Euskaltzaindia, Bilbo.

beren beregi irizpide multzoa osatu. Beste nonbait kritikatu egin dugu iker-tzaileek bakardaderako duten joera hau, baita arautze irizpideak nahiz meto-dologiak *ex nihilo* sortu nahi izate hori ere, eta ez gara, beraz, ostera ere han esandakoak errepikatuko⁵.

Metodologia izenburua daraman atal oso bat dugu liburuaren hastapeneko orrietan. Hala ere, beharrezko hausnarketa metodologikoak aurkeztu ordez, datu iturri izango diren informatzaileak eta lanak nahiz multzo dokumentalak lerrokatzen dira, batez ere, atal horretan. Iturriak ordena horretan aipatuak izatea bera ere oker metodologiko baten isla da. Eta orobat esan daiteke, leku-fitxetan ahozko informazioa datu dokumentalak baino lehenago –eta letra molde handiagoz– aurkezteaz. Argi erakusten du lanaren egileen espiritua «etnografikoa» izan dela, normalizatzailerak baino gehiago, hots, kezka handi-goia izan dutela gaurko erabilera(k) jasotzeko, etorkizuneko euskara jaso eta normalizatuan leku-izen horiek izan behar duten tratamendua eta erabilera proposatzeko baino. Toponimia ikerketek, ordea, azken helburu hori izan ohi dute bereziki, ahozko erabilera, berez, bizirik dagoelako, baina euskara *de facto* ez dagoelako normalizatua edo, bestela esanda, ez daukalako erreferen-tziazko eredu kulturik. Hizkuntza arruntan alor hori nahikoa jorratu den arren –uzta ere oparoa da, XX. mendearen bigarren erdiko literaturaren produkzioan ikus daitekeenez–, euskal izen berezien atala, oraingoz, oso urrun dago egiazko normalizaziotik. Lekuan lekuko bereizkeriak jasotzea ongi dagoela ez dugu ukatuko, baina euskarari falta zaiona eredu jaso da. Eta horixe da eraiki behar duguna euskara hizkuntza normalizatua izatea nahi badugu bederen, euskal hiritarren komunikaziorako gai, alegia.

Bereziki esanguratsua da, *Normalizaziorako irizpideak* izeneko atalaren barruan, artikulua eta bokal paragogikoaren azterketa (78-102 orr.), urtebete lehenago idatzi eta argitaratu izana⁶. Bitxia egiten zaigu, halaber, Gidor Bilbaoren hitzaurrean (9. or.) bi gai hauetaz ari dela, «beste inongo datuekin egin gabe zegoen orain arte» irakurtzea. Hizkuntza Politika Sailburuordetzak Au-tonomia Erkidegoko toponimiaren ikerketa egiteko lan batzuetarako deialdia egin du 1986tik hona. Deustuko Unibertsitateko *Deiker* institutuak hartu ditu egiteko horiek bere gain, Nerea Mujika Ulazia irakaslearen zuzendaritzapean. Bizkaikoa zenbait epetan egin da eta azkenekoa 2001-2003 ekitaldia dugu. Lan haren ondorioz, Bizkaiko toponimia corpus zabal batean oinarri hartuta⁷, arau-tze irizpide zehatzago batzuk proposatu zituen bertan lanean aritutako hizkun-

⁵ Informazio gehiago nahi duenak, honako artikulua honetan aurki ditzake lan honi egotz dakizkiokkeen zenbait kontu: GALÉ GARCÍA, Patxi: «Toponimia ikerketak zergatik, zertarako», *FLV*, XXXIX urtea, 104 zenbakia, 2007ko urtarrila-apirila, 161-172. orr.

⁶ ALLIKA AZPEITIA, Irune: «Artikulua eta bokal paragogikoa Bermeoko leku-izenen corpusaren azterketatik abiatuta», *Uztaro, giza eta gizarte zientzien aldizkaria on line*, 56 (2006), 53-84. orr., Udako Euskal Unibertsitatea, Iruñea.

⁷ Lan haren muntaz ideia bat egiteko, kontuan izan bedi Bizkaiko 25.000 leku-izenen arauzko grafia ezarri zela eta, haiek erabakitzeke, 106.000 ahozko lekukotza inguru eta 200.000 era dokumental jaso zirela datu-basean.

tzalari taldeak, mendealdeko euskalkiaren ezaugarri askok ez baitziren ageri gorago aipatu dugun «Toponimia txikia arautzeko irizpideak» izeneko dokumentuan. Lana amaitutakoan, irizpide horiek emendatuak, osatuak eta zuzenduak izan ziren Euskaltzaindiaren Onomastika batzordean eta kontsultagai daude HPSren web orrian⁸.

Lanaren bertsio haren zuzenketarako egin genituen proposamenak eztabaidatu asmoz, 2005eko uztailaren 13an elkartu ziren Euskaltzaindiko egoitzan, Bilbon, Iruñe Allika eta Bitor Uriarte ikertzaileak, Onomastika batzordeko idazkari Mikel Gorrotxategi, txostenaren egile Patxi Galé, eta Bermeoko hizkuntza teknikari Maite Alvarez de Zarate. Egun horretakoa izan zuten Euskaltzaindiarekin ikertzaileek lehenbiziko eta azkeneko kontaktua. Euskaltzaindiaren Onomastika batzordeko arautze-irizpideekin zenbait desadostasunen berri eman zuten egileek eta, zer egin erabakiko zutelakoan amaitu zen bilera. Aipatzekoa da, bilera horretan izan zutela Allikak eta Uriartek gorago aipatu ditugun Bizkaiko toponimiarako arautze-irizpideen lehenbiziko albistea. Bermeoko toponimia lanaz Euskaltzaindian izan genuen hurrengo albistea udalaren erabakia izan zen, zeinetan udaleko Tokiko Gobernu Batzarrek erabaki baitzuen Euskaltzaindiak eginiko zuzenketa proposamenak baztertu eta lana «dagoen moduan ontzat hartzea, bekadunek egin daben proposamenaren arabera» eta «izen toponimoak horri jarraituta ofizialtzea eta argitaratzea».

Orduko alkate jaunak lanari egindako hitzaurrean, honako hau irakur daiteke: «Beste helburu bat da toponimoak normalizatzea eta egungo euskearearen arau eta moldeetara ekartea. Eta liburu honetan batu diranak izango dira, hain zuzen be, ofizialak eta normalizatuko diranak» (7. or.). *Normalizatu* hitzaren ostean, ordea, bi adiera ezkutatu eta, maiz, nahasi ohi dira. Alde batetik, hizkuntzaren arauak betearazirik, izen horien arauzko idazkera eta erabilera da normalizatzea. Zeregin akademikoa, nolabait, euskarak bereziki behar duena eta, gure artean maiz *normatibizatu* edo *arautu* aditzez adierazi ohi duguna. Bigarrenik, normalizatzek badu berezko adiera soziologikoagoa, toponimiaren erabiltzaileen artean, izen batzuk *normal* bihurtzea iradokitzen diguna. Azken helburu honekin, izenak ofizial egitea, mapetan nahiz seinaleztapenetan paratzea, eskoletan irakastea eta abar, prozedura egokiak eta eraginkorrak izan ohi dira, hizkuntzaren normalizazioaren lagungarri. Bermeoko toponimiaren kasuan, ordea, arauzkoak ez diren izen batzuk bihurtu zituen udalak ofizial eta, horren ondorioz, zuzenak ez diren hainbat toponimoren idazkera *normal* bilakatzeko urrats eraginkorra eman zuen. Gure kritika honetan, hizkuntza nazionala erabili eta erabilgarri bihurtu nahi dutenentzat –haien artean bermeotar asko ere egongo direlakoan gaude–, Bermeoko leku-izenak euskaraz nola idatzi eta erabili behar diren eman nahi dugu aditzera.

⁸ «Euskaltzaindiaren irizpideak. Erabilera eta oharrak», http://euskadi.net/euskara_toponimia

Normalizazio soziologiko hartarako, balio handiko tresna izan daiteke toponimia ikerketa jasotzen duen liburu monografikoa ere. Eta bide horixe hartu zuen udalak, helburu traketsez izan arren. Nolanahi ere, lana paper euskarrian kalean ikusi artean ia bi urte pasatu behar izan ziren, edizioak 2007ko apirilko data darama eta. Geure aldetik, 30 €-tan erosi genuen ale bat Euskaltzaindiaren egoitzatik hurbil dagoen liburu dendan eta ale hori bera da esku artean erabili duguna lanaren azterketa kritiko hau egiteko.

METODOLOGIA

Gorago ere aipatu dugun bezala, izenburu hori daraman atalean (15-42. orr.) ez dugu aurkitzen metodologiekkin zerikusia duen apenas ezer. Datu iturrien lerrokada ematen da batez ere eta, beraz, egokiagoa izango litzateke *bibliografia* edo *datu iturriak* jartzea izenburu bezala. *Idatzizko iturrien metodologia* izenburupean, erauzitako iturrien zerrenda ematen zaigu bakarrik. Ez dago kontsiderazio metodologikorik bat ere. Honi gagozkiola, ez dugu aurkitu jatorri anitzeko idatzizko informazio hori guztia kudeatzeko baliabideen berririk: zer nolako datu-basea erabili den, nolako tresna aplikatuak sortu diren eta abarrak lagungarri izaten baitira beste ikertzaile batzuentzat, ikerkuntzaren aurrerapidea bilatzen badute behinik behin...

Informazioa fitxetan aurkezteko moduan –baita *ahozkoaren metodologia* (15-18. orr.) *idatzizko iturrien metodologia* (18-40. orr.) baino lehenago agertzeko hurrenkeran ere– oso nabarmena da ahozko informazioari eman nahi izan zaion lehentasuna. Begi bistakoa da ikerketan jasotako corpusaren atalik handiena eta iturri kopururik garrantzizkoena, idatzizko erregistroari dagokio. Gainera, idatzizko iturrien erauzketa ahozko bilketa baino lehenago egin ohi da, ahozko erabileran zer bilatu behar duen aurretiaz jakin behar baitu ikertzaileak. Kronologikoki ere, idatzizko erak ahozkoak baino lehenagokoak izan ohi dira, eta toponimoaren tradizio idatziaren berri ematen digute, azken hauek ez bezala. Hau guztia gutxi balitz, lanaren azken emaitza eta helburua toponimoen normalizazio proposamenak dira, idatzizko era zuzenak zeintzuk diren erabakitzea, alegia. Horiek horrela, ez da naturala itxurazko aurkezpenean ahozko erregistroari lehentasuna kosta ahala kosta eman nahi izate hori. Liburuak dakartzan fitxetan ere, buruan ageri den lema nagusiaren ondoren, lehentasun tipografikoa ahoz bildutako erei ematen zaie, «azpilema» balira bezala. Lehentasu tipografiko honek gauzak «esaten diren bezala» idaztea zilegi delako uste okerrera eraman dezake liburuaren erabiltzailea. Orain arteko argitalpenetan ez dugu inoiz halakorik ikusi.

Dena dela, ahozkoen kasuan berriemaileak nola bilatu diren eta grabazio lanak nola egin diren deskribatzen zaigu eta XX. mende hasierako folkloristek jarraituriko metodo etnografiko tradizionalen bideak aukeratu direla ikusten dugu. Hortaz, ez dugu ekarpen berririk aurkituko. Hala ere, metodo horien

bidez lortutako datuak baliagarriak izan ohi dira eta, beraz, ontzat eman daiteke metodologia hura. Gabeziak ere ekartzen ditu, ordea. Adibidez, zalantza gelditzen zaigu ez ote zen bermeotar erdaldunik elkarriketatu behar. Lagin soziologiko hori⁹ aintzat ez hartzearen arrazoirik ez dugu aipatua ikusten lanean, baina kontuan ez hartzea bera metodologia baino harago doan hautua da... Edozein kasutan, toponimoen gaztelaniazko erabilera nolakoa den ezagutzea ez da alferrikako datua, ezta izenen euskarazko grafia arauzkoa erabakitzeko ere, adibidez, generikoen lexikalizazio mailaren berri ematen digutelako¹⁰.

Metodologia alorreko teknika berri interesgarriak eza ere antzematen dugu, esan bezala, euskal etnografia eskola zaharkituaren parametroetan mugitu baitira ikertzaileak. Inkesten kontuan, adibidez, oso interes handikoa izan zitekeen aspalditik herritik urrun bizi den emigratutako informatzailearen bati galdeketa egitea. Gerraurrean Ameriketara joandako bermeotar bati herriko leku-izenak galdetzean, asko ahaztuak izango lituzke, baina seguru gaude, gaur egun Bermeon esaten diren izenetatik urrun samar egongo litzatekeela haren erabilera, tradizio idatzitik hurbilago, segur aski. Datu horiek, agian, ez ziratekeen ikertzaileen gustukoak izango, Bermeoko euskaldunen ahozko usadioak azken aldian zenbat aldatu diren –eta zergatik– ez dutelako ikergai... Teknologia berrien erabilera ere ez da behar beste aprobetxatu. Grabagailu modernoaz gainera, argazki digitalak ere erabil daitezke toponimia inkestetan, batez ere ikerketaren amaierako zalantzak argitze aldera. Toponimiaren normalizazioa eta haren gaineko *consensusa* erraztu dezaketen eztabaida taldeak eta baliabide partehartzaileak ere ez dira abian jarri Bermeon. Azken urteetako zenbait toponimia ikerketatan era horretako dinamika batzuk erabili dira eta emaitzak beti izan dira eskertzekoak. Ikerketaren emaitza plazaratu aurretik, aurkezpena eta mapen erakusketa publikoa egitea interesgarria izaten da, herriarrek beren ekarpenak egiteko aukera izan dezaten. Maiz uste baino datu berri gehiago jaso ohi dira halakoetatik. Erakusketa horrek proposatu nahi diren arauzko eren gaineko desadostasunak agertzeko ere balio dezake eta era honetan, eztabaida *adituen* esku eskusiboetan utzi ordez, kalera irteten da eta arrazoiak trukatzeko foro aberasgarri bilaka daiteke. Zenbait kasutan, helburu desberdinak bilatzen dituzten erabiltzaile nahiz diziplina anitzetako ikertzaile estrategikoekin ere eztabaida foroak antolatzea interesgarria gerta daiteke, optika eta arrazoi bide desberdinak ezagutzeko aukera ematen baitiote elkarri... Dinamika partehartzaile horiek guztiak *normal* bihurtu nahi dugun herriko izendegia erabaki baino lehen abiatu behar lirateke, ez ondoren.

⁹2006an argitara emandako azken inkesta soziolinguistikoaren arabera, Bermeoko erdaldunen multzoa populazioaren % 12 eta 20 artekoa da.

¹⁰Adibidez, idatzizko datu historikoen argitara, baso baten arauzko izena euskaraz *Atxanarro* ala *Atxanarrobaso* bezala emateko aukera –eta zalantza– badugu, gaztelaniazko erabilerak aditzaera eman diezaguke *-baso* generiko horren ezinbestekotasunaren berri. Euskal hiztunen erabilera ikusirik, *Atxanarrobaso* proposatu den arren (424. or.), agian ez genuke berdin jokatu erdal informatzaile batek *monte de Atxanarro* izena eman izan baligu.

ARAUTZE IRIZPIDEAK

Gidor Bilbaoren *Sarrerako hitzak* izeneko atalean (9.orr.) egileek ondo hausnartu eta zehaztu omen dituzten «normalizazio irizpideen» balioa azpimarratzen zaigu. Gure ustez, ordea, ikerketa lan honetan *normalizazio* adierazpidearen atzean zer ote dagoen ez da behar bezala hausnartu. Era honetan, lanaren helburu nagusietarikoa izan behar litzatekeen izen berezi horien era jasoaren finkatzea, egin gabe gelditu ez ezik, beste irizpide batzuekin talkan dauden idazkerak ere eman dira arauzkotzat eta, ondorioz, gure toponimiaren panorama gehiago lardaskatzera datoz. Gauza jakina da euskara jasoaren «eraikuntza» eginbidean dagoen zerbait dela. Duela gutxira arte, euskara ikasketarik gabeko *aldeano* iletratuen hizkuntza zen. Gure nagusiek ondo barneraturik daukate sentipen hori, beren kulturaz lotsatuta sentiarazten zituen eta oraindion ere batzuk sentiarazten dituen. Baina egia da euskarak ez duela orain arte goi mailako egitekorik bete, hizkuntza jasoari dagozkion eginbeharrak betetzeko gaztelania izan dugulako eskueran. Arrazoi horregatik, ohikoa da gure historiografoen idazkietan «lengua vulgar vascongada» esaldia aurkitzea euskarari buruz aritzean. Euskararen normalizazio akademikoari ekin zitzaionean –eta ez da hainbeste denbora–, erdietsi nahi zen helburua euskararen erregistro kultua eraikitzea zen. Hitzunen ahotan hizkuntzak bizirik bazirauen ere, gauza jakina da hizkuntza baten iraupena laburra izango dela, idatzizko mailara ere hedatzen ez bada. Horrekin batera, hizkuntzaren beraren duintasuna errekuperatzeko modurik egokiena horixe bera da, goi mailako eginbideetarako gai den hizkuntza bilakatuko baita orduan, besteen neurri berekoa nolabait. Hori egin ezean, hizkuntzak bi arrazoi nagusirengatik lerratzen dira desagertzera: Lehenik, dispersio zentrifugoak dialektoak eta aldaerak gero eta gehiago bereizten dituelako, harik eta berbeta bakoitza bere zokoan bakarrik erabilgarri bilakatu arte; eta bigarrenik, etxe, auzo eta herriko muge-tatik harago komunikazio ariketa, identitate arrotzaren erakusgarri huts bihurtzen delako. Egoera deseroso hori saihesteko, eskueran dauden komunikazio-tresna eraginkorragoetara desbideratzen dira erabiltzaileak, gure kasuan, ondo garatua dagoen gaztelaniara. Agerian gelditzen da, beraz, tokian tokiko zokokeriak neurrigabe bultzatzea, herri-maitasunaren mozorroarekin jantzirik badoa ere, hizkuntzaren heriotza azkartzeko modu eraginkorra dela.

Euskal hizkuntzaren normalizazioaren bide horretan, estandarizaziorako urrats garrantzitsuak eman ziren XX. mendeko bigarren erdian. Euskara estandararen abiatzea, hala ere, ez zen erraza izan. Lehenbiziko erabakiak hartu zirenean, berehala piztu ziren iskanbila eta desadostasuna herri-hizkeren defendatzaileen aldetik. Bereziki gogorrak izan ziren *h*- letraren onarpena eta euskal aditz batuaren estandarizazioaren kontuak. Euskara batuaren orduko etsai haiek isilduz joan dira apurka-apurka, euskara jasoaren eraikuntzaren arrakasta ukatzea errealitatetik at bizitzea bailitzateke, hain da begi bistakoa. Hala ere, eta beste inon idatzi dugun legez, orduko dema hartako borrokalariek plaza berri bat aurkitu dute gaur egun onomastikaren alorrean. Euskaltzaindiak

emandako irizpideek onomastikaren eremuan euskalkiak errespetatzen ditu –edozein herritako berbetak ez du, ezinbestez, euskalki jasoaren maila–. Horregatik, euskara batuaren hasierako denboretan *Haitzgorri*, *Haritzabaleta* eta horrelako grafia estandarizatzaileak proposatu baziren ere, *Aizkorri* eta *Aretxabaleta* dira gaur egun toponimo nahiz deitura estandarrak euskaraz. Akademiak onomastikan onartzen duen euskalki-aniztasun hori aitzakia harturik, izenok nork bere herrian ahoskatzen diren erara idazteko joera hedatzen ari da orduko populista haien ondorengoen artean. Ondorioz, onomastikaren alorra da euskara estandarrak duen gairik atzeratuena¹¹. Izen bereziei dagokien arautze-irizpideetan bakoitza bere aldetik ibiltzeak kaltea baizik ez dakarkio hizkuntzari.

Bermeoko toponimia liburuan honako hau irakur dezakegu, arautze lanen atariko gisara:

«Normalizazioa, leku-izen beraren aldaerak edo grafia desberdinarekin adierazitakoak, forma bakarrera ekartzea da, forma bakar «egokienera», hain zuzen. Ezin bestean, lan honek alderdi subjektiboak ditu. Iritzi desberdinak izan daitezke. Nola normalizatu behar dira leku-izenak? Euskal Herria [sic] osoan era homogeneoan edo lekuan lekuko forma bereziak errespetatu behar dira?» (43. or.).

Iritzi ezberdinak egotea eta eztabaidatzea ez dago gaizki, baldin helburua guztiok jarraituko dugun bidea adostea bada. Eztabaida horretan alderdi subjektiboak ondo identifikatu behar dira, ez baita gauza bera iritzi zientifiko desberdina edukitzea eta subjektiboki normalizazioak edo hizkuntza-komunitateak nora edo hara jo nahi izatea. Eta azken hauen defentsa, zilegi izanik ere, ez da modu berean «zilegi». Orobat esan daiteke, hautu ideologikoak edo politikoak –identitarioak, beti ere– ezkutatzen dituzten jarrera pseudozientifikoek. Iritzi akademiko nahiz uste subjektibo izan, sakabanatzen gaituzten bideak urratzea ez da onargarria, fenomeno bat beraren aurrean modu desberdin anitzez jokatzera eramango gaituelako. Hots, irizpiderik ezak eramango gintuzkeen ondorio berberera, nola edo hala saihestu behar dugun egoera *anormalizatzaile*ra, alegia.

Euskalkiak babesteak ez du esan nahi edozein zokotako baserri ezkutu batean esaten dena jagotearren, ahoskera jator hori *arauzko aldaera idatzian*

¹¹ Ez da oinarririk gabeko baieztapena. *Bermeoko toponimia* liburuaren egiten ari zen garai bertsuan argitaratutako pare bat lan aipatzearen, honako erabilera hauek aurkitu ditugu gure idazle ezagun batzuen praxian:

«Gaizki egin dut Allikene inguru horietara igandez hurbilduta» (ALVAREZ ENPARANTZA, Jose Luis 'Txillardegi': *Labartzarí agur*, Elkar, Donostia, 2005, 46. or.).

«Maloenakoa. Klaro. Martinaren semea» (ELORRIAGA, Unai: *Vredaman*, Elkar, Donostia, 2005, 49. or.).

Bietan ikusten dugu *-ena* atzizki oikonimikoa, modu desberdinean erabilia, ordea. Txillardegi *-e* paragogikoa erantsita darabil eta Elorriagak *-a* amaiera hori mugatzailea ez baina berezkoa izango balitz bezala (azpimarra geurea da). Kontu egin dezagun idazle ezagunak direla hauek, eta ez soilik kazetari, esatari, idazkari edo hitzaren beste profesional batzuk... Halakoen arteko kaosa nabarmen handiagoa baita.

jaso behar dugunik. Jatorra den guztia ez baita idatzizko era jasoan islatu behar. Gainera «jatorra» –*etorri* aditzetikoa– dirudien edozer ez da beti hain jatorra edo hain tradizionala izaten. XIX. mendetik hasita, euskara «desitxuratzeko azeleratu» baten fasean sartu zen, haren desagertze hurbilaren zantzia eta elebitasunaren orokortzearen ondorio zuzena dena: edozeinekin komunikatzeko gaztelania badugu, zertarako behar dugu euskara? Gehienez ere, etxe ondokoekin hitz egiteko eta –aitor dezagun– haiekin *komunio identitarioan* sentitzeko baliatzen dugu euskara. Guk ez dugu hizkuntzaren eredu etnografiko-erromantiko-zokokeriazale hori babestuko, euskara biziko bada, komunikazio eta kalitatezko sormenerako benetako tresna baliagarri bilakatu behar dela sinesten dugulako. Gainera, egiteko hori Euskal Herri mailakoa izan behar da –berez, nahiko gune murrizta dena– eta horrek beste bide batzuk eskatzen ditu. Oso ondo dago herriz herriko ikerketak eta deskribapenak egitea, behar dugun hizkuntza hori aberasteko bide ziurretako bat horixe delako. Baina hizkuntza normalizatu –normal bihurtu– nahi badugu, eredu kultu bakarra behar dugu erreferentzia bezala. Horren kontra ari denak, nahita edo nahi barik, euskararen desagertze arinera lerratzen gaitu artez.

Eta nola babesten dira aldaera dialektalak orduan? Gorago emandako adibideek argi utzi dute zer den euskalki mailakoa. *Haritz-aretx*, *hiri-uri*, *berrri-barri*, *soro-solo*, *beltz-baltz*... mendebaldeko desberdintasun jatorrak dira, euskalki literarioan ere aurki ditzakegunak eta idatzizko tradizio onomastikoa eman dutenak. Beraz, gure babesa merezi dute. Horregatik hartzen dira aintzat izen berezien idazkera jasoan, era honetan idatziz: *Aretxabaleta*, *Uribarri*, *Soloazarreta*, *Errekabaltza*... Horra hor, berriz ere, *Bermeoko toponimia* liburuaren egileek egiten duten galdera: «Euskal Herria osoan [sic] era homogeneoan edo lekuan lekuko forma bereziak errespetatu behar dira?». Galdera modu zamatuta samarrean dago formulaturik. Gauza bat da lekuan lekuko euskalkia errespetatzea eta beste bat, diferentea zeharo, lekuan lekuko aldakiak eta zokokeria guztiak kultutzat ematea.

Esan dugunaren harira, ulertu behar da lege fonologiko errekurteak den guztia ez dela ezinbestez idazkera jasoan islatu behar¹². Onomastika batzordearen irizpideen eta zokokeriazaleen arteko aldeaz ohartzeko, adibide argigarri bat jarriko dugu. Esaterako, Euskal Herri osoko toponimian aurki daitekeen izena dugu *Areatza*. Era honetan idatzi da euskaraz literatura zaharrean ere, erabilitako sistema grafikoa gorabehera. Ahoz, dakigula, ez da beti modu horretan entzuten, ohikoak baitira *-ea-* hiatoak han hemenka pairatzen dituen desitxuratzeak. Oso urrun joan barik, *Ariatza* idatzi ohi da Muxikako

¹² Kontu honetaz adibide argigarri gehiago nahi duenak, honako artikulua honetan aurkituko ditu intereseko materialak: GALE GARCÍA, Patxi & LANDA SERRANO, Aitziber & MUJICA ULAZIA, Nerea: «Toponimia alavesa: cuestiones de normativización», *Actas de las II Jornadas de filología vasco-románica*, Universidad de Deusto 24-26/10/2007/ *Euskal-Erromantze jardunaldiak*, *Deustuko Unibertsitatea*, 2007/10/24-26, Eusko Ikaskuntza, Donostia (moldizte-gian).

auzune baten izena, *Areetza* Altzania mendian Altsasu, Ataun eta Idiazabalgo mugan, *Aritza-txu* proposatzen da Bermeoko hondartzarako... *Ariatza*, *Areetza* eta *Aritza* gure babesa eta kultu-maila merezi duten aldaera dialektalak ote dira? Toponimia ondarea babesteak zer esan nahi duen neurtu behar dugu horren aurreko irizpidea ezarri aurretik. Aldagarritasun horretan ez dugu guk aberastasun lexikorik ikusten eta *Areatza* idatziko genuke kasu guztietan, nekez defendi daitekeelako *-ea-* hiatoak eragindako bokalismo errenkada hori –eta hori azentua alde batera utzirik–, euskararen euskalkien aberastasunaren erakusgarri dela. Hots, leku bakoitzean ahoz esaten dena esaten dela ere, *Area-tza* idatzi behar dira horiek guztiak, *etxea* (eta ez *etxé*, *etxía*, *etxí*...) edo *erreal* (eta ez *erriál*, *errél*...) idazten dugun arrazoi beragatik.

Bermeoko toponimia liburuaren egileek kontrakoa uste ez ezik, adierazi ere egiten dute:

«Leku-izenek bi osagai izaten dute: izenaren alderdi espezifiko (lekuaren berariazko izena) eta izenaren alderdi generikoa (bere izaera geografikoa adierazten duena: erreka, mendia, kalea, baserria, etab.). Generikoak hainbat erreferente geografiko berdinen aipamena egiten du, Burgo *mendia*, Gantxu *mendia*, Sollube *mendia*, etab., eta beraz, bere formaren batasuna eskatzen du, bestela nahastea besterik ez litzateke sortuko. Baina izen espezifikoari dagokionez, leku-izen bakoitzak bere testuinguru propioa izanik, bera bakarrik dena, ez da beharrezkoa hauek forma bakarrera ekartzea, ez baitute nahasmenik sortzen, are gehiago, argia ematen dute, toponimo bat bere antzeko besteetatik bereiztean» [MOREU-REY, Enric: «Recogida, clasificación, normalización y oficialización de un corpus toponímico: consideraciones críticas sobre su problemática según nuestra experiencia en Catalunya», *I. Onomastika Jardunaldien Agiriak. Toponimia, Gasteiz, 1986ko apirila*, Onomasticon Vasconiae 4, Euskaltzaindia, Bilbo, 1991, 39-47. Or.] (43. or.).

GENERIKOAK

Aipu horrek berak komentatu beharreko beste kontu batera eramaten gaitu: espezifiko eta generikoaren arteko bereizketa. Liburuan aditzera ematen zaigun bezalaxe, beste egile askok ere zurruntasun handiaz aipatzen dute bereizketa hori, toponimoen generikoa saihestezina balitz bezala. Gure ustetan, eta zenbait leku-izenek osaturiko corpus batekin lan aplikatua egin ondoren, «osagai» generikoaren sailkapena modu honetara egin behar litzateke:

Generiko lexikalizatuak: Toponimoaren parte diren generikoak. Leku-izenaren parte direnez gero, ez dira itzulgarriak –beste hizkuntza batean ari garela ere, jatorrizkoan erabili ohi dira–. Aldaera dialektalak ez izanik, bereiz idazten direnean salbu, ez dute estandarizazio beharrik. Halakoak dira, adibidez, *Altzurragako atxa* (1008. or.), *Ganeko landa* (1015-1016. or.), *Lauziriko arezti* (906. or.)... Maiz haien generikotasuna lausoago geratzen da, kasu markarik egon ezean, bat eginik idatzi ohi ditugulako: *Amorotosolo* (942. or.),

Atxanarrobaso (424. or.), *Etxebarrierreka* (1039. or.)... Beste askotan, jatorriz generiko *izandakoak* –leku-izenak oraindik deskriptibo arruntak zireneko garaian–, hain lexikalizazio maila altua jaso dute, ezen jadanik espezifikoreen parte bezala somatzen baititugu, joskerak hala eskatuta, izen-sintagman dararmaten lekuagatik edo generikoak adierazten duenaz beste izendatzen dutelako. Hori gertatzen da, esate baterako, *Basogalant* (430-431. orr.), *Etxebarrilanda* (600-601. orr., baserria dena), *Infernuerreka* (720. or., parajea)...

Toponimo erreferentzialetako generikoak: Beste leku «nagusiago» baten izenari erreferentzia egiten diote. Ezinbestez erabili behar dira, haiek kenduta beste leku bat izendatuko genukeelako. Horregatik, toponimoaren zatitatz hartu behar ditugu, gehienetan lexikalizazio maila txikia duten arren. Normalean genitibo egituretan txertaturik doaz eta, usadioa hori delako, une bakoitzean erabiltzen den hizkuntzaren arabera itzul daitezke, lexikalizazio maila apal haren ondorioz. *Bermeoko toponimia* liburuan erabiltzen den hizkuntza bakarra euskara denez, ez da horretarako aukerarik ematen, baina halakotzat izango lirateke, adibidez, *Aportategiko zubia* (326-327. orr.), *Artikerreka* (1042-1044. orr.), *Mañuko mintegia* (911-912. orr.)..., gaztelaniaz *Puente de Aportategi*, *Arroyo de Artigas* eta *Vivero de Mañua* ere zilegi liratekeenak.

Generiko hautazkoak: Hauek ez dira toponimoaren parte bereiztezina eta, gure ustez, ez dira toponimia lan batean eman behar. Halakoak dira iker-tzaileek beren hitzaurrean ematen dituzten adibideak (43. or., gorago aipatuak): *Burgo mendia* (*Burgo* 1013-1015. orr.), *Gantxu mendia* (*Gantxu* 1016-1017. orr.), *Sollube mendia* (*Sollube* 1025-1026. orr.)... Generiko horiek hizkuntza arruntari dagozkio eta, beraz, euskaraz era estandarrak erabiltzea gomendatzen da. Hizkuntza beste edozein izanik, hartara isur daitezke (*Monte Sollube*, *Sommet de Gantxu*, *Burgo hill*...). Euskaraz *Gantxu mendia* ematea, hala ere, ez litzateke beharrezkoa, toponimoa bera jatorriz eremu semantiko horretako generiko ulergarria delako eta, beraz, generiko estandarra gehitzean, alferrikako erredundantzia sortzen dugulako nolabait.

Adibide gutxi batzuk aipatuta, agerian gelditzen da leku-izenen alderdi espezifiko eta alderdi generikoaren bereizketa ez dela uste ohi den bezain erraza eta orokorra. Nolabaiteko fraudea da hirugarren saileko generiko «gezurrezkoak» aipatuta bereizketa horren unibertsaltasuna funtsatu nahi izatea¹³. Garai batean omen handia izan zuten Québec-eko toponimia bulegoko ikerketa toponimikoen ondorioa da espezifiko-generiko osagaien teorema orokor hori. Hango usadio kartografikoetan frantsesezko generikoa jartzen baitzitzaizen leku-izen guztiei. Gure artean ez da ohitura hori asko hedatu eta, ahal dela, gure mapen errotulazioan eta seinaleztapenetan, generikoen erabilera saihestea gomendatu ohi dugu. Erkidegoko hizkuntza ofizialak bi direla kon-tuan izanik, horrek asko laguntzen du seinaleztapenak eta mapetako testuak

¹³ Honela hasten da gorago aipatu den 43. orrialdeko paragrafoa: «Leku izenek bi osagai izaten dute...».

arintzen. Leku-izenen arauzko erak ematean, beraz, ez dugu hautazko generikorik gaineratu behar eta halaxe jokatu dute *Bermeoko toponimia* liburuko egileek, aipatu testuan esaten dutena esaten dutela ere. Lan horretan aritzen denak generikoa, ageri baldin bada, toponimoaren parte den ala ez neurtu behar du, tradizio idatzian eta hiztunen erabileran oinarriturik.

Honen harira, eta toponimoen benetako zati diren generikoetara mugatuz, nor ausartzen da *Errekabaltze* (1054-1055. orr.) edo *Portuzarra* (274-276. orr.) bezalako toponimoen espezifikoa eta generikoa bereizten? Nork esango digu zein den espezifikoa *Beko zubitxu* (869. or.) edo *Goiko gaztañadi* (651. or.) bezalako leku-izenetan?...

NORMALIZAZIOA ETA HERRITARREN KULTURA

Liburuan erabilitako *Normalizaziorako irizpideak* izeneko atalaren barruan, honako hau irakur dezakegu:

«Normalizatzeko orduan, kontuan hartu beharreko beste aspektu bat, lekuan lekuko erabiltzaileen onespina da: Bermeoko toponimia ahoan erabiliko dutenak, batez ere bermeotarrak direnez, ez litzateke egokia izen normalizatuak herritarrek erabiltzen dituzten formatatik (okerrak ez badira behintzat) gehiegi urruntzea» (44. or.).

Aspaldisko hasi ginen Euskaltzaindiaren Onomastika batzordetik beretik ere, toponimia ikerketetan eta leku-izenen arauzko erak finkatzerakoan, lekuan lekuko herritarren parte hartzea bultzatzen. Ideia horren atzean, ordea, goiko lerroen egileek uste baino arrazoi sakonagoak eta konplexuagoak daude. Helburu hori bilatzen dugunean, gure asmoa ez da zehazki, albait eragozpenik gutxiena eragitearren, herritarrek gauzak esaten dituzten moduan idaztea.

Hizkuntzari orain arte izan ez duen duintasuna ematea eta hiztunek darabilten edozer kultutzat hartzea ez dira gauza bera. Euskara hizkuntza *normal* bihurtu nahi izatea eta kulturaren demokratizazio orokorra ez dira elkarren kontrako helburuak. Euskal Herrian, kontrara, muturreko bi joera nagusi antzematen ditugu euskararen normalizazioan lanean ari direnen artean:

- Herri-mailan erabiltzen dena erregistro kultu bezala hartu, hizkuntzaren eramaleak beren ohiko paradigma anormalizatuan eroso sentitzen segi daitezen,

ala

- Hizkuntza estandarizatu baliatu eta herri-erregistroak mesprezaturik, prestigiodun klase kultu berria sortu.

Hots, kulturaren demokratizazioa eta populismoa pintatzen zaizkigu alderdi batean eta adituen jarduna eta elitismoa kontrako muturrean.

Akats larria da dikotomia horretan nork bere burua kokatu eta borrokara abiatzea. Hizkuntzak eskaintzen dizkigun iturri guztietatik baliabideak harturik, hala idatzizkoak nola ahozkoak, euskararentzat orain arte ukatu zaion erregistro kultua eraiki eta erabiltzaileak kultura berritu horretara erakarri behar dira. Adituen jarduna beharrezkoa bada ere, berauek ulertu behar dute herri xehearengandik jasotakoa «landu» baizik ez dutela egiten. Eta landutako ekoizpen hori herriari itzuli egin behar zaio, baina itzultze horretan gauzak behar bezala azalduz eta argituz. Bereziki, erregistro desberdinen berri eman behar zaio jendeari eta –ez izan dudarik– ulertu egingo du uste duguna baino askoz errazago. Kontuan izan dezagun, euskarak erregistro bakarra –bulgarra– izan duela orain arte eta egoera anormalizatzaile hori gainditzearren ari garela lanean. Euskarak duen gabezia «estruktural» hori ez da soluzionatzen ezikusiarena eginik...

Toponimia ikerketen emaitza gisa eskaintzen diren leku-izenen zerrendak ez dira, gure ustetan, *era normalizatuak* izendatu behar. Tentuz hautaturiko hitzak erabiliz, *arautze proposamenak* izendatu ohi ditugu guk. Normalizazioa, helburu urrunagoa da, hizkuntza *normalizatu* batean, erabiltzaileek *normal* joko dutena izango baita, zerbait izatekotan. Adituen jarduna eta berauen emaitza zientifikoak, beti ere gure ustetan, helburu horren zerbitzura paratzea eskergarria ez ezik, ezinbestekoa ere bada gure hizkuntzaren egoera ezagututa.

Esan bezala, itzultze horren arrakastaren gakoa, gizarteratze egokian datza. Adituen jarduna beharrezkoa ikusten dugula esan da gorago. Eta halaxe da. Ikertzaile adituak beharrezkoak dira, jasotako datu horien guztien argira arauzko leku-izen jasoen corpusa sortuz joateko. Baina gero herriratu eta normalizatu behar da hori guztia. Ikerketen gizarteratze prozeduretan, saihestu beharreko kontu berezia da toponimia-aditua eta herri xehearen arteko troka sakontzera datorren «adituen diskurtsoa». Diziplina guztiek daukate beren berbeta berezitua, besteak beste nor dagoen barruan eta nor den arrotza bereizteko helburua duena. Hizkuntzalaritza ez da horretan desberdina. *Bermeoko toponimia* lanean, itxuraz joera populistaren alde jotzen dela ematen duen arren –adibidez, arautze proposamenetan herri ahoskerako fonetismoak neurrigabeki onartzean–, liburuaren atarian ematen diren *normalizaziorako irizpideak* (43-102. orr.), komunitate zientifiko adituarentzat daude idatzirik, eta inola ere ez herri xeheari euskal kultura jasorako sarbidea emateko helburuaz¹⁴. «*Epentesia, morfofonologiko, paragogikoa, ahostuntzea, disimilazioa...*» adituen diskurtsoaren berbeta hori da nagusi testuan zehar. Bermeotar jator batek liburua hartuta, egileak oso jakintsuak direla sinetsiko du, dudarik gabe, baina han esaten dena ulertu ez du egingo. Guk ez dugu hor ikusten kulturaren demokratizazioaren prozedura eredu...

¹⁴Eta ez hor bakarrik. *Geografia eta geologia* atalean (123-127. orr.), bereziki lekuz kanpo aurkitzen duguna; *Bermeoko lurraldearen historia* kapituluaren (129-152. orr.), bere latinezko aipuekin eta ohar multzo neurrigabekoarekin; baita, oro har, leku fitxetan beretan ematen diren azalpenetan ere, gure iritziz, publiko hautatuaren mirespena bilatzen da bermeotar xehearen ulermen baina gehiago.

Beste alde batetik, guk ontzat ematen ez dugun beste kontu bat aipatzen da *Bermeoko toponimiaren* ikertzaileen atal hartan. Bermeon ere, gainerako leku guztietan bezalaxe, *toponimia nagusia* eta *toponimia txikia* sailetan koka genitzakeen leku-izenak ditugu¹⁵. Adituak ez dira horren inguruan ados jartzen eta bien arteko muga non dagoen ez da ahobatezko gauza. Adibidez, Kataluniako mapetako toponimiari, oro har, *toponimia nagusia* esaten zaio, mapan agertzeko merezimendua irizpide bilakaturik. Euskal Herrian, kontrara, *toponimia nagusia* esan ohi zaio herrien eta auzune nagusien izendegiari. Sail nagusi horretatik kanpo gelditzen dira, beraz, *Ibaizabal*, *Ebro*, *Oria*, *Pirinioak*, *Urbasa*, *Gorbeia* eta era honetako izen ezagun eta hedatuak, *toponimia txikia* omen baitira. Gure ustez, Bermeoko ikertzaileek ukitu duten gaia litzateke *toponimia nagusia* eta *txikia* bereizteko irizpiderik egokiena. *Toponimia nagusia* eremu lokaletik kanpo ere erabiltzen diren toponimoak direla pentsatzen dugu guk. *Toponimia txikia*, kontrara, eremu lokal horretan erabiltzen dena litzateke. *Bermeo* izena, adibidez, ez da Bermeon bakarrik erabiltzen. Areago, askoz ere erabiltzaile gehiago ditu izen horrek Bermeotik kanpo Bermeon bertan baino. Eta beste horrenbeste esan daiteke, hango beste hainbat izenez. *Burgoa* edo *Garbola* mendiak, adibidez, Euskal Mendizale Federazioko Katalogoan ageri dira eta federazio horrek 25000 bazkide ditu gaur egun... Toponimo horiek, beraz, ez dira gehienetan erabiliko bermeotarren ahotan, kanpotik joandako mendizaleenetan baino. Toponimo *nagusia* dira.

Ikerketak eremu lokal batean fokalizatzek dakarren akatsa izan ohi da ikertzaileen jarrera hori. Norberaren herriko toponimia ikerketa corpus bezala edukitzeak –ondo mugaturiko aztergaia–, hortik kanpo zer gertatzen den ezkutatzera eraman ohi gaitu edo, behinik behin, ez ikusiarena egitera. Baina ikerketa zehatza bere testuinguru zabalean kokatu behar da eta, kasu honetan, euskararen normalizazioa da unibertso hori, Euskal Herri osoa duena kokaleku. Susmoa dugu, hala ere, norberaren herriko toponimoen arauzko grafiak erabakitzean, bereziki gaizki hartuak izaten direla kanpoko adituen interbentzioak. Sakonean dagoen afera, beraz, ez da nork erabiliko dituen gehiago ala gutxiago, arrotz sentitzen dugun inposizio bat bezala somatzen dugu arautze lan hori: kanpotik etorri behar ote zaizkigu esatera *geure* lekuen izenak nola idatzi behar diren?

LANAREN ZIENTIFIKOTASUNA

Gidor Bilbaok idatziriko *Sarrerako hitzak* atalean honako hau irakur daiteke:

¹⁵ Gorago kritikatu dugun adituen berbeta harroputza erabiliz, zenbaitek *makrotoponimia* eta *mikrotoponimia* izendatu ohi dituzte hurrenez hurren, era horretan gauza «inportanteago» eta «zailago» batez ari direla aditzera eman nahirik, herri xeheak ezin konpreni ditzakeen kontuez, alegia.

«Bermeoko toponimia guztiaren azterketa linguistiko osoa dago, eta azterketa hori hizkuntzalaritzako parametro zientifikoetan egina da. Badakigu makina bat buruko min eragin dietela normalizaziorako harturiko erabaki batzuek, baina garrantzikoena da datuen azterketa zintzoa dagoela erabaki guztien oinarrian» (9. or.).

Lanaren aurkezlearen animoan, dirudienez, Bermeoko toponimia ikergai bezala ahiturik dagoela adieraztea dago. Hori gehiegitxo esatea bada ere, onartu behar da datuen corpus bezala lortutako maila nekez gaindituko dela etorkizun hurbilean. Hala ere, corpus murrizt batekin lan egiteak dakarren fokalizazio mugatua kontuan ez izanak, zalantza eragiten digu aipatzen den zintzotasunaren baieztapenaren aurrean. Adibidez, ez da zintzoa ez eta euskararen onerako erabaki zuzena *-e* paragogikoa eta mugatzailearen tratamendua, Nafarroako eta EAEko corpusak *-eta* irizpideak¹ kontuan eduki gabe aztertu, erabaki eta aplikatzea. Euskararen kalterako akatsa da egin dutena, helburu hori bilatu barik egin badute ere. Euskal Herriko hizkuntzaren normalizazioaren klabean eginiko ikerketa horien emaitzak eskueran daude nahi duenarentzat, baina ezjakinarena egitea dauka norberak, segur aski, ezkutuan bestelako helburu identitarioak daudenean.

Datuen azterketa zintzoaren beste erakusgarri bat dugu *Toponimiaz* izeneko aurkezpentxoan, testu zientifikoa baino gehiago, literarioa bada ere, honako hau dakarrena:

«Bermeo aldeari dagokionez, kasu batzuetan, gehienetan esango genuke, izenok oso antzinakoak dira, ertaroko garaietan sortuak, agian, beste batzuk modernoagoak» (13. or.).

Hori baieztatzeko garai horietako datuak aurkitu eta *-argiena-* zenbatu egin behar dira. Liburuko corpus dokumental aberatsean ez dago Erdi Aroko datu askorik, Bizkaian XVI. mendea baino lehenagoko datuak aurkitzea zaila izaten baita. Baieztapenaren atzean ere oso asmo sakon «ez-razional» eta antropologikoa dago, berriz ere, kontu identitarioekin lardaskaturik: «gu bermeotarrok hemen gaude oso aspalditik eta Bermeo geurea da». Ulergarria da halako sentipen, nahi, gogo, iritzi... subjektiboak edukitzea, baina toponimia ikerketa serio eta zientifiko bat ez da halako kontu emozionalerako kantxa egokia.

Metodo zientifikoaren aplikazio zehatza toponimiaren alorrean, ohikoan, *aurretiazko datuak* > *formulaturiko hipotesiak* > *datu corpusak* > *azalpen zientifikoak* *-edo «egiak»*, beti ere komatxo adierazgarriekin². Allikak eta Uriartek bildutako datuen kudeaketa ustez zintzoaren analisirako, oso gomendagarria da leku-fitxen ohar linguistikoen irakurketa arretatsua. Apur bat zurturik, *hipotesi* hitza oso gutxitan erabiltzen dela ohartu gara. Ematen diren azalpen guztiak modu irmoan adierazten dira. Denak dira «gertakari» hotz frogatuak: eman diren bilakaeren hurrenkera, bilakaera horien sailkapena, etimologiaren azalpenak... Dar-dar egin gabe idatzitako deskribapenak dira, zalantzarako ihesbiderik ere uzten ez dutenak. Ondorioz, liburuak ematen duen inpresioa segurtasun osoarena da *-zenbat dakiten aditu hauek!*-. Emandako

azalpen hauetako batzuk komentatu egingo ditugu ondoko ohar zehaztuetan –tamalez, bakarrik arautze kontu okerrekin zerikusia dutenetan–, geure inpresioa oso bestelakoa delako.

Adibide gisara, mugatzailearen kasua eredugarria izan daiteke, sakonean mila interferentzia ezkuta ditzakeelako. Hala Bermeoko toponimo dokumentalen corpusak nola EAEkoak eta Nafarroakoak, oro har, leku-izenetan mugatzaileak denboran zehar desagertuz joan direla erakusten dute. Zuzendu beharreko arauzko aldaerak jorratzen ditugunean aipatuko ditugu banan-banan baina, erakusgarri bezala *Bengoetxea* > *Bengoetxe* (696-697. orr.), *Fradua* > *Fradu* (798-799. orr.), *Intxaustia* > *Intxausti* (eta orobat bere aldaera den *Landatxua* > *Landatxu* 206-209. orr.) ikus daitezke. Lana egin aurretik, mugatzailearen jatorri berantiarren berri zeukaten ikertzaileek, Unibertsitatean jasotako ikaskuntzak direla eta. Hipotesi horiek datuekin sustatu nahirik, gusatuko zitzaien jasotako corpusean horren aldeko datuak bildu izana. Baina ez zen hala gertatu. Eta ikertzaileek beren hasierako hipotesian atzera jo beharrean, aurrerako ihesa hartu zuten: idatzizko datuetan ageri diren mugatzaileak ez omen dira euskaraz inoiz ere ibili eta eskribau erdaldunek bultzatutako *-a* arrotz batzuk dira. Konprobatu nahi duenak, aipatu adibideen corpus dokumentalak ikusi eta, ondoren, irakur dezala honako paragrafo hau:

«Artikulua leku-izenetan pixkanaka sartu da. Leku-izen ugarik ez dute inoiz artikulurik izan, eta artikulua hartu izan duten leku-izenek, generikotasunetik sortuta espezifikotasunerako bidean galdu egin dute. Gaur egun artikulua gabeko leku-izenak erabiltzen dira. Generikotasunetik hurbil daudenak baino ez dute artikulua mantentzen, baina deklinatzean, baita inesiboan ere, artikulua galdu egiten dute. Idatzizkoan, baserri-izenetan eta zenbait paraje esanguratsuetan artikulua, edo beharbada hobeto legoke *-a* bukaera esatea, sistematikoago jaso da. Hau da, eskribauek eta notarioek *-a* bukaeradun aldaerak errazago erabiltzen dituzte, *-a* bukaera gabekoak eta, kontsonantez bukatutako izenetan, bokal paragogikodun aldaerak baino. Kasu batzuetan, *-a* amaieradun aldaera hauek gaztelaniaren arauetatik hurbilago daude, azentuazio aldetik» (101. or.).

Gure ustez, euskal mugatzailearen sorreraren kontuak toponimiaren gaurko arautze grafikoarekin nahasten saiatzea okerra da. Hizkuntzaren historiako estrato diferenteetan gertaturiko gauzez ari gara eta testuko lehenengo baieztapenaren frogarik ez dago. Ez behintzat Bermeon bildutako toponimo dokumentalen corpusean. Datuek beste zerbait erakusten dute. Gure ustez, toponimo horiek mugatzailedun jaio ziren eta apurka-apurka artikulua galduz joan dira. Galera honen arrazoia, lekuzko desinentzia gehienak jasotzean *-a* hori ezkutatzean bilatu behar da batez ere (*Fradua* baina *Fradutik*, *Fradura*...), horrek *-a* gabeko aldaerak nagusitzera eramaten duelako, baita inesiboan ere (*Fraduan* > *Fradun*, zeinetan *-ua* > *-u* hiato sinpleketa –bokalismo arrunta Bizkaiko kostaldeko leku askotan– ere gertatu den). Akademiaren –eta hizkuntza estandarren– jagole funtzioagatik, mugatzaileak duela gutxi galdu badira edo oraindik bizirik dirauten zantzurik erakusten badute, eutsi egin ohi zaie arauzko grafian, beti ere, sistema deklinatiboaren paradigma mugatzaileduna

erabili behar delarik (*Fradua (-a) > Fradua, Fraduan, Fraduko, Fradutik, Fradura...*). Allikak eta Uriartek mugatzailearen desagerketa «gertatu» egiten dela konprobatzean, bermeotarrek toponimo horiek mugatzaile gabe betidanik erabili dituztela sinestarazi nahi izan digute, *-a* horiek gehienak eskribauen kontua direlako azalpen sinesgaitza ehundurik. Arauzko grafiak ematean, noski, *-a* gabeko erak hobetsi dituzte, hizkuntzaren neurrigabeko bilakaera «naturalak» galgatu ez, baina azkarrago mugiarazi nahirik¹⁶.

Orobat esan daiteke *Bermeoko toponimia* liburuaren egileek *-e* paragogikoarekin jarraitu duten bidez. Gauza jakina da kontsonantez amaituriko leku-izenetan *-eta* berdin kontsonante + mugatzaile amaiera dutenetan *-e* bat gehitzeko joera dagoela euskaraz. Joera horren kausa, berriz ere, euskal deklinabide sisteman bilatu behar dela ematen du. Kontsonante amaiera duten izenek tarteko *-e-* bat hartzen dute desinentziarako lotura gisa lekuzko kasuetan. Eta hori berdin gertatzen da izen berezietan zein deklinabide arruntetan. Hortaz, *Etxezar* leku-izenak eta *etxe zahar* adierazpide arruntak antzeko eran deklinatuko ditugu lekuzko kasurik gehienetan, hau da, *-za(ha)rreko*, *-za(ha)rretik*, *-za(ha)rrera...* Salbuespena, gaur egun, inesiboan dugu, *-zarren* izango baikenuke izen berezi mugagabea eta *-zaharrea* izen arrunt mugatua (94-95. orr).

Irune Allikak Bermeen gertakari honen aintzinakotasuna frogatutzat ematen du espresuki, dioenez, «Bokal paragogikoa eransteko joera hau ez da berria; XVII.-XVIII. mendeetako erreferentziak jaso izan dira Bermeen» (96. or.). Hala ere, liburuaren irakurketa arretatsuak ez du halakorik berresten eta, kontrara, dagoeneko bagenekiena baieztatzerako dator Bermeoko corpus dokumental aberats hau: Bizkaian amaierako *-e* hori gehitzearen kontua XIX eta XX. mendeetan hedaturiko fenomeno da. Salbuespen bakarrak *Akatxe* eta *Salbatxe* toponimoak izango genituzke (978-979. orr. eta 277-278. orr.). Lehenbizikoaren aurreneko lekukotza 1634ko *Aqueche* da. Ondoren ere, 1793an *Aqueche* ageri zaigu eta gero, 1895etik aurrera *Aquech* hasten da agertzen. Antzeko zerbait gertatzen da *Salbatxe* izenarekin (*Salbaiche* 1754an). *Akatxe* hori Bizkaian beste bitan aurki daiteke, guk dakigula, Basaurin eta Leioan, behinik behin. Basaurikoaz ez dugu datu dokumental zaharrik, baina Leioakoari dagokionez, XVIII. mendeko Bizkaiko fogerazioetan ere amaierako *-e* eta guzti ageri zaigu (*Aqueche* 1704an, 1745ean eta 1796an¹⁷), auzo izen bezala nahiz baserri izenen parte gisa. Etimologiaz mentura daitezkeen hipotesi errazak gora behera, Bermeoko laneko datuek erakusten dutena da bere lehen agerpenetan *-e* amaiera zeukan toponimo horrek geroago galdu egin zuela. Eta horri ez zaio *paragoea* esaten, *apokopea* baizik. Beste hitz batzuetan esanda,

¹⁶ Hizkuntza estandarren galga-funtzioaren ideia honen gainean interesa duenak, aita Villasanteren maisu-lan honetan aurkituko ditu hausnarketarako materialak: VILLASANTE KORTABITARTE, Luis: *Hacia la lengua literaria común*, Colección Eleizalde 1, Editorial Franciscana Aránzazu, Oñate, 1980.

¹⁷ KEREXETA, Jaime de: *Fogueraciones de Bizkaia del siglo XVIII*, Estudios de etnología y etnografía 2, Instituto Labayru, Bilbao, 1992.

itxura guztien aurka, toponimo horren amaierako osagaia *-atx* dela zalantzan jarri behar dela uste dugu. Garai haietako erabileraren berri izanik, aipatu ditugun XVIII. mendeko fogerazioetan nekez aurkituko da paragogerik, ezta Leioako baserri izenetan ere: *Mendibil*, gaur ahoz *Mendibile*; *Basañez*, gaur ahoz *Basañese*... Lerrokada horretan bertan *Aqueche* izena aurkitzea, izenaren etimoaz adierazi dugun zalantza berrestera dator.

Onomastika batzordearen irizpideen arabera, tradizio motz hori dauka mendebaldeko *-e* horrek eta, gaur egun ere Bizkaiko eskualde zabaletako hiztun adinduek ez dute eransteke joerarik. Lehen aipatutako jagole-funtzioa dela eta, Akademiak mendebaldeko onomastikan, *-e* amaiera hori gabeko aldaerak hobesten ditu, arkaikoak izan gabe, Bizkaian tradiziozkoak direlako.

Fenomenoaren deskribapena egin eta haren idazkeraren aldeko jarrera justifikatzen duten testuan esaten zaigunez (94-101. orr.), Euskal Herri osoan gertatzen den zerbait da eta hainbat tokitan arauzko grafian ontzat emandako ezaugarria da *-e* paragogikoa. Lehengo arrazoi berberengatik, eta beste leku anitzetan bildutako corpus dokumentalei esker, badakigu *-e* paragogikoak «adin» desberdina duela euskalki batzuetan. Adibidez, Allikak Bermeorako nahi lukeena Nafarroako dokumentazioan aurki daiteke, alegia, XV. eta XVI. mendeetan paragogedun aldaerak: *Amorenea* (1706 Elbeten¹⁸), *Caualea* (1676 Eguesen¹⁹), *Olaçeberdea* (1568 Izaban²⁰)...

Lanean aipatzen diren beste ikerketa gehienek haxe berau berrestera datoz, hots, Bizkaian ez dela paragogea XIX. mendea baino lehenago apenas dokumentatzen eta, kontrara, handik ekialderago XVIII, XVII eta are XVI. mendeko lekukotzak aurki daitezkeela. Fenomenoak, beraz, ez dira alde batean eta bestean «adinkideak». Hori aski ez balitz, idatzizko lekukotzen bilketa masiboak erakusten digu halaber –eta horretan Bermeoko ikerketa maisu-lana da–, mendebaldeko tradizio idatzia *-e*-rik gabekoa dela, ekialderago kontrakoa erakusten digun bitartean²¹.

Arauzko aldaerak proposatzean, *Bermeoko toponimia* lanean Euskal Herri osoan irizpide berbera aplikatzeko deliberoa hartu dute beren kasa ikertzaileek,

¹⁸ *Amorenea* arauzko grafia daraman etxe-izena. JIMENO JURÍO, José María (zuz.): *Nafarroako toponimia eta mapagintza*, L-1 liburukia, 201. or. Mendebaldean *Amorena* izango genukeen, nahiz eta gaur egun Bizkaiko leku askotan *Amorene* jaso genezakeen ahoz.

¹⁹ *Zabalea* arauzko grafia daraman leku-izena. Op. cit., XXXVII liburukia, 109. or. Mendebaldean *Zabala* hedatua izango zen.

²⁰ *Olatzeberdea* arauzko grafia daraman leku izena. Op. cit., XIV liburukia, 125. or. Gogoan izan mendebaldean *Olatz* tradiziozkoa ere badugula, Mutrikun.

²¹ Interes handikoak dira Irune Allikak aipatzen dituen Hondarribiko eta Urretxu-Zumarragako lanak. Donostiakoek, tamalez, ez dute apenas XIX. mendetik haragoko dokumentaziorik ekartzen. Aipatzen diren Bizkaiko lanak Bermeokoa baino pobreagoak dira datu dokumentaletan eta ez dute ekarpen berri handirik egiten kontua argitze aldera. Azkenik, Euskaltzaindiak hartutako zenbait erabaki ere zalantzan jar liteke, *-e* paragogikoak iparraldeko euskalkietan duen presentzia eta izan duen tradizioa ez daudelako oraingoz behar bezain sakonki ikerturik.

nahiz eta jaso dituzten datuetan argi ikusi paragoea oraindik Bizkaian guztiz hedatu gabeko fenomeno dela. Berriz ere, balizko populismoak bultzaturik, tradizio laburreko ahozko erabileren bilakaera galgatu ez baina azkarrago hedatzearen aldeko hautua egin dute. Ez da hori Akademiak duen helburua ezta, horrenbestez, hobetsi duen irizpidea ere.

Paragoearen kontu honen gaineko oharrekin amaitzeko, uste dugu ez dela sobera lanaren egileei zientziaren filosofo Karl Raimund Popperren lanen irakurketa iradokitzea²². Honen arabera, «egiak» ezin dira segurtasun osoaz baieztatu beren aldeko datu ugariak metatze soilaren bidez. Kontrara, hipotesi bat gezurtatzeko, aski da haren kontrako lekukotza bakar bat jasotzea. Horren ondorioz, ikertzailearen lana da, batez ere, bere hipotesiak faltsuak direla frogatzen duten datuak bilatzea. Ez aurkitzean, hipotesiak sendoago egiten dira eta, aurkitutakoan, hipotesiak birformulatu behar izaten dira, datuek ezarritako oztopo horiek gainditzeko gai izan daitezen. Hipotesi berri horiek aurrekoak baino sendoagoak izaten dira eta errealitatearen formulazio seguruenak ditugu. Gure diziplinetako ohiko sinismen eta dogma erosoetan gehiegi tematu barik, hori egiten dugunean «egia» zientifikoetara hurreratzen ari gara.

ARAUZKO PROPOSAMENEN GAINKO ZENBAIT OHAR

Toponimia ikerketa guztietan baina, bereziki, sakontasun historikoa duten lanetan, normalizazio proposamena hautatu behar denean, sarritan gertatzen da, garai desberdinetan jasotako izen batzuk baztertu behar izaten direla ego-kiagoa deritzogun bakar baten mesedetan. Azken hau izaten da leku-fitxa bakoitzeko lema nagusia eta, nola edo hala, hobesten dugun izena. Lema honen aldaki izan gabe, beste izen batzuk aurkitzen baditugu leku baterako, horren arauzko idazkera ematea ere beharrezkoa izan daiteke. Bigarren mailako deizio hauek izen historiko, alonimo edo sinonimo huts, erabilera murritzeko toponimoak, herri-goitzenak e.a. izan daitezke eta leku-fitxetan berauek emateko eremu bat edukitzea izaten da onena. Haren faltaz, oharretan aipatzen dira era honetako batzuk *Bermeoko toponimia* lanean. Gure ustez, bildu den informazio dokumentalaren aberastasunagatik, maizago eman behar zen bigarren mailako izenen berri leku-fitxetan. Geure ekarpen kritikoetan saiaturiko gara neurri apal batean gabezia hauek identifikatzen eta, ahal dela, proposamen horiek formulatzen.

Liburuan aurkezten diren arautze-proposamenetan ez da behin ere (-a) oharra gehitu, mugatzailea daramaten leku-izenen kasuan. Honela egitean, izen horiek deklinabidea nola jaso behar duten adierazten ari gara. Adibide bat aipatzearen, *Talagutxi* (233-236. orr.) izenak erabilera desberdina du muga-gabea izanik (*Talagutxi*, *Talagutxin*, *Talagutxiko*, *Talagutxitik*, *Talagutxira*...)

²² *La lógica de la investigación científica*, Tecnos, Madril, 1985.

edo mugatzailea badu (*Talagutxia, Talagutxian, Talagutxiko, Talagutxitik, Talagutxira...*). Bokalez amaitutako izenek buruhauste gutxiago ematen dute, hala ere, kontsonantez amaitutakoek, sarritan, *-e-* epentesia hartu behar izaten dutelako. Esaterako ikus *Baztarre* eta *Baztarreko gotorlekua* (183-186. orr.). *Bazterra (-a)* erak eta *Bazter* hutsak oso paradigma diferenteekin jorratu behar bailirateke (*Bazterra, Bazterrean, Bazterreko, Bazterretik, Bazterrera...* vs. *Bazter, Bazterren, Bazterko, Baztertik, Bazterrera...*). Bereziki konplikatuagoak dira amaierako kontsonantea afrikatua, *-l* edo *-n* dutenak, mugatzailerik ez badute, beste kontsonantismo batzuei aurre egin behar izaten dietelako. Adibidez, *Karatx* (985. or.), *Karatxen, Karaxko, Karaxtik, Karatxera...* mugagabea vs. *Karatxa, Karatxean, Karatxeko, Karatxetik, Karatxera...* mugatzaileduna; eta *Areatzatxugan* (363. or.), *Areatzatxuganen, Areatzatxugango, Areatzatxugandik, Areatzatxuganera...* mugagabea vs. *Areatzatxugana, Areatzatxuganean, Areatzatxuganeko, Areatzatxuganetik, Areatzatxuganera...* mugatzaileduna. Mugatzailea daramaten ala ez adieraztea, beraz, ezinbestekoa da toponimia lanetan, helburua izen horien normalizazioa bada bederen. Geure ekarpen kritikoan gabezia hori duten izenak exhaustiboki aipatzen ez baditugu ere, proposatutako zuzenketa eta iradokizunetan jartzen saiatu gara.

Ohar hauek irakurri eta ongi ulertzeko, gomendatzen da liburua aurrean edukitzea, gehienetan bertan ageri diren datuak izaten direlako egindako kritiken oinarri. Oharretarako liburuaren segida berbera erabiliko dugu baina, gertakari errekkurrenteen kasu gehienetan, azalpenik aberatsena duen fitxara bideratuko dugu irakurlea.

1. HIRIGUNEA

Bermeo (164-170. orr.): Jatorrizko *Bermeio* erak gaztelaniaz *Bermeo* eta euskaraz *Bermio* eman zuela esaten da ohar linguistikoetan (165-166. orr.). Gure ustetan ez da hala gertatu eta sobera daude *-io* «morfema»ren gaineko ohar guztiak, begi bistakoa baita emandako adibideetan jatorri ugaritako leku-izenak biltzen direla. Gure ustetan, *Bermeio* erak bai euskaraz eta bai gaztelaniaz modu berean laburtu zuen hiru bokaletako mul-tzo hori eta *Bermeo* eman zuen hizkuntza bietan. Euskarak gero *Bermeo* > *Bermio* bokalismoa eragin zuen, *etxea* > *etxia* egiten den bezalaxe. Azken bokalismo hau aurreko monoptongazioa (*-ei-* > *-e-*) baino beranduago gertatu zen dudarik gabe, XVI. mendeko euskal testu mende-baldarretan ez baita, adibidez, *-ea* > *-ia* aldaketarik aurkitzen²³. Liburuak dakarren hipotesia egia balitz, gaurko bermeotarrek *Bermio* > **Bermijio*

²³ Cf. frai Juan Zumarragakoaren gutunean, mende horretako Durangoko euskarari *-ea* amaiera argiak, oraindik *-ea* > *-ia* aldaketa pairatu gabekoak. TOVAR, Antonio & OTTE, Enrique & MITXELENA, Luis: «Nuevo y más extenso texto arcaico vasco, de una carta del primero obispo de México, Fray Juan de Zumarraga», *Euskera*, XXVI (1981, 1), 5-14. orr.

esango lukete, *mendia* > *mendijja* edo *Bakio* > *Bakijjo* zeharo automatikoki esaten dituzten bezalaxe.

a. Alde zaharra

Areskurenaga (177-178. orr.): Dokumentazioa ikusirik, zalantza dugu ez ote gauden eraikuntza imajinatiboegi baten aurrean. *Axkunaga* edo *Askunaga* aldaerak kontsideratuko genituzke, tradizio onomastikoa ere badutelako. Lehen osagaiaren balizko -z- horretaz, ikus beherago *Arezi* eta *Arezisolo* (422-423. orr.). Ikus, beherago ere, *Trake kalea* (310-311. orr.) sarreran aldaera honetaz dioguna.

Aroztegi eta **Aroztegi kalea** (178-182. orr.): Bere horretan utz daitezke, baina bistan da *Aroztegi* aldaerak duela tradizioz handiena, deitura gisa ere.

Baztarre eta **Baztarreko gotorlekua** (183-186. orr.): Bistan da paragoge moderno baten aurrean gaudela, alde batetik. Kasu honetan oso argi ikusten da fenomeno hau mugatzailea galdu barik ere gerta daitekeela, euskal deklinabidearen sistemarekin bat, hau da, *Bazterra*, *Bazterrean*, *Bazterreko*, *Bazterretik*, *Bazterrera*... deklinatzen delako. *Pisukalea* jorratzean, *Bazterra* aldaera proposatzen da liburuan bertan (224-225. orr.). Mitxelenak dioena dioela ere, *baztar* aldaerak ez du tradizio zaharrik men-debaldeko euskalkian, ez behintzat *barri*, *garri*, *txarri* eta era horretako errotazismodun eren modukorik. Gure ustez, asimilazio bokalikoa ikusi behar da hor (-a-e- > -a-a-) errotazismoa baino gehiago. Beste alde batetik, jasotako era dokumental gehienak *Baster*- dira, gure ustea sendotzen dutelarik. Honez gainera, gogoan izan behar genuke, osagai honen tradizio onomastikoa -s-duna dela, Bermeoko dokumentazioak berresten duena. Guk *Bazterra* (-a) eta *Bazterreko gotorlekua* (-a) proposatuko genituzkeen edo, nahi balitz -s-dun aldakiak.

Beiportale kalea (188. orr.): Neurri batean edo bestean *Labradores* (*Nekazari*?) eta, agian, *Intxausti* izenei ere arauzko irteera bat eman lekieke.

Denderiakalea (190. orr.): *Errenteria* (198-200. orr.), *Pesk(ad)eria* (220-222. orr.), *Karnazeria* (? 212-215. orr.), *Zesteria* (243-244. orr.), *Eskabetxeria* (331-332. orr.)... badauden arren, guk azken hauek gaztelaniazko hitzen mailegu bezala ulertzen ditugu (-a organikoa dutenak). Ez ditugu modu berean ulertzen *Dendari*- eta *Errementari*- hitzen eratorriak, hirietako kaleen izenetan maiz ageri direnak. Hauek -ari euskal atzizkia daramate eta amaierako -a hori, beraz, mugatzaile kengarria da. Hortaz, ez genituzke *Denderia*- eta *Errementeria*- aldaerak euskaraz ontzat emango eta, kontrara, *Dendarikalea* (-a), *Errementarikalea* (-a)... hobetsiko genituzke, ofizioa barik, artisaua bera aipatzen duena. Cf., halaber, *Merkatarietxe* (333. orr.), zeinetan erdal *Mercadería* batek interferentzia eragin zezakeen.

Kasu honetan, zuzen jokatur, ez da *Merkaterietxe* erarik sortu, agian, *-a- > -e-* hori gertatzeko arrazoi gutxiago daudelako.

Errenteriaportaleko plazatxo (200. or.): *Gerrako Andra Maria* adbokazioa ahanzturan gal ez dadin aukera bat izango genuke, bigarren izen hau historiko gisa proposatuz gero.

Eskolakalea (203. or.): *Ospital(e)kalea (-a)* aldaera historikoa ere eskain liteke.

Goiko plaza (204-205. orr.): Guk *Plazagoiena (-a)* aldaera hobetsiko genuke, hori baita jatorrena. Liburuan proposatutakoa herri-itzulpen eguneratua izan daiteke, gaurko edozein euskaldunentzat gardenagoa, baina ez «hain toponimo».

Karnazeria kalea (212-215. orr.): *Karnazeria* aldaera asimilatuari ez deritzogu itxurazkoa. Itzulpena (*Harakinkalea, Harategikalea...*) ez bada egoki ikusten, *Karnizeria* jarriko genuke. Gainera, *-zarra (-a)* osagaia gehitzea ere egoki ikusiko genuke, sarri ageri baita *vieja* hori dokumentazioan.

Korreokalea (215. or.): Bistan da hori ez dela kalearen izen jatorra, herri-mailan erabiltzen den goitizena baizik. *Escusada* aldaera dokumentatuari euskarazko irteera bat bila zekioken edo, bestela, *Armendurua (-a?)* hobetsi.

Kukunkalea (216. or.): *Kuinkunkalea (-a)* izango litzateke, noski.

Landatxuko etxea (217-218. orr.): Oharretan aipatzen den bigarren mailako deizioa *Bazterreko etxea (-a)* edo *Basterreko etxea (-a)* idatzi behar litzateke. Ikus gorago *Baztarre*.

Mendozarteaga (218-219. orr.): Txistukari hori, Bizkaiko toponimian bederen, afrikatua da. Cf. *Mendotza* Gamizko auzoa, ahoz *Méntza. Mendoza de Arteaga* esapideak, *Arteagamendotza* hurrenkera har lezake euskaraz. Hala egin ohi da euskaraz baserriekin behinik behin: *Magumagoikoetxea, Sagastaetxebarría* eta orobat iparraldean *Hazparne Etxegaraia...*

Mundakana (219. or.): *Mundakaena (-a)* jarriko genuke guk, normalena *Mundakena (-a)* ematea izango litzatekeen arren, deklinatzean *-a-e- > -e-* izaten baita ohikoena. Izen horretako etxe nagusia bada (San Migelgo *Mundakatxu* izenekoari kontrajarria), *-nagusia (-a)* osagaia ere gehi lekiok, nahiz eta horren ondorioz *-na-na-* kakofonikoa sortuko litzatekeen.

Peskaderiakalea (220-222. orr.): Gaztelaniaz *Pescadería* bezala, beste hiri batzuetan *Pesquería* ere ageri izan da. Cf. Bilbon, *Peskeriakalea* edo *Belostikalea* (bere osoan, *Belaustegikalea* litzatekeena). Bermeon, ordea, ez da halakorik dokumentatzen. Itzulpena ere irteera bat izan liteke, *Arraindegikalea (-a)*, alegia.

Pisukalea (222-225. orr.): Aldaera nagusitzat, dudarik ere gabe, guk *Pisueta* emango genuke, ahozko herri-goitizena *Pisukalea* (-a) bada ere. *Bazterra* aldaera zuzena proposatzen da liburuan, apur bat lehenago erabakitakoaren kontra (ik. *Baztarre*, 183-186. orr.). Hartaz diogun bezala, berau ere *Basterra* (-a) idatz zitekeen.

San Migel plazatxoa eta **eskillarak** (226. orr.) eta **Sanmigelportale** (231-232. orr.): Kontuan izan dezagun, euskara jasoan adbokazio hori *Done Mikel* dela, *Mikel* ez baita Aranaren izendegiaren ondokoa, tradiziozko euskal izena baizik. Leku izen horiek bere horretan utziko genituzke guk ere, baina bitxia egiten zaigu, hagianimoen aldaera jaso horiek onartzeko joera handiagoa dela euskara galdu duten Euskal Herriko eremuetan, eskualde euskaldunetan baino.

Sanfrantziskoportale (227-228. orr.): *Herreros* aldaera historikoari euskarazko irteera duina bila zekiokeen (*Errementari*?), *Guadalupe* eta *Sokorro* izenekin egin den legez.

Sanjuankalea eta **Sanjuanportale** (228-231. orr.): *Donibane* irteera ere onargarria izan zitekeen, ahoz ere hala jaso baita. Ikus gorago *San Migel*.

Talagutxi (233-236. orr.): XX. mendean oraindik dokumentatzen da amaierako mugatzailea eta, horregatik, eutsi behar litzaiokeela uste dugu, *Talagutxia* (-a) arazukoa emanik. Irizpideen iruzkinean «artikulua leku izenetan pixkanaka sartu» dela defendatzen den arren (101. orr.), corpus dokumentalak argi erakusten digu gauzak alderantziz gertatu direla, alegia, leku-izen askok mugatzailedun jaio zirela eta erabilerarekin, batez ere azken denboretan, galdu egin dutela (ikus, adibidez, liburuan bertan, jadanik XIX.aren amaieran mugatzailea galdua zeukaten *Intxausti(a)* eta *Landatxu(a)* 208-209. orr.), segur aski lekutasunezko kasu gehienetan deklinaturik -a- hori ezkutatu egiten delako (*Talagutxia*, *Talagutxian*, baina *Talagutxiko*, *Talagutxitik*, *Talagutxira*...).

Torrontero (237-239. orr.): Gure ustez, arauzko *Torrontero*- proposatu behar litzateke normalizaziorako, -o-e- > -o-o- asimilazioa ez baita idatzi behar. Gainera, ahozko lekukotzek aditzera ematen dutenez, mugatzailea eraman du euskaraz ere eta, bizirik dirauenez, eutsi beharko litzaioke, *Torrenteroa* (-a) alegia.

Torronteroko eskillarak (239-241. orr.): Aurrekoa bezala, *Torronteroko eskillarak* (-ak) idatziko genuke, noski. Oharretan esaten zaigu -ez dakigu zein datutan oinarriturik-, Bermeon *Errotxela* erabili zela euskaraz. Bordenetik iparrera dagoen *La Rochelle* portuaren euskal izena, Lapurdiko itsasgizonen ahotan, ordea, *Arroxela* omen da²⁴ eta berau hobetsiko genuke.

²⁴ Joanes Leizarragak 1571ko bere obrako azalean bertan bokal protetikorik gabeko *Roche-lla* erabili zuen, Jose Inazio Iztuetak (*Guipuzcoaco provinciarene condaira edo historia*, La Gran

Uriartezurbituaga (242. or.): Lekukotza dokumentalak ikusirik, deitura biren elkarketa da eta, badirudi arauen aplikazioa apur bat bortxatuz bada ere²⁵, *Uriarte-Zurbituaga* idaztea litzatekeela egokiena.

Zubigane (244. or.): *Zubigan* da izen horren arauzko grafia. Paragoge horien hurrengo urratsa antzeman daiteke ahozko lekukotzen artean, haren ondoren mugatzailea jarrita ere *Subigánie* jaso baita, hots, *Zubigan* > *Zubigane* > *Zubigane*. Esan gabe doa azken honek ez duela ekialderago hain ugaria den *-enea* atzizki oikonimikoak duen tradizioa, nahiz eta formalki gauza bat bera izan.

b. Portua, Lamera eta Gaztelu

Artza (245-247. orr.): Batere tradizio idatzirik ez duen mugatzailea jartzen dio informatzaileetako batek: *Ártzie*. Azken hau *Artzea* idatzi behar litzateke, baina guk ez dugu halakorik proposatuko eta *Artza* utziko genuke, Bermeoko ikertzaileek egin duten bezala.

Bañera (248-250. orr.): Gure ustez mugatzaile eta guzti proposatu behar litzateke, dokumentazioan gaztelaniaz artikulua jaso delako eta ahoz euskaraz mugaturik, *Bañérie*. Hortaz *Bañerea* (-a) litzateke arauzko era. Ondo adierazi behar da, ordea, horrek honako deklinabide hau ekartzen duela bizkaiera jasoan: *Bañerea*, *Bañeran*, *Bañerako*, *Bañeratik*, *Bañerara* (ez **Bañerean*, ezta **Bañereko*, **Bañeretik*, **Bañerera* ere). Berezko -a duten toponimo mugatzailedunekin era honetan jokatu behar da Euskal Herriko mendebaldean behintzat. Bitxia da tradiziozkoa den eta oso bizi-rik dirauen ezaugarri hau baztertzeko joera nabarmena agertzen dutela zenbait giro populistetan ere, euskara estandarraren paradigmatar makurtuz (*Bañera* + -a > *Bañera*).

Barra (250. or.): id.

Bonitoatxe (252-253. orr.): Paragogearen ahozko lekukotzarik ez da jaso eta dokumentazioan behin bakarrik ageri da, 1912an. Datuek diotenaren kontra liburuan ematen den azalpen-sistema sustatu nahirik egin da arau-tze proposamen paragogeduna baina, dudarik ere gabe, arauzko grafia *Bonitoatx* da.

Enciclopedia Vasca, Bilbo, 1975 [1847], 463. or.) *Rochela* dakar eta Koldo Mitxelenak (*Euskal idazlan guztiak, Literaturaren inguruan* 2, Euskal editoreen elkarte, Donostia, 1988, 78 eta 80. orr.) *Errotxela* erabili zuen. Euskaltzaindiaren exonomastika batzordearen 36 eta 151. arauetan finkaturiko exonimoa, hala ere, *Arroxela* da.

²⁵Euskaltzaindiaren 141. arauan ezartzen denez (*Herri izenak: hurrenkera eta zeinu grafikoan erabilera*), leku biren elkarketaz sorturiko toponimo konplexuak marratxo batez idatziko dira: «Bi herik edo gehiagok administrazio elkarte bat osatzen dutenean, bi izenak beti marratxo (-) baten bidez bereiziko dira, izendegi, zerrenda, seinale eta abarretan: *Arratzua-Ubarrundia* (A), *Beintza-Labaien* (NG), *Ezkio-Itsaso* (G), *Gamiz-Fika* (B), *Labetze-Bizkai* (NB), *Maule-Lexarre* (Z)...».

Frantzunatxeta (256-258. orr.): Dokumentazioa ikusirik, guk izen nagusi bezala *Santaklaraoste* emango genuke. Liburuan aukeratu den lema *-tz-* hori ere ezbaizkoa da. Ikus beherago (*Frantzun-* batzuk, 715, 837 eta 1045. orr.). Guk *Frantxuen-* idatziko genituzke hauek guztiak.

Gaztelu (258-261. orr.): Gotorlekurako bada ere, *Santa Eufemia* hagianimoa ere aipatu behar litzateke, azken finean, utzi den izena generiko hutsa da eta.

Gaztelupe (262. orr.): Mugatzaile eta guzti erabiltzen dute informatzaile gehienek. Era dokumentatu bakarra dago eta, beraz, guk *Gaztelupea* (-a) aldaera hobetsiko genukeen. Hori argitze aldera, interesgarria izan liteke inesiboaren erabilera bizia ezagutzea.

Iruiturriak (262-263. orr.): *Santa Klara* izena ere eman lekiok e alonimo bezala, dokumentazioan halaxe ageri baita gehienetan.

Lamera (266-268. orr.): Ahozko lekukotzek argi eta ahobatez erakusten dute mugaturik ibiltzen dela euskaraz, *Lamerea* (-a) alegia. Guk azken hau emango genuke arauzko era bezala, baina kontuan izan bedi deklinatzean horrek ondorio batzuk dituela (ikus gorago *Bañera*, 248-250. orr.). Maila bitxia da, baina euskaldunek beren usadioetara moldatu dutela frogatzen du *-ea* amaiera horrek eta, hortaz, ontzat eman daiteke. Salbuespen gisa, hemen horrela utziko genukeen arren, ohikoan haplologi az zabaturiko silaba errepikatuak berrartzen dira arauzko grafietan (cf. Bizkaian ere *Momoitio* > ah. *Moitxixo*, *Lapurerreketa* > ah. *Lapurriketa*...) eta leku-izen honetan hala gertatu dela aipatu behar litzateke hizkuntza-oharretan (*La-la-* > *La-*).

Portuzarra (274-276. orr.): Guk *Portugitxia* (-a) edo *Portutxikerra* (-a) bezalako aldaera bat nahiago genuke, *Puerto Menor* edo *Puerto Chico* dokumentatuenen euskal ordain gisa. Gainera, era honetan *Portunagusi*-ari (276-277. orr.) kontrajarrita egongo litzateke modu argiagoan. *Portuzarra* (-a) bigarren mailan herri-goitzen bezala utziko genuke.

Ronpiolas (277. orr.): Izen hori, idaztekotan, *Ronpeolas* idatzi behar litzateke, *Bermeo* idazten dugun arrazoi berberagatik (-eo- > -io- bokalismoa ahoz ondo dagoke, baina ez da idazten). Bokalek protetikorik eza bere modernotasunaren froga dela uste dugu. Nolanahi ere, gure iritzian, ez gaude egiazko *toponimo* baten aurrean²⁶ eta ez zaigu mailegu «serieoegia» iruditzen. Itzulpena ere egin liteke, *Olatu horma* edo honelako zerbait.

Salbatxe (277-278. orr.): 1754an *Salbaiche* dokumentatzea arraro egiten zaigu eta konprobatu behar litzateke haren egiazkotasuna, iturri sekundario bate-

²⁶ Era honetako adierazpide generikoak (*eskola*, *faroa*, *kanposantua*...) ez dira egiazko leku-izen lexikalizatuak, adierazpide kartografiko arruntak baizik. Lekuan lekuko ezaugarriak kontuan har badaitezke ere, hizkuntza estandarretik hurbilago egon ohi dira eta maiz euskara estandarrean idazten dira (*ikastetxea*, *itsasargia*, *hilerria*...).

tik jasoa baita²⁷. Hau da XVIII. mendeko *-e* paragogikotzat hartzen den bigarren kasua (bestea *Akatxe*, 978-979. orr.). Hizkuntza-oharretan ezer esaten ez bada ere, azalpen zailekoa iruditzen zaigu aipatu lekukotza dokumentalean ageri den tarteko *-ai-* hori *-ea-* batetik eratortzea ez baita ohikoa (**Salbe-atx(e)* > *Salbaitxe*). Horrek, balizko beste etimoren baterako bidea irekiko luke, apokopearen kausa herri-etimologia batean bila litekeelarik. Beste daturik ezean, hala ere, guk *Salbeatx* emango genuke.

Txinbelaneko etxea eta ***etxartea*** (285-286. orr.): Guk *Txinbelaeneko...* era arauzkoa emango genuke. *Txinbela* izenetik eratorritako oikonimoa *Txinbelena* (*-a*) edo *Txinbelaena* (*-a*) izan daiteke. Bermeon gal litekeen *-a-* hori ahoskatzen denez gero, idazkeran eustea ontzat eman daiteke. Aukerarik seguruenak, hala ere, *Txinbela* hutsa uztea litzateke.

c. Morondo

Morondo (288-292. orr.): Hizkuntza oharretan ematen den azalpena egokia izan daiteke, baina dokumentazioan ez da behin ere *Muru-ondo* edo antzekorik jasotzen (1896ko *casa llamada Portaloste o Mureondo* salbu). Lekukotza hori 1856ko dokumentuan ematen den esanahia zalantzan jaritzeko arrazoirik nahikoa izan liteke. Gainera, sinesgaitza egiten zaigu aipatzen den «asimilazioa»: *-u-o-* > *-o-o-*. Gure ustez, hor asimilazioa gertatzekotan emaitzarik normalena *-u-u-* izango zen. Edozein kasutan, ez genuke arauzko beste grafiarik proposatuko.

d. Artalde

e. Dolareaga eta Esparru

Esparru (298-299. orr.): Ahoz generiko hutsa erabiltzen den arren, guk toponimoa ere daramaten *Dolareaga(ko) esparru* edo *Anituesparru* osoagoak hobetsiko genituzkeen.

f. Adoberia eta Ondarre

Adoberia (300-302. orr.): Oraindik bizirik dagoen *Trakeko errebala* (*-a*) alonimoa eta *Telleriaga* aldaera historikoa ere aipatuko genituzke, arauzko bigarren mailakoen artean behinik behin.

²⁷ SESMERO, Francisco: «Tres siglos de toponimia bermeana», *Jaietako programa*, Bermeo, 1971.

Adoberiako zubia (302-303. orr.): Bistan da dokumentazioan maizago aurkitzen dela *Trakeko zubia* (-a) eta guk horri emango geniokeen lehentasuna. *Telleriagako zubia* (-a) aldaeraz gain, *Ondarreko zubia* (-a) ere eskaini behar litzateke.

Fondazarre (304. or.): Ahoz ere euskal era normala jaso da, hots: *Fondazarra* (-a), eta berau da arauzkoa. Mugatzaile barik ere onar liteke, *Fondazar*, baina honek deklinabidean ondorioak izango lituzkeela jakinik (inesiboan *Fondazarrean* mugatua vs. *Fondazarren* mugagabea, baita epentesirik gabeko *Fondazarko*, *Fondazartik* ere). Bermeoko informetzaileek ahoz inesiboan nola erabiltzen duten jakitea ez legoke, beraz, sobera.

Kakallo (304. or.): Dokumentazioko *Cacadillo* batetik heldu zaigu toponimo hau. Bokalarterko -d- baten erorketa, ahoz ohikoa izanik ere, ez da idazkera jasoan aintzat hartzen eta arauzko era osorik eman behar genuke, *Kakadillo* alegia.

Ondarre (304-306 eta 306-307. orr.): Dokumentazioak argi erakusten duenez, tradizio motzeko paragoge baten aurrean gaude eta *Ondarra* idatzi behar da, mugatzaile eta guzti, (-a) ohar argigarria daramala, beraz.

Ondarreburu (307. or.): *Ondarburu* litzateke emaitzarik logikoena, baina *Ondarriburu* da ahoz maizenik jaso den aldaera, paragogeazaleen amorrurako. Beraz, azken hau proposatuko genuke guk arauzko era bezala. *Bermeoko toponimia* liburuaren egileek, beren teoriak datuen gainetik inolako konplexurik gabe nola para daitezkeen erakusten digute kasu honetan argi-argi.

Telleriagaburu (307-309. orr.): Sarrera honek dakarren dokumentazioak ez du -aga hori behar bezala bermatzen eta hau guztia *Adoberia* (300-302. orr.) sarreran jaso denarekin batera neurtu behar litzateke *Telleriaga* ala *Telleria* hobetsi behar ote den erabakitzeko. Gu ere, ahal dela, galduz doazen -aga horiek babestearn alde gaude eta, beraz, ez dugu *Telleriaburu* aldaerarako aukera proposatu besterik egingo.

Trake kalea (310-311. orr.): *Arreskuenaga* aldaera (edo antzeko zerbait) ere eman behar litzateke, bereziki *Trake* nahasgarria izan daitekeela jakinik²⁸. Gorago proposatu den *Areskurenaga* (177-178. orr.) izenarekin erlazioan egon daiteke eta, hala balitz, bien dokumentazioa amankomunean baloratu eta erabaki bakar bat hartu behar litzateke zalantzazkoak diren -rr- eta -r- hotsen grafiaz eta bestez: *Ares-*, *Arres-*, *Ax-* ala *As-*; -kuren- ala -kuen-.

²⁸ Toponimoen helburua lekuak identifikatzea den aldetik, eta arrazoi gehiagoz kale izendegiaz ari garela, ez da komeni herri bereko bi lekuk izen bat bera izatea.

g. Portale

Portale (313. or.): Aipatzen den *Beko plazie* alonimoaren arauzko grafia, noski, *Beko plazea* (-a) da. Horren deklinabideaz, ikus gorago *Bañera* (248-250. orr.). *San Frantzisko* hagianimoa ere ondo dokumentatzen da, baina izen horrek ez dauka galtzeko arriskurik, komentua ere hor dagoelako.

h. Almikabidea eta Erregiñazubi

Almikabidea, Almikakalea, Almikaondo (317-318. orr.): Kasu hauetan guztietan *Almika*- ala *Almoika*- eman behar den zalantza dugu, bigarrena osoagoa delako. Ikus beherago *Almika* (628-632. orr.). Dokumentazioa ikusita, badirudi -oi- > -i- monoptongazioa zaharra dela, baina hango informatzaile batzuek oraindik gordetzen dutela ere frogatu dute iker-tzaileek (631. or.). Toponimo «nagusi» samarra da eta, agian, egokiena gauzak dauden bezala uztea izango litzateke.

Matsorriane (324. or.): Dokumentaziorik ez dago. Egileek oharretan aditzera ematen dutenaren arabera *Matsorria* + -ne da jatorria eta *Matsorriane* eman behar du. Era horretan defenditu nahi duten sistema hipotetikoa (-n genitibo desinentzia eta -e paragoge tradizionala) zutik mantenduko litzateke. Informatzaileek ordea, besterik adierazten dute: *Matsorri* + -en + a > *Matsorriena* > *Matsorrijene*. Bizkaiko tradizioarekin bat datorren *Matsorriena* (-a) idatzi behar da, noski. Bistan da, paragoge modernoa artikulua egonik ere pairatu duela toponimoak.

i. Erribera

Martzana (332-333. orr.): Durangaldeko elizate ezagun baten auzoa ere bada eta euskaraz *Martzaa* eman du, espero zitekeen bezala. Guk euskal aldaera hori hobetsiko genuke. Deitura legez, ordea, -n-dun aldaera ontzat eman du Euskaltzaindiak²⁹...

j. Zarragoiti

k. Kurtzio eta Santa Mariña

Bildosola (336. or.): Toponimo berri samarra dela dirudi eta ez gara ausartzen besterik proposatzen, baina euskaraz espero behar zena *Bildotsola* da. Cf.

²⁹GORROTXATEGI NIETO, Mikel (par.): *Nomenclátor de Apellidos Vascos / Euskal Deituren Izendegia*, Justizia Ministerioa & Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila & Euskaltzaindia, Madril, 1998, 209. or.

Arteaga Arratiako auzo izenkidea, ahoz ere *Bildosola* esan ohi dena; orobat herri berean *Sarasola* gana aurkitzen dugu, *-ts-* eman behar baina ematen ez duena. Afrikatuaren galeraren arrazoia zein izan daiteke, gaztelaniaren sistema fonologikoa ez bada?

Kurtziogane (337. or.): Paragoge modernorik gabeko *Kurtziogana* (*-a*) muga-tzaileduna da arauzko era.

l. Txibitxiaga

m. Tala

Txirritea (362. or.): Gehienetan bazterrean utzi den arren, kasu honetan oso modu egokian proposatu da arauzko grafian *-a* organikodun hitz horri mugatzaileak eragindako disimilazio bokalikoa. Ezaugarri zahar eta bizi honen babeserako neurriak hartu behar dira arauzko toponimoetan. *Bañera* (248-250. orr.) lekuaz esan den bezala, kontu egin, deklinatzean zer erabili behar dugun: *Txirritea* baina *Txirritan*, *Txirritako*, *Txirritatik*, *Txirritara*...

n. Sanjuanbidea

Aritzatxubidea (363. or.): Arauzko era *Areatzatxubidea* (*-a*) da. Ikus beherago *Aritzatxu* < *Areatzatxu* afera (979-980. orr.).

Aritzatxugane (363. or.): Dударik ere gabe, *Areatzatxugan* da arauzko grafia, nahi izanez gero, mugatzailea ere har lezakeena, *Aritzatxugana* (*-a*). Ez hartzekotan, deklinabiderik egokiena *-ganen*, *-gango*, *-gandik*, *-ganera*... litzateke, hala ere. Mugatzailea hartuz gero, *-ganean*, *-ganeke*, *-ganetik*, *-ganera*... izango genituzke. Lehen osagaiaz, ikus beherago (979-980. orr.).

Itsasgane (365. or.): Toponimo berria den arren, *Itsasgan* idatziko genuke guk, mugatzailerik eta paragogerik gabe. Horrek deklinabidean dituen ondorioez ikus *Aritzatxugane* (363. or.) toponimoaz esandakoa.

Mendiluzeko hilerria (367 or.): Guk *Mendiluzko hilerria* (*-a*) edo *kanposantua* (*-a*) jarriko genuke, oinarriko toponimoa *Mendiluz* delako, ez *Mendiluze*. *Kanposantua* –eta orobat *ortusantua*– generikoa ere jatorra eta egokia da, gure ustez.

Uriatziti (371-373. orr.): Beste proposamenik ez dugu egingo, baina gauzak ez daude nahi bezain argi. Ematen den etimorako zenbait oztopo ikusten dugu. Hasteko, oso arraroa da toponimia zaharrean *-atze-* osagaia aurkitzea eta kasu honetan *Vriachiti* 1236tik aurrera ageri zaigu. Normalean,

idea bera adierazteko, gaur erabiltzen ez den tokietan ere *-gibel-* aurkitu ohi da eta, mendealdean, normalagoa *-oste-* aldaera. Bigarrenik, ia beti dokumentatzen da *-ch-* grafia. Oinarrian *-atze-* forma egotekotan, erdal eskribauen transkripzio zaharra *-eta* baditugu era dokumental zahar samarra *-c-* izango zen. Horren aurka, *-tz-* transkripzio salbuespen bat aurkitu da 1646an. Azkenik, *-achi-* da ia beti aurkitzen den era eta oso modu banatuan kausitzen dugu *-ache-* gardena izan zitekeena. Hurrengo atzizkiaren hots bokalikoarekiko asimilazioagatik esplik liteke hau, baina lekukotza zaharrenetan ere ia invariableki *-i-* agertzea oso arraroa da. Guk, zuhurtasunez, azalpen horren balio hipotetikoaz azpimarratuko genuke.

o. Ibarreta eta San Martin

Baratzeder (374. or.): Toponimoak itxura ona duen arren, ez dugu uste oinarri nahikorik duenik. Dokumentatzen den era bakarra *Badacher-eder* da (1938-1939) eta ahoz jaso den bakarra *Etzegorri* edo *Etzegorrijé*. Nahiz eta guk datu dokumentalei lehentasuna eman ohi diegun, kasu honetan seguruagoa litzateke herri-goitzena den *Etzegorria* (*-a*) proposatzea.

Ibaigane (374. or.): Zalantzarik gabe, *Ibaigan* edo *Ibaigana* (*-a*) da arauzko era. Mugatzailea jartzearen ondorio deklinatiboez, ikus gorago *Aritza-txugane* (363. or.).

San Martin (377-380. orr.): Guk ere bere horretan utziko genuke, baina kontuan izan bedi, adbokazio horren forma jasoa *Done Martie* dela³⁰. Euskal era tradiziozko horien normalizazioaren mesedetan, hori aipatu behar litzateke ermitari dagokion fitxan bada ere.

p. Bilbobidea

Batxiarriene (382. or.): Paragogerik gabeko *Batxiarriena* (*-a*) da arauzko grafia.

Txopoeta (385-386. orr.): Izen hori *Txopoeta* idatzi behar da, oharretan oso modu egokian esplikatzeko den disimilazio hori ez baita euskarazko grafia kultuan jasotzen. Hala ere, azalpen zaileko *-o-* > *-u-* disimilazio sinplea ez baina ohiko harmonizazioa ikusten dugu guk *-oe-* > *-ue-* bokalismoan, gero hiatu sinpletzea (*-ue-* > *-u-*) ere pairatzen duena. Zuhaitz horren izenaren era estandar jasoa *makal* bada ere, toponimian ohikoa da *txopo* mailegua nahiz bere eratorria den *txopodi* kolektiboa, ez **txopu(di)*.

³⁰ *San, santu, done eta besteren erabilera*, Euskaltzaindiaren 125. araua.

Dibio

Dibiobidea (389-390.orr.): *Sanmigelbidea* (-a) eta *Kakadillobidea* (-a) ere eskaini behar lirateke aldaera bezala. Azken horren era osoaz, ikus gora-go *Kakallo* (304. or.).

q. Aranondo**r. Artikabidea****s. Portuburu**

Errosako zubia (401 or.): *Lamiarango zubia* (-a) ere eskainiko genuke guk aldaera bezala.

t. Zehaztu gabeak

Burgo (409. or.): Bistan da *Burgoa* behar duela izan, azken -a hori artikulua den ala ez hain garbi ez badago ere. Ikus beheerago ere *Burgo* (1013-1015. orr.).

San Migel (409-410. orr.), **San Salvador** (410. or.) eta **San Sebastian** (411. or.): Adbokazioen era jasoak, hurrenez hurren, *Done Mikel*, *Salvatore* eta *Done Sebastian* dira³¹.

2. ARANE AUZOA

Arane (414-415 eta 419-421. orr.): Dudarik ere gabe arauzko grafia *Arana* (-a) mugatzaileduna da. Dokumentazio ugarian ikus daitekeenez, mugatzailerik gabeko aldaeratik pasatu gabe pairatu du paragoea. Kontuan izan, hala ere, deklinabiderako mugatzailedun paradigma arrunta erabili behar dela: *Arana*, baina *Aranean*, *Araneko*, *Aranetik*, *Aranera*...

Abaroane (415. or.): Dudatu ere gabe *Abaroena* (-a) da arauzko grafia. Oharretan ezer azaltzen ez bada ere, bistakoa da ahozko *Abárune*, *Abaroena* > *Abaruena* bilakaeratik heldu zaigula, ondoko hiato sinpleketaz. Fenomeno hau oso ohikoa da Bizkaiko kostaldean zehar, Bermeotik ekialderantz behinik behin.

Albarezene (416. or.): Paragogerik gabe, tradiziozko -ena atzizki oikonomikoa bere horretan idatzi behar da. Hortaz, *Albarezena* (-a) izango genuke

³¹ *San, santu, done eta besteren erabilera*, Euskaltzaindiaren 125. araua.

arauzko grafia. Hala ere, guk *Basogalant* dokumentatuagoari emango genioke lehentasuna.

Aranburukoerreka (419. or.): Erabileran beti konplikatuagoa den genitibo egitura saihets zitekeen, dokumentazioan ere aurkitzen den *Aranburue-rreka* proposatuz.

Araneko larre (421. or.): Generikoari *larre* itxura ematea, joera estandarizatzailerik da, euskara batuaz ematea alegia. Bizkaiko hizkeren erabilera tradiziozkoan behintzat –oraindik ere bizirik–, izen horren erabilera mugagabea *larra* da, mugatzailea jasotzean *larra* + *-a* > *larrea* disimilatua bilakatzen dena. Hala balitz, deklinabide jatorrerako, *larrea*, baina *larran*, *larrako*, *larratik*, *larrara*... erabili behar da. Hala ere, ditugun lekukotza urriek argi erakusten dute kasu honetan mugatzailerik ez dagoela eta, beraz, arauzkoa *Araneko larra* mugagabea da.

Arbaltze (421-422. orr.): Paragoge moderno hori ez da jarri behar. Ikus daitekeen bezala, Bermeon ere hura gabeko aldaera jatorra bizirik dago oraindik. Aurreko osagaia ahoz *Ar-* jasotzen da, baina idatziz beti *Atx/As-*. Guk *Asbaltz* hobetsiko genuke.

Areaga (422. or.): Oso da sinesgarria *-aga* atzizkiarena, baina ditugun datuekin ezin da segurutzat eman. Guk, badaezpada ere, *Area* emango genuke, Demikuko leku izenkidarekin erlazioan ezin jar badaiteke behintzat (789-790. orr.). San Pelaioko *Areagako basoa* (944. or.) eta *Areagako landa* (944-945. orr.) izenek ere ez dute *-aga* horren lekukotza sendorik. Ikus beherago.

Arezti eta **Areztisolo** (422-423. orr.): Mendebaldean *Aresti-* da arauzko grafia. Euskalki horretan *Aretx* da aldaera jatorra (< *Areitz*). Eratorrietan, haren ondoren kontsonantea dagoenean *-x-* > *-s-* gertatzea oso normala da, tradizio onomastiko ugaria ekarri duena. Deitura horren tradizio onomastiko bakarra *Aresti* da. Kontrara, nekez aurkituko dugu *-z-* eskualde hauetan.

Axgane (424-425. orr.): 1851n dokumentatzen den arren, paragogerik gabe eman behar da arauzko grafia, *Axgan* alegia. Honen deklinabideaz, ikus gorago *Aritzatxugane* (363. or.). Hala ere, *Telleria*, *Plantatxu* edo *Etxezuri* ere eskain litezke, agian lehentasunez.

Axmontorre (425. or.): Txistukariaren despalatalizazioa oso arrunta da inguru foniko horretan eta arauzko eretan ere horrela onartu ohi da (cf. *Elespe*, *Aresti*, *Aspunta*...). *Axgane* (424-425. orr.) toponimoarekin ez bezala, hemen *As-* jaso da ahoz eta hala emango genuke guk arauzko grafian. Paragoge berria, ordea, ez da arauzko idazkeran islatu behar eta, beraz, *Asmontor* proposatuko genuke.

Basoillun (431.or.): Dokumentazioak erakusten duenez, *Basa-* aldaera disimilatu jatorra erabiltzen zen lehen (1680ra arte). Guk horixe hobetsiko genuke, *Basaillun* alegia.

Berjele (433-434. orr.): Paragogerik gabe proposatu behar litzateke arauzko grafia. *Berjel* hitzaren lekukotza asko aurki daitezkeen arren, etimo hori hipotesi mailan utziko genuke guk, ahoz *Breijjele* eta dokumentazioan *Berdela* baizik ez direlako jaso. Tarteko *-d-* horren bustidura baten ondorio ere izan liteke gaurko *-j-* hotsa... Hala ere, dokumentazioko *Berdela (-a)* edo egileek proposatutakoarekin bat datorren *Berjela (-a)* emango genuke guk.

Bidekoetxe (435. orr.): Mugatzailea 1948ra arte dokumenta daiteke eta ahoz ere *Andikoetxea* jaso da. Hortaz, *-a* horri eutsi behar zaio arauzko grafian. *Bidekoetxea (-a)*, beraz.

Etxabarria (Arotza) (437. orr.): Egokiena formarik osoena ematea izaten da, erabileran era laburtuak zilegi badira ere. Kasu honetan ez dugu argi aldaera osatu hori *Etxabarriarotza (-a)* ala *Arotzaetxebarria (-a)* izan behar ote den, baina etxe-izenekin normalena bigarren hau litzateke. Dokumentazioan *Echabarria de Aroça* jasotzen da 1703an.

Etxebarri (437-438. orr.): Gure ustez forma osatua lehenetsi behar litzateke, hots, *Oruetxebarri*, era laburtuaren ahozko erabilera oso normala den arren. Horrek beste *Etxebarri* batzuetatik bereizteko aukera ematen du.

Galdizko kantarak (443. orr.): Asimilazio bokaliko horrek *(-a-e-a- > -a-a-a-)* ez du idatzizko tradizioarik eta generiko arrunta den aldetik, *kantera* idatzi ohi dugu beti. Mugatzailea nola erabili behar den adierazteko *(-ak)* oharra behar luke.

Galdizko kantarak (444-445. orr.): Generiko horretaz, ikus aurreko izenkidetarako esandakoa. Hala ere, dokumentazioak argi erakusten du *Gibeleko kanterak (-ak)* eman behar litzatekeela.

Garimeta (445. orr.): Dokumentazioak dakarren bakarra *Gavimeta* da. Ustezko etimoagatik eman zaio eman zaion itxura baina hori, gure ustez, ez da metodologikoki zilegi. Guk *Gabimeta* utziko genuke, nahiz toponimo ilun bezala gelditu.

Gibele (446-448. orr.) baserria eta parajea: Guk *Gibela (-a)* utziko genuke, mugatzaile eta guzti, halaxe dokumenta daitekeelako 1922ra arte. Paragogearen lehen lekukotza 1857koa da eta parajerako ez da *-e* hori behin ere dokumentatzen.

Goikoetxe (449. orr.): Dauden datu urrien aurka, toponimoak duen *-a* mugatzailea kendu egin zaio, segur aski ikertzaileek mugatzaileaz ehundu dituzten azalpenekin bat eratortzearren. Dударik gabe, *Goikoetxea (-a)* da leku horren arauzko era.

Gorostadi (449-450. orr.) baserria eta parajea: Lekukotza dokumentalek erakusten dutenez, *Gorostegi* hobetsiko genuke guk, baina segurtasun handirik gabe, hala ere.

- Gorostiape** (450-451. orr.): Tarteko *-a-* horrek *-aga* atzizki bat salatzen du, gure ustez. Agian *Gorostadi* etxerako (449-450. orr.) XVIII. mendean jaso den *Gorostiaga* aldaera egon daiteke atzean. Hori posible izanez gero, *Gorostiagape* litzateke normalena.
- Grandene / Aritatzugane** (451. or.): Izen zaharra *Mikelaetxebarri* zen eta arauzko itxuran eskaini behar litzateke. Hautaturikoak, orde, paragogerik gabe *Grandena* (*-a*) eta *Areatatzugan* idatzi behar lirateke. Azken izen horretaz, ikus gorago *Aritatzugane* (363. or.) eta beherago *Aritatzu* (979-980. orr.). Hala ere, guk lema bakarra jarriko genuke, gainerako alonimoak aparte aipaturik.
- Grandene** (451-452. orr.): Aurrekoa bezala, *Grandena* (*-a*) idatzi behar da, Bizkaiko tradizio oikonomikoa babestearren. Bermeon bertan dauden etxe izenkieak bereizteko toponimiak baditu tresnak eta, gure kasu honetan, bazegoen *Kabogoikoa* (*-a*) aukera alternatiboa ere.
- Itsasalde** (452-453. orr.): Lema nagusi bezala ez bazen ere, etxe horren izenik dokumentatuenari kasu eginik, *Buenavista* aldaerari lekua egin behar zitzaiokeen. Gaztelaniazko izenak erabiltzea, behiala, prestigioa adierazten zuen, baina gaur egun izen horiek ezkutatzen saiatzen gara, hartaz lotsatuko bagina bezala.
- Itsasgane** (453-454. orr.) baserria eta larrea: Toponimo modernoak diren arren, guk paragogerik gabe idatziko genituzke biak, *Itsasgan* alegia. Honek deklinabidean dituen ondorioez, ikus gorago *Aritatzugane* (363. or.).
- Iturricane** (456. or.): Paragogerik gabeko *Iturricane* da euskal era jatorra. Honek deklinabidean dituen ondorioez, ikus gorago *Aritatzugane* (363. or.).
- Iturrisolo** (456. or.): Izen bereko bi leku daudenez gero, lehenengoari dokumentatzen den izen alternatiboa emango genioke guk, *Iturriondokoa* (*-a*) alegia.
- Joakintxu** (458-459. orr.): Guk *Joakintxuena* (*-a*) emango genuke, hala dokumentatzen delako eta Bizkaiko tradizio oikonomiko jatorrarekin bat datorrelako.
- Juliane** (459-460. orr.): Guk *Vistalegre* izen dokumentatua hobetsiko genuke, bigarren maila batean *Juliena* (*-a*) (*Julia* izenaren gainean eraikitako goitizena) edo *Julianena* (*-a*) (*Julian* izenaren gainekoa) utzirik.
- Kantarabaso** (460. or.): *Kanterabaso* idatzi behar da, idatzizko tradizioz gabeko asimilazio modernoa baita. Ikus *Galdizko kantarak* (443. or.) toponimoan esandakoa.
- Karlotana** (460. or.): Guk dokumentazioan jaso den *Karlotena* (*-a*) erregularragoa emango genuke arauzko era bezala.

Kasakane (460. or.): Guk tradizio luzeagoa duen *Bistaederra* (-a) izenari emango genioke lehentasuna eta, idazkera egokiaz, bigarren mailan utziko genuke behin dokumentatzen den *Kasakena* (-a) era. *Mandalu(n)* iz. izenak bestelako buruhausteak ekarriko lituzke, ordea.

Kastane (460-461. orr.): Badirudi atzean *Kasta-ena* eduki lezakeela, segur aski *Kasta* andre izenaren eratorria. Guk *Kastena* (-a) edo *Kastaena* (-a) emango genuke, noski, paragogerik gabe eta mendebaldeko usadioari segituirik.

Kerizeta (461. or.): Bizkaiko aldaera jatorra *Kerexeta* litzateke, eta ahoz *Keríseta* baizik ez dugun arren, halaxe idatziko genuke guk. *Kerizeta* zeharo estandarizatzaila da eta ez dugu uste egokia denik. Ikus beherago *Leixartxueta* (466. or.), kasu berean egon arren, bestelako soluzioa eman zaiona.

Larrañe (463. or.): *Larraña* (-a) proposatuko genuke guk, nahiz dokumentaziorik ez den bildu. Generiko hutsa denez gero, *Larraina* (-a) grafia estandarra ere ontzat eman liteke.

Lauziriko arezti (463. or.): Dokumentazioak ondo erakusten duen bezala, arauzko grafia *Lauziriko aresti* da. Ikus gorago *Arezti* (422-423. orr.).

Leixartxueta (466. or.): Bizkaiko arauzko aldaera tradiziozkoa *Lexartxueta* da eta guk honela idatziko genuke. Honekin lotuta, ikus gorago *Kerizeta* (461. or.), soluzio grafiko antzekoa eskatzen duena.

Leixarreta (466 or.): Dokumentazio gutxi duen arren, diptongorik gabeko lekukotzak ditugu hemen, Bizkaiko tradizioarekin bat datozenak eta *Lexar-* hasiera hobestera bultzatzen gaituztenak. Ikus gorago *Lexartxueta* (466. or.) eta *Kerizeta* (461. or.).

Luberri (466. or.): Bizkaiko leku askotan honela esaten den arren, tradizio idatzirik gabekoak dira bokalismo horiek, bigarren osagaia *-barri* baita. Dudarik ere gabe, bokale itxitura aurreko *-u-ri* zor dio *-baita*, agian, ondoko *-i-ri* ere-, Bermeon *berri* osagaia sinestezina delako (ikertzaileek agian, errotazismoa gertatu aurreko aldaera arkaikoa Bermeon bizirik aurkitu dutela pentsa lezakete, hala ere). *Lubarri* idatzi behar da, asimilaziozko bokalismo horiek ez baitira inoiz idazten. Cf. *Gernika* eta ez *Gernike*, *Maguma* eta ez *Magume*...

Madari (466-467 eta 467. orr.) baserria eta parajea: Guk *-aga* atzizkia berreskuratzea kontsideratuko genuke, emaitza «toponimoagoa» izango bailitzateke horrela.

Makatze (467. orr.): *Makatza* (-a) da euskarazko hitza edo, nahi balitz, mugatzailerik gabeko *Makatz* ere bai. Azken honek deklinabidean ondorioak izango lituzke, hala ere, paradigma mugatu arrunten ordeztu, *Makatz*, baina *Makatzen*, *Makatzko*, *Makatztik*, *Makatzera*... erabili beharko litzateke eta.

Mallukisolo (468. orr.): Ahoz hala jaso bada ere, dokumentazioak *Mallukitza* iradokitzen digu eta guk honelaxe emango genuke. *Telleripeondo* ere har liteke lema nagusi bezala, baina lema bikoitzak saihestuko genituzke edozein kasutan ere. Populismo zantzua antzematen da alternatiba posibleen aurrean, idatzizko era jasoak ahozko lekukotzetara makurtu nahi horren atzean...

Marinone (468-469. orr.): Aldaera hori *Marianoena* (-a) idatzi behar da. Hala ere, dokumentazioan oinarri hartuta, *Etxebarri(txikerr)a* (-a) edo antzeko zerbait izango litzateke lehenetsi beharrekoa. Guk aldaera osatuena nahiago genuke.

Muskerritxune (474. or.): Aldaera hori *Muskerritoena* (-a) idatzi behar da eta, lema nagusi bezala ez bada, sinonimo legez behintzat *Andikoetxebarri* ere eskainiko genuke.

Otaebagia (475. or.): Oso litekeena da planteatzen den hipotesi etimologikoa, baina egia eztabaidez bezala azaltzea ez da oso zuhurra. 1910eko *Ota-veise* pare bat baizik ez daukagu eta *Otaebagia* (-a) proposatzea ausarta egiten zaigu. Hala ere, bere horretan utziko genuke, erreserba horiek guztiak aditzera emanik, badaezpada ere. Ikus beherago ere *Iraebagia* (723. or.).

Otsolarre (475. or.): *Otsolarra* mugagabea da arauzko grafia jatorra. Bigarren osagai generiko horren gainean, ikus gorago *Araneko larre* (421. or.) izenez esandakoa.

Patxotene (475-476. orr.): Bitxia da paragogedun aldaera lehenagotik dokumentatua aurkitu izana (1847-1874koa da lehen agerpena). Seguraski, ikertzaileen eskema esplikatiboen arabera, -ena amaieradun lekukotzak eskribau erdaldunen asmazioak izango direla esango da. Guk, ordea, aldaera horiek jatorrizkotzat hartzen ditugu eta mendebaldean hobetsi egiten ditugu. Ondorioz, lehenbizikoz 1895ean ageri den *Patxotena* (-a) idatziko genuke.

Pedrualde (476. or.): Guk *Pedruondo* hobetsiko genuke.

Pepetolarre (476. or.): Ikus gorago *Araneko larre* (421. or.). Hala ere, guk kasu honetan *Pepetolar* emango genuke, ahoz jasotako -e hori paragoge arrunta baita eta, jakina denez, toponimian *lar-* oso sarri ageri den osagaia delako. Cf. -aur, -luz... ere amaierako -e hori galdu ohi dutenak leku-izen eta deiturretan.

Peruarezti (477. or.): Dударик ere gabe *Peruaresti* idatzi behar da izen hori. Ikus gorago *Arezti* (422-423. orr.).

Piku (478. or.): Bizkar bat izanik -pe atzizkiak oso «propio» ematen ez duen arren, halaxe ageri da dokumentazioan eta guk *Pikupe* proposatuko genuke.

Sartzailleku (482-483 eta 483. or.): Dokumentazioari kasu eginik *Sartzalleku* idatziko genuke guk, *-ai-* diptongo hori, inoiz egon bada, desagertua baitago lehenbiziko lekukotzen garaietatik.

Solozarre (483. or.): Oraindik ere, erarik erabiliena euskarazko jatorrena da Bermeon, paragogerik gabekoa, hots, *Solozar*. Horixe idatzi behar da arauz.

Txankane (487. or.): Badirudi jatorrizko izena *Buenavista* (edo *Vistalegre*) dela. Bigarren mailako herri-aldaera –goitizena, azken finean– aipatzekotan, *Txankaena* (*-a*) idatzi behar litzateke, paragogerik islatu gabe alegia.

Txopitene (487. or.): Mendebaldeko tradizio oikonomikoari kasu eginik, paragogerik gabeko *Txopitena* (*-a*) idatzi behar da.

Urkitzeta (488. or.): Ez dugu honetarako beste proposamenik. Hala ere, dokumentaturiko era eta ahoz jasotakoaren arteko lotura oso ezbaizkoa da, batetik besterako jauzia esplikatzeko ez bada bederen.

Zitza (488. or.): Guk *Sitza* idatziko genuke, noski, halaxe baitator dokumentazio urrian.

3. AGIRRE AUZOA

Agirre / Auzoko (491-492. orr.): Gure ustez, bigarren aldaerak ez dauka oinarri nahikorik, ahoz baizik ez baita jaso. Guk lema nagusi bezala *Agirredikoa* (*-a*) emango genuke bakarrik eta *Obi(a)koena* (*-a*) bigarren aukera gisa. Ahoz jasotako goitizenezaren ostean, segur aski, **Agirreauzokoa* (*-a*) hipotetiko bat egon liteke.

Agirrebarrenengo (493. or.): Artikulua duela gutxira arte idatzi da eta ez genuke galdutzat emango. *Agirrebarrenengoa* (*-a*) idatziko genuke, beraz.

Agirregoiko / Pellune (493-494. orr.): Mugatzaile eta guzti dokumentatzen da beti duela gutxira arte eta, beraz, *Agirregoikoa* (*-a*) emango genuke lema bakun bezala. Ematen den bigarren deizio horren grafia arauzkoa *Pelloena* (*-a*) da eta alonimo mailan utziko genuke. Gure ustez, *-oe-* > *-ue-* > *-u-* bokalismoak ez dira arauzko idazkeran jasotzeko moduko fonetismoak eta paragoea ere ez.

Areztinagusi (495. or.): *Aresti-* da lehen osagaia. Ikus gorago *Arezt*i (422-423. orr.)

Arrietane (495-496. orr.): Izen horren arauzko grafia dokumentatzen den *Arrietena* (*-a*) da, paragogerik gabea. Izen bereko beste etxe batzuetatik bereiz-

teko, *Agirrearrietena* (-a) osoagoa ere onar liteke, 1922ko lekukotza dokumentalean oina harturik. Agian *Agirre*- osagaia daraman beste izenen bat ere eskain liteke (*Agirreerdikoa*, *Aldauriagirre*, *Zurbituagagirre*...).

Artone (496. or.): Guk *Etxezuribidekoa* (-a) proposatuko genuke arauzko lema gisa. Goitizena eman nahi izatekotan, *Artoena* (-a) izango litzateke arauzko grafia.

Bastegieta / Igartuko etxezarre (496-497): Guk *Bastegieta* edo *Bastegietabarrenekoa* (-a) emango genuke soilik. Ahoz batu den aldaera hori eman nahi bada, paragogerik gabeko *Igartuetxezar* edo atondu behar litzateke. Edo etxe-izentzat hartzen da eta bat eginik idatzi, edo ez da toponimo bat eta «esapide arrunta» da. Azken hau balitz, gure ustez ez litzateke ezta alonimo bezala ere eskaini behar eta *Igartuko etxe zaharra* idatziko genuke. Beste aukera batzuk ere badaude, hala ere, dokumentaziotik abiatuta: *Ametzorma*, *Kanteraetxebarria* (-a)...

Bizkargane (497. or.): Guk *Bizkargan* idatziko genuke, noski. Ikus honen gainean, *Aritzatzugane* (363. or.) izenerako esandakoa.

Errotatxu (498. or.): Luzea den arren, *Etxebarrimotzenaerrotatxu* proposatuko genuke arauzko idazkerarako. Bistan da, *Errotatxu* ez dela izena, generikoa baizik, eta ahoz hori bakarrik erabiltzea zilegi eta logikoa da. Dirudienez, -aga- bat egon zen hor erdian, baina XVIII. mendean galdutzat eman daitekeela uste dugu, batez ere, hurrengo izenaren dokumentazioa ikusirik.

Etxebarrimotzene (499-500. orr.): Arauzko *Etxebarrimotzena* (-a) dio dokumentazioak desbideratzerik gabe eta XX. mendeko azken lekukotzetara arte. Guk noski, paragogerik gabeko era tradiziozko hori hobesten dugu. Dirudienez, -aga- bat egon zen hor erdian, baina XVIII. mendean galdutzat eman daitekeela uste dugu.

Fiolene (501. or.): Beharbada *Fielena* (-a) litzateke egokiagoa, baina -ie- > -io- bokalismo harrigarria esplikatu behar litzateke eta ez da erraza. Nolanahi ere amaiera -ena idatzi behar da.

Igartu (501-502. orr.): Mugatzailea ez da galdutzat eman behar, XX. mendearen erdialdeko lekukotzetan oraindik hala ageri baita. *Igartua* (-a), beraz.

Kalene (503. or.): Guk *Frantsesena* (-a) proposatuko genuke. *Kalena* (-a) izen berria, nahi bada, bigarren aukera gisa eskain liteke, beti ere paragogerik gabe, noski. *Agirrebekoa* (-a) eta *Julianena* (-a) ere aipatu behar lirateke maila historikoan edo bestelakoan.

Kantara (504. or.): Bitxia da XIX. mendeko lekukotza zaharrenetatik (1827) *kantara* aldaera asimilatua gailentzea. Bokalismo horretaz, ikus gorago *Galdizko kantarak* (443. or.) izenean esandakoa. Nolanahi ere, guk informazio gehiago ematen duen *Kanteragoikoa* (-a) emango genuke arauzko lema bezala.

Kantaraburu, Kantarape (504 .or.): Id. *Kantera-*, beraz.

Kantarazarre (504. or.): Id. Gainera, paragoge berri hori ez da onargarria eta *Kanterazar* emango genuke.

Kerizeta (505. or.): XX. mendeko dokumentazioa baino ez dago, baina *Kerihasiera* erakusten du. Hala ere, guk *Kerexeta* tradiziozkoa hobetsiko genuke arauzko idazkerarako. Ikus gorago *Kerizeta* (461. or.) izenerako esandakoa.

Kurtzeanondo (505. or.): Ez dugu alternatibarik formulatuko. Ondo deritzogu ematen den bokalismoen gaineko azalpenari. Oso ondo, halaber, idatzizko era proposatzean, gertatutako fonetismoak desegin nahi izateari. Hala ere, *Kurtzean-* horren aurretik beste zerbait egon behar litzatekeela uste dugu eta horren gaineko zalantzarik ez da aditzera ematen oharretan. *Kurtzeanondo* ez da nahi bezain gardena, atzean zer dagoen ikusten ez dugularik: *Kurtzearen ondo-?*, *Kurtzeganondo?*...

Larrañe (506. or.): Oinarri bakarra du 1910eko *Larrane* era dokumentalean eta ausart samarra iruditzen zaigu *Larrañe* proposamena. Hala balitz, *Larraña* (-a) edo *Larraina* (-a) idatziko genuke guk. Ikus gorago *Larrañe* (463. or.).

Laumariko (506. or.): Forma osoagoren bat jarriko genuke guk, baina ez gaude seguru noraino berreraiki behar ote dugun. Muturreko aukera *Lau-marabediko* bera izango litzateke, baina *Laumaraiko* behintzat emango genuke. Onartu behar da biek *laumarai* eta *laumari*-k badutela euskal hiztegi gintzan tradizioa.

Mamatzane (510. or.): Dударик ere gabe, Bizkaiko tradizioarekin eta era dokumentalekin bat datorren *Mamatzena* (-a) da arauzko era.

Masotze (510. or.): Segur aski *-tza* amaiera behar luke.

Pedru (511. or.): Dokumentazioak erakusten duenez, amaierako *-a* izan du duela gutxi arte. Guk horrela emango genuke, hots, *Pedrua* (-a).

Pintxesgane (512. or.): *-gan* amaiera hutsa lagako genuke, paragogerik gabe. Ikus horretaz, gorago *Aritzatxugane* (363. or.).

Sagargane (513. or.): Id.

Saitu / Foteroane (513. or.): Galera moderno samarra da eta *Saitua* (-a) utziko genuke guk lema bezala. *Galartza*, *Baporenekoa*... aukerak oharretan agertzeari ondo deritzogu, baina ahoz jaso eta bigarren aukera gisa ematen dena *Foteroena* (-a) idatziko genuke guk, oharretara bazterturik.

Saitu (514. or.): *Saitua* (-a) dударик ere gabe, dokumentatu ez ezik, halaxe ere erabiltzen baita. Ikus aurrekoa ere.

Solobiribille (514. or.): Guk paragogerik gabe emango genuke arauzko grafia, *Solobiribil* alegia, lekukotza urriak moderno samarrak dira eta. Honen deklinabideaz, ikus gorago *Aritzatxugane* (363. or.) izenerako esandakoa.

Tontorre (515. or.): Id. Paragogerik gabeko *Tontor* hobetsiko genuke arauzko grafia jaso bezala.

Txaoletabeko (515. or.): Mugatzailedun *Txaoletabekoa* (-a) jarriko genuke guk, galera berria baita. Bigarren aukera arautzekotan, *Zezilioena* (-a) izango litzateke, baina lema bikoitza ez da egokia.

Txaoletaerdiko (516. or.): Mugatzailea kendu zaio arrazoirik gabe eta *Txaoletaerdikoa* (-a) da arauzko era.

Txaoletagoiko / Paulogorri (516-517. orr.): Guk lema bakarra emango genuke, mugatzaile eta guzti, hau da, *Txaoletagoikoa* (-a). Bigarren aukera aparte aipa liteke.

4. SAN MIGEL AUZOA

Alagarre (521. or.): Paragogerik gabeko *Alagar* idatzi behar litzateke, dokumentatutako erarekin bat.

Algane (522. or.): Dauden lekukotza guztiak moderno samarrak diren arren, guk *Algana* (-a) emango genuke arauzko grafia bezala. Deklinabideaz, ikus gorago *Aritzatxugane* (363. or.) izenean esandakoa.

Arkiene (524. or.): Ditugun datu guztiak berri samarrak dira baina, sail bat izanik ere, guk *Arkiena* (-a) emango genuke arauzko era bezala.

Arkotze (524. or.): Izen horrek badu tradizio onomastiko nahikorik –Zarata-moko toponimo nagusia eta deitura– eta guk ez dugu arrazoirik ikusten horren kontra jotzeko. Beraz, *Arkotxa* jarriko genuke leman. *Arkoetxe* aldaera dokumentala ere kontsidera liteke, baina zalantza dugu herri-etimo erraz baten ondorioa ez ote den.

Arkotzepe (524-525. orr.): Aurrekoari jarraiki, *Arkotxape* litzateke arauzko era egokia.

Arlobiribille (525. or.): Guk paragoge berri hori gabeko *Arlobiribil* idatziko genuke, jakina.

Arloluze (525. or.): Lehentasuna emango genioke dokumentatutako izenari, ahoz ere jaso dena, eta *Konstantza* idatziko genuke. *Arloluze* hori, zerbait izatekotan, herri-goitizena izango litzateke.

Artetxu (526. or.): Mugatzailea ondo dokumentaturik dago duela gutxira arte eta *Artetxua* (-a) jarriko genuke guk lema bezala edo, nahi bada, «toponimoagoa» den *Artetxueta*.

Atxagane (527. or.): Ez dakigu zergatik aurreiritzi behar den horren ostean *Atxa* dagoela eta ez, adibidez, *Etxa*-. Bestalde, paragoea ez genuke inola ere ontzat emango. Toponimo «hiperbilakatua» litzateke, *atx*- hitzari *-a* organikoa onartzen diona eta *gan* generikoari *-e* paragoea. Zalan-tzaren aurrean *Txagan* (edo *Txogan* are ilunagoa) utziko genuke.

Aspaltxu (527. or.): *Ax*- palatalaren iraupenik ezaz ikus gorago *Axgane* (424-425. or.). Izan duen bilakaeraz ematen den esplikazioa korapilatsu samarra da. *Aspaltxu* bezala, guk *Aspaltzu* ere kontsideratuko genuke: *Atx-baltz-zu*, *Atx-baltz-tza* aldaeraren sinonimo izan litekeena.

Baltzane (529-530. orr.): Lehen aukera gisa *Bedarzuriet*a dokumentatuagoa emango genuke eta, bigarren hau, *Baltzena* (*-a*) idatziko genuke arauz, noski.

Basabetxune (530. orr.): Goitizen hau *Basabetxuena* (*-a*) idatzi behar litzateke Bizkaiko usadio oikonimikoari jarraiki.

Beasko (531-532. orr.): Erabiltzen den era laburtua ahoz zilegi bada ere, guk *Morterutxabeaskoa* (*-a*) emango genuke izen jaso bezala.

Egi (533-534. orr.): *Egia* (*-a*) da arauzko era osoa, mugatzailerik gabe behin ere dokumentatzen ez da eta.

Eguzkitxune (534. orr.): Horren ostean, *Eguzkitxuena* (*-a*) izen arauzkoa dago dudarik ere gabe.

Elizbide (534. orr.): Dokumentazioan ageri den aldaera da mendebaldeko eus-karan tradizio idatzia duena, hots, *Elex*- hasiera duena. Guk *Elexbide* idatziko genuke, nahiz despalatalizaturiko *Elesbide* edo *Elespide* ere arauzkoak izango liratekeen.

Ermetxiobeko (536. orr.): Dokumentatu ez ezik ahoz ere jaso den mugatzailea behar du arauzko grafiak, *Ermetxiobekoa* (*-a*) alegia.

Ermetxioerdiko (537-538. orr.): Aurrekoaren moduan, *Ermetxioerdikoa* (*-a*) litzateke arauzkoa, ahoz jaso ez bada ere.

Ermetxiogoiko (539-540. orr.): Ahoz ere mugatzaile eta guzti jaso da eta dokumentazioak hala dakar duela gutxira arte. Beraz, *Ermetxiogoikoa* (*-a*) eman behar da arauzko aldaera gisa. Gainera, *Ermetxionagusia* (*-a*) ere eskain liteke bigarren aukera bezala.

Errematzane (540. orr.): Dokumentazioak oso argi erakusten du *-ena* atzizki oikonimikoaren tradizioa zein den. Lehen osagaiaren txistukaria nola idatzi behar den ez dugu argi, *Errematzena* ez ezik, *Errematxena* ere izan litekeelako, beti ere (*-a*) oharra daramala. Oharretan aipatzen den *-e*- > *-o*- «disimilazio»rako arrazoirik ez dugu ikusten, ez behintzat ohiko bokalismoen artean.

Etxebarrierrekabeko (542-543. orr.): Dokumentaturiko bereizgarria, ordea, «mayor» izenondoa da eta, beraz, *Etxebarrierrekanagusia* (-a) izango litzateke egokiena lehen aukera gisa.

Etxebarrierrekagoiko (543-544. orr.): Arrazoi beragatik, *Etxebarrierrekatxikerra* (-a) litzateke egokiena.

Etxebarrierrekako aretxeta (545. or.): Arautze irizpide zehatza dago kasu hauetarako eta, beraz, generikoak *-eta* amaiera duelako, bat eginik idatzi behar da, *Etxebarrierrekakoaretxeta*. Hala ere, *Etxebarrikoaretxeta* laburragoa da dokumenta daitekeen bakarra eta guk horixe hobetsiko genuke.

Galtzarre (546. or.): Guk *Gantzarre* zaharragoa hobetsiko genuke. Oharretan aipaturiko *-l-* / *-n-* txandakatzea ez da batere ohikoa eta eskertuko litzateke azalpenen bat...

Garazondo (546. or.): Guk ere ez daukagu argi, baina *Garatzondo* ere proposa zitekeen.

Gaztañape (547. or.): Toponimoak dituen oinarri urrietan –ahoz bitan– beti dugu mugatzaileduna eta *Gaztañapea* (-a) idatzi behar litzateke, beraz.

Gaztañazabale (547. or.): Dударik ere gabe, *Gaztañazabala* (-a) da arauzko grafia. Ahoz ere halaxe jaso den arren, dokumentazioan behin ageri den paragoea gehitu zaio.

Gaztañazarre (547-548. orr.): Arauzko aldaera *Gaztañazarra* (-a) da, mugatzaile eta guzti.

Iratzgorri (552-553. orr.): Oharretan aipatzen den alonimoa *Atxuena* (-a) idatzi behar da.

Itubizkartxikerre (559-560. orr.): Ahoz *Itubizkartxiki* jaso da. Nolanahi ere, *txiker* aldaera hobestekotan –eta guk ere hala nahiago genuke–, paragoerik gabe egin behar litzateke, *Itubizkartxiker*, edo mugatzaileaz, *Itubizkartxikerra* (-a).

Iturrandiaga (561. or.): Lehen osagaiaren *Itur-* aldaerak berri samarra dirudi, gehien dokumentatzen dena *Iturri-* osoa baita. Guk *Iturriandiaga* proposatuko genuke grafia jasorako. Ikus beherago ere, *Iturbide* (605. or.).

Iturriko beresi (562. or.): Dударik ere gabe, genitiboa saihestu eta *Iturriberesi* proposatuko genuke, erabilera errazagokoa da eta.

Jeronimone (563-564. orr.): Dokumentazioaren arabera, etxearen izena *Ormatza* dela ematen du. Goitzenaren era arauzkoa ere eskaini nahi bada, arauzkoa *Jeronimoena* (-a) da. *Ormatzajeronimo* edo *Ormatzajeronimoena* (-a) konplexuagoak ere onar zitezkeen.

- Josune** (564. or.): Guk *Etxebarribeotegi* hobetsiko genuke izen jaso bezala, bigarren aukera gisa *Jesusena* (-a) emanik. *Josu* era ponte-izen horren aldaera modernoa da eta, hautatzekotan, *Josuena* (-a) idatzi behar litzateke. Guk ez genuke, hala ere, ontzat emango.
- Kaballogane** (565. or.): Paragogerik ez genioke jarriko. *Kaballogan*, beraz. Honen deklinabideaz, hala ere, ikus gorago *Aritzatxugane* (363. or.).
- Kakallosolo** (565. or.): Lehen osagaiaren era osoa *Kakadillo* da eta, beraz, *Kakadillo* idatzi behar da leku-izen hau. Ikus gorago *Kakallo* (304. or.).
- Kantarape** (565-566. orr.) eta **Kantarapeko iturria** (566. or.): *Kanterape* ja-torra ongi dokumentatua dago eta halaxe idatzi behar litzateke kasu bietan. Ikus gorago *Galdizko kantarak* (443. or.).
- Kerizazpi** (566. or.): Ikus *Keriza*- honi buruz gorago *Kerizeta* (461. or.) toponimoan esandakoa. Gainera, honako honek mugatzailea ere behar du, hala esaten baita. Hortaz, gure ustez, arauzko aldaera *Kerexazpia* (-a) izango litzateke.
- Landa** (567. or.): Dokumentaturiko *Landatxu* aldaera «osoagoa» da gure ustez, eta halaxe hobetsiko genuke.
- Larrezarre** (567. or.): Dokumentazioan ageri den *Larrazar* hobetsi behar da. Bizkaiko euskaran *Larra*- da mugatzailerik gabeko hitza. Ikus honen gainean *Araneko larre* (421. or.) toponimoan esandakoa.
- Morteruza** (569-570. orr.): Gure ustez -*tza* atzizkia darama eta, beraz, txistukari afrikatua behar du, hau da, *Mortertutza*. Ikus gorago *Beasko* (531-532. orr.) izenaz esandakoa.
- Mundakatsu** (570-571. orr.) baserria eta parajea: Guk -*ena* atzizkia ere jarriko genieke, dokumentazioan eta ahozko bilketan ageri da eta. *Mundakatsuena* (-a), beraz.
- Ormako solo** (572 or.): Guk *Ormakoa* (-a) hobetsiko genuke, *solo* hori generiko hautazkotzat hartuz. 572-573. orrialdeetakoa, orde, bere horretan utziko genuke.
- Ozkirriene** (573. or.): *Ozkirriena* (-a) edo *Ozkirrienekoa* (-a) da arauzko grafia. Azalpenetan ematen den hiatoaren bilakaera ez da, inola ere, segida horretan gertatu, -*iena* > -*ijjena* > -*ijjene* baizik, hots, -*a*-rik ez da inoiz ere egon hor.
- Sakone** (575. or.): Dudarik ere gabe, *Sakona* (-a) mugatzaileduna da arauzko era.
- San Migel** (575-577. orr.): Bere horretan utziko genuke baina, gorago esan den bezala, *San Migel* (409-410. orr.) adbokazioaren aldaera jasoa *Done*

Mikel da³². Horregatik, auzo honen izenerako Euskaltzaindiak³³ *Donemikel* izena proposatu du aspaldian.

San Migeleko zelaia (578. or.): Epentetikorik gabeko *San Migelgo zelaia* (-a) hobetsi behar da, paragogearen sorrera hor datza eta. Ondorio hauetaz, ikus ahoz jasotako *Sanmigele* era, paragogeak desitxuratua (577 or.).

Santunatxe (578-579. orr.): Azalpenetan ematen den bilakaera nahita aldrebestu du egileak, euskal deklinazioaren protodesinentzien teoria hipotetikoak sustatu nahirik. Tamalez, toponimo honi dagokion dokumentazioak eta, halaber, euskal literatura klasikoak, oso argi erakusten dute genitibo marka zein den euskaraz (-en eta ez -an). Interpretazioak egitekotan, guk hor *Santu-ena* ikusten dugu lehen osagai konplexu bezala, bigarren osagaia jasotzerakoan, mugatzailea galtzen duena. Horren ostean ez dago, beraz, genitibozko erlazio sintagmatikoa (*Santuen* izen-laguna + lagundutako izena: ‘santuen haitza’), elkarketa arrunta baizik (*Santuena* jabego-izena + beste izen bat: ‘*Santuena* etxeko haitza’). Arrazoi horregatik idatzi behar da bat eginik. Guk, beraz, *Santuenatx* emango genuke arauzko era bezala, nahiz toponimo moderno samarra izanik, *Santuenatz*e ere izan litekeen.

Sapotxune (579. or.): Lehen osagaiaz ikertzaileek dituzten erreserbekin bat gatoz, baina arauzko amaiera *Sapotxuena* (-a) da, nolana ere.

Solozarre (579-580. orr.): Dokumentaturiko aldaerei eutsiko genieke, zaharrak izan arren, eta *Solozarra* (-a) emango genuke arauzko era bezala. Beste aukera egoki bat *Solozarreta* «toponimoagoa» izango litzateke.

Tontorre (580. or.): Beste daturik ezean, guk *Tontor* hutsa idatziko genuke, bilakaera modernizanterik gabe.

Torre (580-581. orr.): Generikoa ez baina izena jartzea ahaztu zaie ikertzaileei. Dorreak ez dira eraikuntza ugariak eta normala da herri-erabileran izena aipatu behar ez izatea, generikoarekin aski baita identifikaziorako. Horrek ez du esan nahi izenik ez dutenik. Kasu honetan, *Gaztañagatorre* izen arauzkoa jarriko genioke guk eta, bigarren aukera gisa, *Aldauriatorre*. Mugatzailea galdutzat emango genuke dagoeneko.

Trinkone (582. or.): Guk era osoa emango genuke, nahiz eta osagaiak sakanaturik agertzen zaizkigun bildutako datuen artean. *Trinkoenabeaskopea* (-a) emango genuke, alegia.

Txaliñene (582. or.): Dударik ere gabe *Txaliñena* (-a) emango genuke arauzko era bezala.

³² *San, santu, done eta besteren erabilera*, Euskaltzaindiaren 125. araua.

³³ Onomastika batzordea: *Euskal Autonomia Erkidegoko biztanle-entitateak*, Eudel, Bilbo, 2001. Hala ere, *San Migel* onartu du parentesi artean emanik.

Txapoane (582-583. orr.): Dagoen lekukotza dokumental bakarra benetan leku horri badagokio, guk *Txaparroena* (-a) idatziko genuke zalantzarik ere gabe.

Txumelatxune (583. or.): *Txumelatxu* hutsa lagako genuke, nahiz eta hor, segur aski, -ena atzizkia dagoen. Horri eutsi nahi izanez gero, *Txumelatxuena* (-a) idatzi behar genuke.

5. SAN ANDRES AUZOA

Aldatze (589. or.): Paragoge berri hori gabekoa da arauzko era idatzia, noski. Ahozko era atzo goizekoa da duda barik. *Aldatza* (-a), beraz. Euskara estandarerako *aldats* hitza aukeratu den arren, Bizkaiko toponimian tradiziozkoa txistukari horzkaria da.

Ametze (589. or.): Paragoea ez da egokia arauzko eran, begi bistakoa denez, tradizio laburreko fenomeno delako. Dokumentazioak erakusten duenaren arabera, -u amaieradun aldaera erabili da. Baliteke *Ametz-tza* eta *Ametz-zu* multzokari esanahikideen aurrean egotea. Nolanahi ere, *Ametza* emango genuke arauzko lema bezala (-a berezkoa duena) eta *Ametzu* bigarren aukera gisara, nahiz kontziente izan *Ametz-txu* ere egon daitekeela atzean.

Amutxu (589-590. orr.): Ez da behin ere dokumentatzen eta ahoz -e-dun aldaera ere jaso da (*Amentzü*). Susmoa dugu atzean ez ote den aurrekoan agerturiko *Ametzu* (*Ametz-zu*) bera egongo. Ikus gorago *Ametze* (589. or.). Erlazio hori jarterik ez balego, bere hartan utziko genuke.

Arestierreka (591-592. orr.): Guk *Arestierreka* proposatuko genuke normalizaziorako. Txistukari horretaz, ikus gorago *Aresti* (422-423. orr.) izenean esandakoa. Kasu honetan ahoz jaso den generiko mugatzaileduna (*errèkie*, hots, *errekea*) azken ordukoa da eta ez dugu idazkera jasoan mugatzailerik hartu behar.

Artikene (592. or.): Dudarik ere gabe *Artikena* (-a) idatzi behar da, paragoge desitxuratzailerik gabe.

Berdantza (593. or.): Arauzko idazkera ondo emanda dago, baina azalpenetan ematen den «lege fonologiko» berri hori apur bat gehiago esplikatu behar lukete, guk dakigula, testuinguru horretan -e- > -i- gertatu beharrik ez baitago. *Berdantza* > *Berdentza* aldaketa uler genezake, baina *Berdentza* > *Berdintza* ez da bokalismo ezaguna.

Elizalde (597. or.): Hemengo lekukotzen arabera, proposatutako era litzateke egokiena. Dena dela, mendebaldeko aldaera tradiziozkoa *Elex-* da eta

horrek *Elexalde* emango luke. Ikus honi buruz, *Elizbide* (534. or. eta 597-598. orr.) izenetarako esandakoa.

Elizbide (597-598. orr.): Dokumentazioa kontuan izanik, arauzko *Elesbide* proposatuko genuke, ahoz ere hala jaso da eta. Ikus gorago *Elizbide* (534. or.) eta honen aurreko *Elizalde* (597. or.). Mugatzailea (*-bidiē*) informataileak azken orduan jarritakoa dela ematen du.

Eskiribanu (599. or.): Dokumentazioko *Escribano* eta ahoz jasotako *Eskiriburu* aldaeren arteko lotura segurua izanik ere, zalantza dugu idatzizko proposamenarekin, hitz horren euskal aldaera arruntak bokalarteko *-n-a* galdu ohi baitu: *eskribau*.

Gaztañadi (603. or.): Dokumentazioak aldaera «osatuagoa» ere ematen digu, nola edo hala arauzko grafian eskaini beharrekoa, gure ustez. Guk *Gaztañagaztieta* proposatuko genuke.

Iturbide (605. or.): Garrantzi handikoa ez bada ere, badirudi *Iturribide* aldaera «oso» dela tradizio handiagokoa eta, beraz, arauzko grafian lehenetsi beharrekoa. Ikus gorago ere *Iturrandiaga* (561. or.). Hala ere, era horretako elkarketa-aldaerak babestu beharrekoak dira oro har.

Jardinondo (606. or.): Oro har, liburuan bustidurak idazteko irizpidea segitu da eta hemen ere, hala egin behar litzateke, hots, *Jardiñondo*.

Kerezondo (607. or.): Guk lekukotza dokumentalak ikusi eta mendebaldeko aldaera tradiziozkoari eutsiko genioke toponimo honen arauzko grafian. Hortaz, *Kerexondo* proposatuko genuke. Ikus gorago *Kerizeta* (461. or.) leku-izenean esandakoa.

Luberri (609. or.): Bitxia da dokumentazioak ere *Lurberri* ematea (1944 eta 1950ean), gipuzkerazko forma alegia. Gure ustez, ordea, izen honen –eta lekukotza berantiarren– ostean dagoena bokalismo arrunta da, (*-u-a-i > -u-e-i*) eta hau ez da arauzko idazkeran jaso behar. Ikus gorago *Luberri* (466. or.) eta aurreko *Lubarri* (609. or.) ere, ahoz *Luberri* jaso dena.

Mendiondo (611-612. orr.): Lekukotza dokumentalek diotenez, *Berdantza* izeneko paraje bera da, gorago emanda zegoena (593-594. orr.) eta, beraz, hau ere hari dagokion beste izen bat dela pentsa liteke.

Nardiz (612-614. orr.): *Narditzikerre* (615-616. orr.) ere ematen denez gero, dokumentatzen den *Nardiznagusia* (*-a*) aldaera «osatuagoa» proposatuko genuke honetarako.

Narditzikerre (615-616. orr.): Paragoge modernorik gabeko *Narditzikerra* (*-a*) izango litzateke arauzkoa, mugatzaile eta guzti.

Pastitxu (617. or.): Gure ustez, toponimo horri dagozkion lekukotza dokumentaletan erreparatuta, desitxuraketa edo bilakaera ez da hor esaten den

segidan gertatu. Guk arauzko era *Pasteitxu* idatziko genuke eta, gure ustez, horretatik heldu dira beste bi aldaerak (-ei- > -i- eta -a-ei- > -a-ai-). Hala ere, ikus beherago *Astazabaleburu* / *Pastitxuburu* (1012. or.) izenean esaten dena.

Pozubaltze (618. or.): Izen horren mendebaldeko aldaera jatorra eta toponimian oso errepikatua, Bermeon ere bizirik, *Pozo-* da, ez *Pozu-*. Paragoge hori ez da idatzi behar eta tokiari arauzko izena *Pozobaltza* (-a) idatziko genioke, iturriari bezala³⁴.

Sagasti (618. or.): Ahoz jaso ez den mugatzailea duela gutxira arte (1983) idatzi da eta guk hala emango genuke idazkera jasoan, *Sagastia* (-a) alegia.

Sakone (619. or.) parajea eta saila: Dударик ere gabe, paragoge desitxuratzailerik gabeko *Sakona* (-a) litzateke arauzko idazkera, mugatzaile eta guzti.

San Andres (620-621. orr.): Ermitaren izena honela utziko genukeen arren, adbokazioaren aldaera jaso Done Andere da³⁵ eta horren berri non edo non ematea ez legoke gaizki. Arrazoi honengatik Euskaltzaindiak auzo izenerako *Doneandere* proposatu du³⁶.

Solozarreta (621-622. orr.): Dokumentazioan bildu dena aintzat harturik, aldaera zaharra *Sotozar* da. Ahozko *Solosárreta* nahiz 1910ean jasotako *Solozar* haren desitxuraketak izango lirateke, onartu behar ez litzatekeen herri etimologia, azken finean. Guk *Sotozar* emango genuke edo, gehiezez ere, *Sotozarreta*.

Tontorreta (622 or.): Arauzko aldaera *Dondorreta* da, dударик ere gabe. Hitz hasierako ahoskabetzea azken orduko «lege fonologiko jator» modernoa da (cf. *Korosti*, *Katike...*), baina ez da idatzi behar. Kasu honetan herri etimologiak ere lagundu du desitxuraketan.

6. ALMIKA AUZOA

Almika (628-632. orr.): *Albonica* > *Alboinka* > *Albeinka* > *Albinka* > *Almika* > *Almike* segida ez dago ondo ordenatuta. Kontsonante sudurkarien eboluzioa eta berauetarik bokalarrekoen eraginak eta ondorioak ez ditu ondo ezagutzen egileak eta sekula gertatu ez den balizko «metatesi» batekin abiatzen du bere azalpena. Ez da hala gertatu. Lehenengo urrats batean, bokalarrek -n- hotsaren erorketa daukagu, ohi bezala, bokaletan sudurka-

³⁴ Bitxia da oharretan ematen den azalpena: «Tokia *Pozubaltze* deitzen da, iturria *Pozu baltza*».

³⁵ *San, santu, done eta besteren erabilera*, Euskaltzaindiaren 125. araua.

³⁶ Onomastika batzordea: *Euskal Autonomia Erkidegoko biztanle-entitateak*, Eudel, Bilbo, 2001. Hala ere, *San Andres*era onartu du, parentesi artean emanik.

ritasunaren ezaugarria utzirik, hots, *-ôi-* diptongo sudurkaria³⁷. Bigarren urrats batean, *-b-* > *-m-* ezpainbikoen nahastea etorriko litzateke, berau ere zeharo normala Euskal Herri osoan. Hortik heldutako *Almoika* guztiz erregularra litzateke arauzko idazkerarako, baina aldaerarik hedatuena urrats bat harago doa, *-oi-* > *-i-* monoptongazioa eginik³⁸. Horixe da *Almika* erregularrera heltzeko bidea.

Aingeruarda (634. or.): Bistan da euskarazko erabiltzaileek beti ematen dutela mugatzaile eta guzti (baita hurrengo erregistroa ere). Guk *Aingeruarda* (-a) emango genuke. Deklinabidea nola erabili behar den ikusteko, ordea, ikus gorago *Bañera* (248-250. orr.).

Aldatzeta / Birjiñean beresia (635-636. orr.): Guk ez genuke leman bigarren izenik emango, hots, lehenetsitako izena *Aldatzeta* izan dadila. Bigarren aldaera edo alonimoa, konplikatuagoa da, noski. Genitibo egitura gorde nahi balitz, *Birjiñaren beresia* (-a) eman liteke. Guk, ordea, hura gabeko aldaera hobetsiko genuke, *Birjiñaberesia* (-a) alegia.

Almikape (639-640. orr.): Guk *Solobiribillalmikape* emango genuke, ez baitugu ikusten zer dela eta edeki behar den leku izenaren hasierako atala.

Areztixu (641-642. orr.): *Arestitxu* idatziko genuke. Ikus gorago *Arezt*i (422-423. orr.).

Astalarre (642. or.): Mugatzaileak gabeko *Astalarra* idatziko genuke guk, nahiz eta hasierako osagaiak *-e* amaiera izan lezakeen, *Astalarra* alegia. Bigarrenaz, ikusi *Araneko larre* (421. or.) izenean esandako.

Astalarrepe (643. or.): Ibid. *Astalarrape* edo *Astelarrape*, aurrekoarekin bat, noski.

Bakereseana (643. or.): Ondo legoke oharretan toponimo hau apur bat komentatzea, genero adierazlea den *-sa* atzizki ezohikoa daramalako. Bokalen dantza dagoen arren, guk arauzko grafia *Bakeresaena* (-a) edo, arruntena, *Bakeresena* (-a) proposatuko genuke.

Bidartemotzene (644-645. orr.): *Bidartemotzena* (-a) da aldaera jatorra, berrikeriarik gabekoa.

Galartzane (650-651. orr.): Aldaera horren era tradiziozkoa oso argi ikusten da dokumentazioan, *Galartzena* (-a) alegia. Guk *Almikondo* alonimoa ere emango genuke eta, agian, lehenetsi ere bai. Oharretan aipatzen den txistukariaren neutralizazioa (*-r- ζ -* > *-r-t ζ -*) ez da hor gertatu, toponimoak berezko afrikatua duen *-tza* atzizkia daramalako, beste edozein testuingurutan ere hala ageri dena (*Apio-tza*, *Paga-tza*, *Urki-tza*...).

³⁷ Sudurkaritasun horrek eragingo du ondoko *-n-* hotsaren berreraiketa, *kanpai*, *ard(a)o*, *area*... hitzen eratorrietan *kanpan-*, *ardan-*, *arean*... ageri direnak.

³⁸ Oharretan aipatzen den *-oi-* > *-ei-* «asimilazio»rako arrazoiaren bat bilatu beharko zen...

Goiko atxea (651. or.): Berrikeria izanik ere, onartzen da liburuan *-a* (pseudo-organikoa) + *-a* (mugatzailea) > *-ea* amaiera. Guri ez zaigu oso normalizatailea iruditzen, *atx* hitzak sekula ez duelako euskaraz *-a* organikorik izan baina, hala ere, onartuko genuke, beti ere behar bezala deklinatzen bada, hots, lekuzko desinentziak *atxa-* gaiari erantsirik. Horretarako argigarri, ikus gorago *Bañerea* (248-250. orr.). Hala ere, beti geratuko zaigu zalantza bigarren osagai hori *-atxea* ez ote den izango. Nolanahi ere, euskalkien ezaugarri tradizionalen onerako, prestutasun berbera erakutsi behar litzateke *-a-a* > *-ea* disimilazio guztiekin...

Ikazulo (651-652. orr.): Bistan da toponimoaren jatorrian *Ikatz* hitza egongo balitz, txistukari hori afrikatua izango litzatekeela Bermeoko euskaldunen ahotan. Atzean dagoena *Ika-* gaia da, 'piku'aren mendebaldeko *iko* berbaren elkarketa-aldaera, alegia. Cf. *Ikazurieta* auzunea Nabarnizen, zeinetan ez dagoen, noski, 'ikatz zuri'rik, 'piku zurixka' baizik, zuhaitz horren hostoen atzealdeari erreferentzia arrunta.

Iturizarregane (655. or.): Dudatu ere gabe *Iturizargan* emango genuke arauzko idazkera bezala. *Iturizarre* (1051-1052. orr.) errekaren fitxan ez dugu dokumentaziorik, baina baliteke *-aga* edo antzeko zerbait ere egotea hemen epentetiko suertatu zaigun *-e-* paragogiko horren ostean.

Kalene (655-656. orr.) baserria: Dударик ere gabe *Kalena* (*-a*) da arauzko era idatzia, dokumentazioan hain argi ikus daitekeena.

Kalene (656. or.) parajea: Aurrekoarekin nahasean, izen hori *Kalena* (*-a*) idatzi behar litzateke baina, agian, dokumentazioan ageri den *Kalenaurre* osoagoa ere kontsidera liteke, beti ere lekukotza dokumentalek leku horri egiten badiote erreferentzia. *Ereñotzalde* alonimoa ere arauz eman eta aipatu behar litzateke non edo non.

Kantarako aritzeta (657. or.): Toponimia txikia arautzeko irizpideek argi esaten dute *-eta* atzizkia daramaten generikoak bat eginik idazten direla genitibo egituretan. Gainera *Kantara* aldaera ez da idazkera jasoan islatzeko modukoa, nahiz onartu behar den hemen 1895etik dokumentatzen dela lekukotza guztietan. Honi buruz, ikus *Galdizko kantarak* (443. or.). Edonola ere, guk *Kanterakoaretxeta* idatziko genuke, bigarren osagaia *-areatzeta* ez dela aurreiritzita. *Aritz-aretx* gaiaz, ikus gorago *Areñti* (422-423. orr.); beste aukeraz, ikus beherago *Aritzatxu* (979-980. orr.).

Kantarea (657. or.): Arauzko aldaera *-a-e-* > *-a-a-* asimilaziorik gabekoa da. Ikus *Galdizko kantarak* (443. or.). Kasu honetan, gainera, mugatzailea darama eta *-a-a* > *-ea* disimilazio jatorra gertatzen da. Beraz, *Kanterea* (*-a*) dugu arauzko era. Honen deklinabide zuzenaz, ikus gorago *Bañerea* (248-250. orr.).

Katuen erreka (658. or.): Sail bat den aldetik, ahozko lekukotzetan oinarrituriko *Katuenaretxa* edo dokumentazioan oinarriturik, *Katukoasoloa* ere

atundu liteke. Lekukotza horiek aintzat hartuta, pentsa daiteke atzean ez dagoela genitibozko egitura sinple bat, idazkera bereizia eskatuko lukeena, *Katuena* edo *Katukoa* etxe-izena eta generiko baten elkarketa baizik (*aretxa*, *erreka* edo *soloa*). Esanahia ez da, beraz ‘katuen erreka’, ‘*Katuena* (edo *Katukoa*) etxeari dagokion erreka’ baizik. Eta hori *Katuene-rreka* idatzi behar da, hitz batean.

Larregane (659. or.): Generikoa daraman aldaeran, ahozko *Larra*- mugagabe jatorra jaso da eta halaxe ageri behar da arauzko grafian. Amaierako paragoea, orde, ez genuke aintzat hartuko eta *Larragan* emango genuke. Ahoz jasotako bestea, kontrara, mugatzaileduna da: *Larra+a* > *Larrea*, ahoz *Larrié*. Honi buruz, ikus gorago *Araneko larre* (421. or.).

Maisuan etxea eta **saila** (659-660. orr.): Dudarik ere gabe *Maisuen etxea* (-a) eta *saila* (-a) edo, mendealdeko tradizioari segituz, *Maisuena* (-a) ere eraiki zitekeen, bereziki propioa etxea eta saila izendatzeko.

Motzene (661. or.): Dokumentazioak argi erakusten digu nola idatzi behar den, paragoge modernorik gabeko *Motzena* (-a) alegia.

Orrotzane (662-663. orr.): *O-a* > *o-o*- asimilazioa ez da idazkeran onargarria (*Durango* > *Durungo* idatzi behar ote genuke?). Amaierako atzizki oikonomiko tradizionala jagon beharrekoa da eta, beraz, *Orratzena* (-a) litzateke arauzko era.

Sabinetxe (664. or.): Mugatzailea behar duela dirudi, *Sabinetxea* (-a) alegia.

Sakone (664. or.): *Sakon* idatz liteke edo, nahi bada, mugatzaile eta guzti *Sakona* (-a), aski generiko ohikoa izaten baita. Hautu honek, hala ere, ondorio bortitzak izango lituzke deklinabidean. Ikus honi buruz *Aritzatxugane* (363. or.) izenean esandakoa.

Txarakane (665. or.): Guk *Mikeleteburu* hobetsiko genuke. Ahoz bakarrik jasotzen den izena eman nahi bada, *Txarakena* (-a) idatzi behar litzateke.

7. ARTIKA AUZOA

Almikerrota / Utzuene (675-677. orr.): Bigarren aldaera aparte aipatuko genuke, lema bakarra uzte aldera. Hasierako *U-* lehenago dokumentatzen den arren, *Otxoena* (-a) aukera ere kontsideratuko genuke azken honetarako. Edozein kasutan ere, *-ena* (-a) amaiera behar du arauzko grafiak.

Almikerrota / Utzuenondo (677. or.): Ibid. Bigarren aldaerarako, aurreko erregistroan erabakitakoaren arabera jokatu behar da, noski.

Altzadi (677. or.): Guk eutsi egingo genioke mugatzaileari, dokumentazioan eta erabileran jaso delako, *Altzadia* (-a) alegia.

- Antonion iralekua** (678. or.): Hori euskaraz *Antonioren iralekua* (-a) idazten da, noski, beti ere *Antonioena* (-a) izeneko etxe baten eratorria ez bada. Kasu horretan *Antionioeniralekua* (-a) idatzi behar genuke, hitz batean alegia.
- Arestia** (679. or.): Arauzko idazkera *Arestia* (-a) da. Ikus gorago *Aresti* (422-423. orr.).
- Aritza** (679. or.): Sinestezina da Bermeon *aretx* zuhaitzaren aldaera hori aurkitzea. Gure ustez, horren atzean beste zerbait ezkutatzen da, segur aski *Areatza*. Cf. beheago *Aritzatxu* (979-980. orr.).
- Aritzibiribille** (679. or.): Paragogerik gabeko era hobetsi behar da arauzko idazkerarako. Gainera, tarteko -z- horretaz, ikus gorago *Aresti* (422-423. orr.). Mendebaldeko aldaera jaso *Arestibiribil* litzateke.
- Arroleuneta** (680. or.): Jaso diren datu urriekin guk *Arroleuneta* hautatuko genuke, bestea, gehienez ere, hipotesi bezala aipaturik.
- Atsoarene** (684-686 eta 686-687. orr.): Paragoge modernorik gabeko aldaera emango genuke dudarik ere gabe, *Atsoaren* alegia. Amaiera hori genitibo marka zaharra dela esatea ez dago ezinbestez gaizki, baina eztabai-dagarria da.
- Atsoareneburu** (687. or.): Aurreko izenean egindakoari kasu eginik, hau *Atsoarenburu* idatzi behar da, idatzizko lekukotzekin ados.
- Atsoareneko zubia** (687. or.): Deklinatzeko moduan, guk -e- epentesirik gabeko aukera hobetsi ohi dugu, paragogearen jatorri izan ohi delako bokal hori eta, beraz, toponimiaren desitxuraketarako akuilu. Hortaz, hemen *Atsoarengo zubia* (-a) proposatuko genuke erabilera jasorako.
- Aurreko larre** (688. or.): Ez dakigu zergatik estandarizatu behar den Bermeon hain ondo erabiltzen den aldaera dialektal jatorra. Mugatzailerik gabeko Bizkaiko aldaera, ahoz eta dokumentazioan jaso den bezalakoa da, *Aurreko larra* alegia. Ikus honen gainean gorago *Araneko larre* (421. or.).
- Barruti** (689-691. orr.): XVI. mendeko pare bat lekukotzetan bera barik ageri bada ere, guk mugatzaileari eutsi egingo genioke, haren galera, gertatu izatekotan, berria bailitzateke. Hortaz, *Barrutia* (-a) emango genuke arauzko era gisa.
- Basabe / Txukene** (691-692. orr.): Guk arauzko idazkerarako *Basabe* hutsa lagako genuke, lema bakarra. Bigarren aukera *Txukena* (-a) izango litzateke, paragogerik gabea, eta berdin *Kontzena* (-a).
- Beledrone** (694-696. orr.): Dokumentazioak argi erakusten duen legez, *Beledroena* (-a) idatzi behar da izen hori. Bigarren aukera bakarra emango genuke, *Errotabarri* alegia.

Berriz-solo (697. or.): Marratxoa «lekuen elkarketak» adierazteko erabiltzea da egokia³⁹ eta, txistukarien metaketa arraro eman dezakeen arren, *Berrizsolo* idatziko genuke.

Bibero (698. or.): Ez dugu ukatzen agian euskaraz ere ibili denik, baina *guk Vivero* idatziko genuke, euskaldunek ez dutelako ezertan ere moldatu beharrik izan. Moderno samarra den aldetik –1944an lehen agerraldia–, neotoponimotzat hartu eta euskal aldaera estandarra ere proposa liteke, hots, *Mintegi* edo antzeko zerbait.

Bidezabale (698. or.): Paragoge berri hori ez genuke onartuko. Beraz *Bidezabal* proposatuko genuke. Hala ere, mugatzailerik ezak ondorioak ditu deklinabide jasoa. Horren ganean, ikus gorago *Aritzatzugane* (363. or.).

Bidezarre (698. or.): Paragogerik gabeko *Bidezar* proposatuko genuke hemen ere, nahiz eta deklinabiderako ekarriko dituen ondorioak samurragoak izan: *Bidezar*, *Bidezarren*, *Bidezarko*, *Bidezartik*, *Bidezarrera*...

Brankille (699. or.): Beharbada *Brankil* hutsa edo mugatzaile *Brankilla* (-a) izango lirake zuzenak, baina mugatzailea duen ala ez erabakitzeke ez dago datu nahikorik.

Enparane (700-702. orr.): Ahozko bilketak erakusten duenez, -n- horren gailera suertatu da, berez bokalartekoa ez den arren. Fenomeno hau errepikatzen da beste lekuren batean (*Lagran* > *Lagrabide*, Arabako Mendialdean). Hortaz, besterik gabe, paragoge gertatu dela esatea ez da, gure ustez, zehatza. Edonola ere, *guk Enpara* proposatuko genuke eta horrek ondorioak izango lituzke segituan aditzera ematen diren eratorrietan: *Enparaneazpi* > *Enparazpi* (702. or.), *Enparaneburu* > *Enparaburu* (702. or.), *Enparanepe* > *Enparape* (702. or.) eta *Enparanondo* > *Enparondo* (702-703. orr), zeinetan -a+o- > -o- zilegia gertatu den.

Erramuene (704-705. orr.): Paragogerik gabeko *Erramuena* (-a) da arauzko era jatorra.

Erramueneburu (705. or.): Bitxia bada ere, mugatzaileak irauten du posposizioa jaso arren. Fenomeno hau errekurrentea da eta ontzat eman daiteke, hots *Erramueneburu* idatzi behar da, dokumentazioan (1903-1946) jaso den moduan.

Errotaburu (706. or.): Lekukotza bakarra dago, dokumentala, eta berau mugatzaile duna da. Beraz, *Errotaburua* (-a) dagokio.

³⁹Euskaltzaindiaren 141. arauan ezartzen denez (*Herri izenak: hurrenkera eta zeinu grafikoen erabilera*), leku biren elkarketaz sorturiko toponimo konplexuak marratxo batez idatziko dira: «Bi herrik edo gehiagok administrazio elkarte bat osatzen dutenean, bi izenak beti marratxo (-) baten bidez bereiziko dira, izendegi, zerrenda, seinale eta abarretan: *Arratzua-Ubarrundia* (A), *Beintza-Labaien* (NG), *Ezkio-Itsaso* (G), *Gamiz-Fika* (B), *Labetze-Bizkai* (NB), *Maule-Lextarre* (Z)...

Estrada / Fandangone (708-710. or.): Lema bakar bezala *Estrada* utziko genuke eta bigarren mailako alonimo modernoago legez, bestea. Azken hau, hala ere, paragogerik gabe idatzi behar da, *Fandangoena (-a)*, dokumentazioak ongi erakusten digun bezala.

Etxezarre (711. or.): *Etxezarra (-a)* idatzi behar da izen hau, paragogerik gabe eta mugatzaileaz, haren galeraren frogarik ez baitugu.

Ezkiagabeko (712-713. orr.): Mugatzaileari eutsi behar zaio, idatzizko lekukotzetan duela gutxira arte iraun duelako. *Ezkiagabekoa (-a)* alegia.

Ezkiagagoiko (713-714. orr.): Id. *Ezkiagagoikoa (-a)*.

Ezkiagalarre (715. or.): *Ezkiagalarra* da aldaera jatorra, estandarizaziorik eta mugatzailerik gabea. Ahoz ere hala batu da. Generiko honen erabileraz, ikus gorago *Araneko larre* (421. or.).

Fandangoneko zubia (715. or.): Ikus gorago *Estrada / Fandangone* (708-710. orr.) izenez esandakoa. Bigarren izena *Fandangoena* denez gero, *Fandangoeneko zubia* idatzi behar da haren erreferentzial hau.

Frantzune (715-717. orr.): Guk *Frantxuena (-a)* idatziko genuke zalantzarik gabe, txistukari sabaikariaz eta paragogerik gabe. Tarteko *-tz-* ezbaizko horretaz, ikus gorago ere, *Frantzunatxeta* (256-258. orr.).

Garaldegane (719. or.): Paragoge modernorik gabeko *Garaldegan* litzateke arauzkoa. Horren gainean, ikus gorago *Aritzatxugane* (363. or.).

Goiko larre (720. or.): Mugatzailerik gabeko *Goiko larra* da tradiziozkoa eta arauzkoa, ahoz ere jaso. Generiko honen erabileraz, ikus gorago *Araneko larre* (421. or.).

Irabiene (721-722 eta 722. orr.) baserria eta parajea: Paragoge berririk gabeko *Irabien* litzateke arauzko aldaera jatorra, dokumentazioak argi erakusten duen bezala. Desitxuraketa horiek saihesteko bide egokia litzateke, ahal dela, *-e-* epentesirik gabeko deklinabide jasoa erabiltzea, hau da, *Irabien*, *Irabienen*, *Irabiengo*, *Irabiendik*, *Irabienera*...

Irabienetxikerre (722. or.): Inolako tradiziozko ez duten bi paragoge sartu dira toponimo bakarrean. Guk, duda barik, *Irabientxikerra (-a)* proposatuko genuke normalizaziorako.

Iraebagia (723. or.): Ahoz gertatzen den *-a+e- > -e-* idaztea zilegi da, hala egin ohi baita deklinabide jaso arruntean ere (*harritza > harritzetan*). *Irebagia (-a)* emango genuke guk, beraz. Lekukotzarik ezaren ondoriozko hipotetikotasunaz, hala ere ikus gorago *Otaebagia* (475. or.).

Kañua (726. or.): Lekukotza dokumental bakarra dago eta bustidurarik gabea da –eta orobat *Probostuena / Majerine* (755-756. orr.) baserriari dagokion

Canhuene lekukotza–. Etimoaz egin daitezkeen hipotesiak hipotesi, guk *Kanua* (-a) jarriko genuke.

Karabigane (726-727. orr.): Guk ondo dokumentatzen den *Karabigoiko soloa* (-a) lehenetsiko genuke. Bestea, bigarren maila batean bada ere, arauz eman nahi izanez gero, paragogerik gabe eskainiko genuke, *Karabigan*. Horrek deklinabidean lituzkeen ondorioez, ikus gorago *Aritzatzugane* (363. or.) izenean esandakoa.

Karabiko solo (727. or.): Genitiborik gabeko *Karabisolo* aldaerak ere badu oinarri dokumentala eta guk hobetsiko genuke, erabilerarako problema gutxiago ematen baitute hitz bakarrean idatzitako izenek.

Kontzeneburu (727-728. orr.): *Kontzenburu* espero zitekeen, baina *Kontzenaburu* da dokumentazioak iradokitzen digun era arauzkoa. Onartu behar da jaso den lehenbiziko lekukotza dokumentala (1869) *Conceneburu* dela, baina hala ere guk euskalkiaren sistema tradizionalari eutsiko genioke eta *Kontzenaburu* idazkera arauzkoa proposatuko genuke.

Landagoiko (728-729. orr.): Guk hori *Landagoikoa* (-a) idatziko genuke, dokumentazioarekin bat. Hala ere, badaude beste aukera batzuk: *Zubiland*, *Irabien*, *Martena* (-a), *Zelai(goiko)a* (-a)...

Larrañe (730. or.): Paragoge berri hori ez da arauzko grafian islatu behar. Ahoz *Larriñe* esaten dela kontuan izanik, ez zaigu zilegi iruditzen -ai- > -a- soluzio hori maila idatzian aintzat hartzea. Generiko arrunta denez gero, *Larraina* (-a) idazkera estandarra ere kontsidera liteke. Ikus gorago ere *Larrañe* (463. eta 506. or.).

Lauaritzeta (730. or.): -aritzeta hori ez da mendebalde honetan erraz justifikatzen, bertoko aldaera jatorra -aretxeta baita. Lekukotza dokumentalik ezak hipotesi etimologikoen planoan mugitzea baino ez dute ahalbidetzen baina, hala ere, guk *Lauaretxeta* idatziko genuke.

Leixarreta (730. or.): Guk ahoz ere jaso den *Lexarreta* era hobetsiko genuke, mendebaldeko tradizio idatziarekin bat datorrena. Ikus gorago *Leixarxueta* (466. or.).

Luberri (731. or.): Dudatu ere gabe *Lubarri* da mendebaldean aldaera arauzko bakarra. Ikus gorago ere *Luberri* (466. or.)

Mazaleriaga (731-733. orr.): XVII. mendean jasotako lekukotza dokumental pare batengatik, gu ez ginatke -aga atzizkia berreskuratzen saiaturiko eta *Mazaleria* proposatuko genuke besterik gabe, bai toponimo honetarako eta bai beraren eratorri guztietarako ere: *Mazaleriaga* > *Mazaleria* (733. or.), *Mazaleriagaburu* > *Mazaleriaburu* (734. or.), *Mazaleriagako zubia* > *Mazaleriako zubia* (734. or.).

Motortze (736. or.): Ez dago apenas daturik baina, segur aski, era zuzena *Motortza* izango litzateke, oharretan iradokitzen denaren kontra, berezko *-a* lukeena.

Nafarrolabeko (739-740. orr.): Mugatzailea dokumentatu ez ezik, ahoz ere jaso da eta bizirik ehortzi baino hobe genuke, eutsiko bagenio. Arauzko grafia, beraz, *Nafarrolabekoa (-a)* da.

Nafarrolaerdiko (740-742. orr.): Id. *Nafarrolaerdikoa (-a)*.

Nafarrologoiko (742-743. orr.): Id. *Nafarrologoikoa (-a)*.

Olatze (747. or.): Arauzko aldaera mugatzailerik eta paragogerik gabeko *Olatz* tradiziozkoa da mendebaldean.

Olazarre (747-748. orr.): Arauzko era proposatzeko, paragoge moderno hori gabeko *Olazar* hobetsiko genuke.

Ormeta (748. or.): Guk ere horrelaxe proposatuko genuke. Hala ere, ematen duen azalpena ez dugu egokia ikusten. Funtsean, *-eta* atzizkia lotzean gertatzen den hiatoaren soluzioa da arazoa. Bokalismoa azken finean, eta kasu honetan *-a+e- > -a-* da gertatutakoa. Hori ez da normalena, hala ere. Lege morfofonologiko hedatuena *-a+e- > -e-* ematen duena da. Hurrengo toponimoan, *Ortueta* (748. or.) dugu, ahoz *Ortúta* jaso beharko zena, baina *Ortúeta* jaso dena, hiatoa osorik mantenduz.

Poiuko Ugarte torrea (754-755. orr.): Adierazpide arrunta barik, oikonimoa ere ekoitz zitekeen. Usadioei jarraituz, *Ugartetorre* izan liteke irteera bat, edo *Poiugartetorre* konplexuagoa... Ausartegia ere irudi liteke.

Probostuena / Majerine (755-756. orr.): Guk lema bakarra utziko genuke, *Probostuena (-a)*. Bigarren mailako alonimoa *Majeriena (-a)* idatzi behar litzateke, nahiz dokumentazioan jasotzen den haren lekukotza bakarra *Mageria* den.

Santierrotane (756-757. orr.): Arauzko lema bezala *Tellaerrot*a hobetsiko genuke, eta bigarrenik *Marialmikena (-a)*. *Loitzaga* ere onar liteke aldaera historiko gisara. *Santierrotena (-a)*, ordea, *-honela* idatzirik, noski-azken orduko «goitizen» gisara aipatuko genuke bakarrik.

Torre (758-759. orr.): *Poiuko Ugarte* (754-755. orr.) torrean bezala, hau ere *Ugartetorre* izendatuko genuke, bereizte aldera, *Artikaugartetorre* ere izan litekeena. Bestela *Artikatorre* «pobreagoa» ere utz liteke. *Torre* hutsa lagatzea, ordea, zer egin ez dakigulako toponimoa baztertzea da. Ikus gorago egoera berean dagoen *Torre* (580-581. orr.) leku-izena ere.

Tranpa (761-762. orr.): Badirudi *Tranpena (-a)* egokiagoa litzatekeela, dokumentazioan ez ezik, ahoz ere atzizkia ibiltzen da eta.

Tranpanaurre (762. or.): Aurrekoarekin bat etorritz, *Tranpenaurre* idatzi behar genuke. Ohar gaitezen, ahoz ere *-a-+-e- > -e-* egiten dela, *Tranpe-* eman ez alegia.

Tranpaneburu (762. or.): Id. Arauzko era *Tranpen(a)buru* da, tarteko mugatzaile horrekin aukera biak posible direlarik.

Tranpanondo (762. or.): Id. Izen hori arauz *Tranpenondo* idatzi behar genuke, edo *Tranpena (-a)* hutsa, dokumentazioari kasu eginik.

Tribizkoerrota (766-767. orr.): Bai dokumentazioan eta bai ahoz jasotzen den genitiborik gabeko aldaera hobetsiko genuke guk, *Tribizerrot*a alegia, erabilerarako buruhauste gutxiago ematen ditu eta.

Tribizkoerrotako zubia (767. or.): Aurrekoarekin bat, *Tribizerrotako zubia* emango genuke edo, bestela, *Tribizko zubia*, besterik gabe.

Tribizko kantara (767. or.): Generiko hori, *kantera* idatzi behar da. Ikus gorago *Galdizko kantarak* (443. or.) izenerako esandakoa.

Txominantone / Poiuerrota (768-769. orr.): *Poiuerrot*a izenari emango genioke lehentasuna lema bezala. *Ugarterrot*a ere onar liteke alonimo legez. Ahoz gehien ibiltzen denaren arauzko era *Txominanton* edo *Txominantona (-a)* izango litzateke, paragogerik –eta agian haplogiarik– gabe.

Utzueneko zubia (772. or.): *Otxoeneko zubia (-a)* ere kontsidera liteke. Ikus gorago *Almikerrot*a / *Utzuene* (675-677. orr.) eta han egindakoaren araberak jakatu.

8. DEMIKU AUZOA

Aldatze (788. or.): Arauzko grafia *Aldatza (-a)* emango genuke guk. Ikus gorago ere *Aldatze* (589. or.).

Ameta (789. or.): *Ametalubarri* aldaera dokumental «osoagoa» proposatuko genuke normalizaziorako, ahoz laburrago esatea zilegi bada ere.

Areaga (789-790. orr.): Proposatzen den lehenaren grafia zuzena den arren, zalantza daukagu dokumentazioan jaso den *Arego-* horrekin. *Arego* Bizkaiko kostaldean aurki daitekeen deitura da eta ez da *Areaga* eraren desitxuratzeko bat.

Aritzitxu (790. or.): Dokumentazioan beti *-i-* jaso den arren, guk *Arestitxu* emango genuke arauzko bezala. Ikus gorago *Aretzi* (422-423. orr.).

Arruane (791. or.): *Arruena (-a)* espero zitekeen. Hala ere, bitxia iruditzen zaigu maiz *-e* paragogikoa jaso izana eta, batez ere, *Arruane* izatea lehenbiziko lekukotza dokumentala (1870). *Arrua(n)barrena* «osoagoa» ere aukera interesgarria da.

- Atxikagane** (792. or.): *Atxikagan* edo *Atxikalanda* proposatuko genuke guk. Aurrekoaren deklinabideaz, ikus gorago *Aritzatzugane* (363. or.).
- Beiti** (792. or.): Dokumentazioan oraintsura arte (-1934) hala jaso delako, mugatzaileari eutsiko genioke eta *Beitia* (-a) emango.
- Biribille** (793. or.): Guk paragogerik gabe eta -a amaierarekin emango genuke, *Biribilla* (-a). Ikus hurrengoaren dokumentazioko *Biribillape* ugariak.
- Biribilpe** (793-794. orr.): Oso dokumentatua dago -a- eta guzti eta, beraz, arauzko era bezala *Biribillape* proposatzea litzateke zuhurrena, irregular samarra bada ere.
- Elezbide** (794. or.): Baliteke honela izatea, baina dugun lekukotza bakarrak *Lezbide* da eta, beste oinarririk gabe, gu ez ginateke ausartuko.
- Elizalde** (794. or.): *Eleizalde* oinarri izanik, mendealdeko era jatorra *Elex-* da eta guk horixe hobetsiko genuke, nahiz lekukotza guztiak kontrakoa dioten -hori bai, denak 1901-1945-. Ikus honen gainean gorago *Elizalde* (597. or.).
- Elizoste** (794-795. orr.): Honen lekukotzek hitz honen aldaera bizkaitar jatorraren berri sakabanatuak ematen dituzte. Guk tradizio horri eutsirik, *Elexoste* hobetsiko genuke.
- Fradu** (798-799. orr.): Lekukotzek argi erakusten dute mugatzailearen galera berrikeria dela. Beraz, *Fradua* (-a) da arauzko idazkera jasoa.
- Josene** (801. or.): Toponimo gardena da eta tradizioari segiturik, *Josena* (-a) da bere arauzko idazkera.
- Kandelarioko ermita** (801-802. orr.): *Garbikundeko Andra Maria* aipatzen den bezalaxe, adbokazio historiko normalizatuaren berri ematea ez legoke sobran, *Done Justi eta San Pastor* alegia⁴⁰.
- Karrakane** (803. or.): *Karrak(a)ena* (-a) hobetsiko genuke guk, tarteko -a- horrekin zer egin behar den argi ez badugu ere.
- Kerizeta** (803. or.): *Kerexeta* litzateke mendealdeko aldaera tradizionala. Ikus gorago *Kerizeta* (461. or.).
- Mallutze** (804. or.): Ditugun datu guztiak moderno samarrak dira eta -e amaiera hori daramate. Hala ere, guk *Mallutza* emango genuke arauzko gisa.
- Masuane** (805. or.): Paragogea lehenbizikoz 1870ean dokumentatzen den arren, -a amaiera jatorra 1952ra arte heltzen da. Edonola ere, guk *Masue-na* (-a) tradiziozkoaren alde egingo genuke.
- Montesillo** (806. or.): Ahoz hala jaso den arren, dokumentazioak (1901-1944) *Montesino(s)* erakusten du salbuespenik ere gabe. Hortaz, guk *Montesino* jarriko genuke, gehiegi gustatzen ez zaigun arren.

⁴⁰ *San, santu, done eta besteren erabilera*, Euskaltzaindiaren 125. araua.

- Perretxiñe** (807. or.): Dokumentazioan hainbestetan ageri den paragogerik gabeko aldaera tradizionala proposatuko genuke guk normalizaziorako, hau da, *Perretxin*. Deklinabide jasorako, hala ere, ondorio bortitzak ditu. Ikus honen gainean gorago *Aritzatxugane* (363. or.).
- Portu** (808. or.): Bere horretan pobre samarra deritzogu eta, agian, *Demikuportu* edo antzeko izen «aberatsagoa» atontzeko ausardia har liteke.
- Sakone** (809. or.): Dudarik gabe, ahoz ere jaso den *Sakona* (-a) emango genuke.
- Tontorre** (809. or.): Dokumentazioak argi erakusten du zein den tradizioa, *Tontorra* (-a) alegia.
- Txikitiñene** (809. or.): Hobetsi den izena *Txikitiñena* (-a) idatzi behar litzateke. Hala ere, *Miraflores* izena ager liteke lema bezala, bestea bigarren mailako herri-deizio legez eskainiz.
- Txomekane** (810. or.): Paragogearen lehen lekukotza 1823koa den arren, -ena amaieraren azkenekoa 1952koa dugu eta era erregularra hobetsiko genuke dudatu ere gabe, hau da, *Txomekena* (-a).
- Uriartebeko / Anamariane** (810-812. orr.): Mugatzailea arbitrarioki kendu zaio, dokumentazioak eta ahozko bilketak salbuespenik gabe eusten baitiote. Hortaz, arauzko izena *Uriartebekoa* (-a) da. Bigarren aldaera oharretara pasatuko genuke goitizena delako. Hala ere, *Anamariena* (-a) idatzi behar da, noski, paragogerik gabe eta modu tradizionalan.
- Uriartegoiko** (812-813. orr.): *Uriartebeko* (810-812) izenari buruz esan duguna kontuan izanik, hemen ere *Uriartegoikoa* (-a) eman behar da arauzko izen gisa, nahiz *Uriarte* huts laburtua ere ibiltzen den.
- Zabala** (813. or.): *Zabala* izeneko beste baserri batzuetatik bereiztu behar zenean, era osoa aipatuko zen segur aski, usadioari jarraituz, *Demikuza-bala* (-a) izango zena. Guk horixe proposatuko genuke, ahozko aldaera laburturako aukera oharretan aipatuta.

9. ARRANOTEGI AUZOA

- Arezti** (828. or.): Guk *Aresti* idatziko genuke, noski. Ikus gorago *Arezti* (422-423).
- Aritzitxu** (828-829 eta 829. orr.): Id. Dokumentazioan ageri den *Arestitxu* tradiziozkoa idatziko genuke.
- Arranotegi / Txinbelane** (829-830. orr.): Leman izen bakarra agertzea komeni da. Bigarren aukeraren arauzko grafia mendealdeko tradizio idatziari eutsiz eskaini behar da, hots, *Txinbelena* (-a).

Arranotegiburu (830. or.): Kasu honetan ez dugu mugatzailea edekitzeko arrazoirik ikusten eta *Arranotegiburua* (-a) proposatu behar da normalizaziorako.

Arrilabane (831. or.): XIX. mendean paragoea ondo dokumentaturik dagoen arren, guk *Arrilaban* hobetsiko genuke.

Bistalegre (832-833. orr.): *Vistalegre* idazkera litzateke propioa, euskaraz ere ibiltzen dela argi badago ere.

Erramontxune (833-834. orr.): Guk lehentasuna *Bustargillea* (-a) izenari emango genioke, eta ez oharretan ematen den *Bustargilia* aldaerari. Bigarren aukera gisa *Lokedobekoa* (-a) emango genuke. Egileek hautaturiko aldaera, guk goitizen gisara utziko genuke eta *Erramontxuena* (-a) idatziko. Ikus beherago *Lokedo* (839-840. orr.).

Erramontxuneko atxa (834. or.): Aurreko izenarekin markatu den bideari jarraituz, *Erramontxuneko atxa* (-a) idatziko genuke, noski.

Estratzailune (835-836 eta 836. orr.): Paragoe berri hori gabeko aldaera da normalizatu behar dena maila jasoan. Guk *Estratzailun* emango genuke. Honek deklinabide jasoan izango lituzkeen ondorioez, ikus gorago *Aritzatxugane* (363. or.).

Frantzuneko atxa (837. or.): Guk *Frantxuen*- hasiera hobetsiko genuke. Ikus gorago *Frantzunatxeta* (256-258. orr.).

Frantzuneburu (837. or.): Aurrekoari segiturik, *Frantxuen(a)buru* idatziko genuke. Ikus gorago *Frantzunatxeta* (256-258. orr.).

Kantaratxu (838. or.): Bokal asimilaziorik gabeko *Kanteratxu* era normala hobetsiko genuke, noski. XX. mendeko lekukotza guztiak, hala ere, harmonizaturik daude. Honen gainean, ikus gorago *Galdizko kantarak* (443. or.).

Laubidietazpi (839. or.): Guk *Laubidietaxpe* emango genuke. Oso ohikoa da *axpe* eta *azpi* osagaien nahastea edo interferentzia, segur aski sinonimian ere oinarri duena eta, beraz, «herri-etimo» bezala kontsidera genezakeena. Berezia da *-bide-eta-* elkarketan *-ee-* taldeak ematen duen *-ie-* disimilatua. Ohikoan ez da arauzko idazkerara eramaten, baina kasu honetan idatzizko tradizio handia dauka (*Laubidieta* 1021-1022. orr.) eta ontzat eman liteke.

Lokedo (839-840. orr.): Guk *Lokedogoikoa* (-a) era osatuagoa emango genuke, gorago aipatu dugun *Lokedobekoa* (-a) izenarekin bikote egiten duena. Ikus *Erramontxune* (833-834. orr.).

Longane (840-841. orr.): Dokumentazioan oso argi eta ugari ikusten da zein den tradizio idatzia eta guk horixe proposatuko genuke normalizaziorako, *Longena* (-a) alegia.

Sagargane (845. or.): Guk paragoge berritzaile hori gabeko *Sagargan* emango genuke, noski. Deklinabide jasoan mugatzailerik ezak dakartzan ondorioez, ikus gorago *Aritzatxugane* (363. or.).

Txinbelaneko bizkarra (846-847. orr.): Ahozko lekukotzan ondo ikusten da zein den sakonean dagoen deklinabide sistema. Guk, noski, *Txinbelaneko bizkarra* (-a) erregularra idatziko genuke hau. Ikus gorago *Arranotegi* / *Txinbelane* izenean esandakoa (829-830. orr.).

10. MAÑU AUZOA

Mañu (850-857. orr.): Euskaltzaindiak⁴¹ aspaldian gomendatu duen *Mañua* (-a) mugatzaile duna proposatuko genuke guk ere arauzko grafia moduan.

Andiriminieta (860-861. orr.): Lema bezala aukeratu denak egia izateko aukerak balitu ere, ez da batere zuhurra hipotesi mailan mugituz, inolako oinarri dokumentalik gabe, normalizazio bat bultzatzen saiatzea. Posibleena, ordea, jatorrizkoa *Andraermita* izatea da, Bizkaiko toki askotan legeztxe, *Andraerminta* herri-aldaera izango zuena (bustiduraz -*ermin-txa*). Dokumentatuen, hala ere, *Andramarieta* da eta guk horixe emango genuke arauzko proposamen legez.

Ariztitxu (862. or.): Dokumentazioan oinarri nahikorik duen *Arestitxu* idatziko genuke guk, mendebaldeko tradizioarekin bat. Ikus gorago *Arezti* (422-423. orr.).

Arrilabane (862-863. orr.): Toponimo modernoa da eta paragogerik gabeko *Arrilabana* (-a) emango genuke guk dudarik ere gabe.

Balentiñene (867-868. orr.): *Balentiñena* idatziko genuke guk, noski. Bigarren aukera gisa, *Mañubeko(etxe)a* (-a) ere aipatuko genuke guk, baina Mañuan badaude beste *Bekoetxe* batzuk eta nahasgarria izan daiteke.

Beko arizti (869. or.): Ez dago dokumentaziorik, baina *Beko aresti* idatziko genuke guk mendebaldeko usadioan bezala. Ikus horretaz gorago *Arezti* (422-423. orr.).

Bentazarpe (871. or.): Lekukotzarik jaso ez bada ere, -a mugatzailea arrazoirik gabe kendu zaio. Guk *Bentazarpea* (-a) proposatuko genuke normalizaziorako.

Bentazarre (871-872. orr.): Paragoge berri hori ez genuke inola ere arauzko grafian onartuko. *Bentazar*, beraz.

⁴¹ Onomastika batzordea: *Euskal Autonomia Erkidegoko biztanle-entitateak*, EUDEL, Bilbo, 2001.

Biorgorta (872-873 eta 873. orr.) eta **Biorgortaburu** (874): Proposatzen den bilakaera oso posible da eta hipotesia ondo formulatuta dago –hipotesia dela esan gabe, ordea–. Orain bakarrik datuak falta dira, hots, dokumentazioan *Beor*- hori jasotzea. Hala balitz, toponimo hori *Beorgorta* idatzi behar litzateke, baina besterik ezean, guk *Biorreta* eta *Biorretaburu* seguragoak hobetsiko genituzke.

Bistalegre (874. or.): *Vistalegre* izango litzateke arauzko idazkera logikoena. Ikus gorago ere *Vistalegre* (832-833. orr.).

Elizalde eta **Elizondo** (874. or.): Guk Bizkaiko *Elex*- hasiera jatorra hobetsiko genuke kasu bietan. Ikus gorago *Elizbide* (534. or.).

Erdikoetxe (875-876. orr.): Oharretan aipatzen den bigarren aukera onargarria da, baina *Pototxuena* (-a) idatzi behar litzateke.

Etxebarri (880. or.): Dokumentazioan hura gabe ere jaso den arren, guk mugatzaileari eutsiko genioke dudarik ere gabe, *Etxebarria* (-a).

Gortaederrebeko (882-883. orr.): Tarteko -eder osagaiari ihartutako -e epentetiko ez genuke inola ere onartuko, dokumentazioak erakusten duenez, berrieria delako. Kontrara, ahoz ere jaso den mugatzaileari eutsiko genioke eta arauzko aldaera *Gortaederbekoa* (-a) litzateke, beraz. Nahi balitz, *Gortaederrabekoa* (-a) ere onar liteke, egoera horretan mugatzaileek irautea fenomeno errekkurrentea da eta. Ikus beherago ere *Gortaederregoiko* (883-884. orr.) eta hautu biak batera egin.

Gortaederrerdiko (883. or.): Hemen epentesi konturik ez badugu ere, mugatzailearekin berdind jakatu behar litzateke, hots, *Gortaederrerdiko* (-a).

Gortaederregoiko (883-884. orr.): Id. Guk *Gortaedergoikoa* (-a) hobetsiko genuke, baina *Gortaederragoikoa* (-a) ere onargarria litzateke. Ikus *Gortaederrebeko* (882-883. orr.) eta hautu biak batera hartzea komeni da.

Gortaederre (884-885 eta 885-887. orr.): Guk *Gortaederra* (-a) aldaera mugatzaileduna hobetsiko genuke. Edozein kasutan ere, paragogeia moderno samarra da eta ez da arauzko grafian isla eduki behar.

Hipolitone (887-888. orr.): Baserriaren arauzko izena *Bidekoetxea* (-a) edo antzeko zer baita (*Bidetxe*, *Bidekoa* (-a)...). Lema bezala jarri den herriedeizioa goitizena da eta, idaztekotan, *Hipolitoena* (-a) idatzi behar da Bizkaiko usadio oikonimikoak errespetaturik.

Iraebagieta (888. or.): Guk ez dugu -ae- hiatoa gordetzeko motiborik ikusten, -ae- > -e- soluzioa euskara estandarrean ere eman ohi delako. *Irebagieta* idatziko genuke, beraz.

Iturralde (889. or.): Mugatzaileari eutsiko genioke, XX. mendera arte heldu delako bizirik. Beraz, *Iturraldea* (-a) emango genuke arauzko gisa.

- Iturizarre** (892. or.): Toponimo horren datu dokumentalik ez badago ere, guk *Iturizarra* (-a) proposatuko genuke, era jator osoa ahoz behin jaso da eta.
- Joseandiane** (894. or.): Izen hori *Joseandiena* (-a) idatzi behar da, paragogerik gabe eta tradizio oikonimikoari eutsirik. *Mendizabal* ere ontzat hartzeko moduko izena da.
- Kanone** (895-896. orr.): Izen hori ere paragogerik gabe idatzi behar litzateke, *Kanon* edo *Cannon* alegia. Hala ere, toponimo hau Bermeoko kultur ondarearen inbentario batean agertzea bitxia egiten zaigu...
- Karabigane** (896. or.): Paragogerik gabeko *Karabigan* da arauzkoa. Deklinabide jasoan honek dituen ondorioez ohartzeko, ikus gorago *Aritzatxugane* (363. or.).
- Katalane** (898. or.): Paragogerik gabeko *Katalan* litzateke arauzkoa edo, nahi balitz, *Batxikatalan* «osoagoa» hobets liteke. *Erdikoetxe* eta *Iturribide* deizioen grafia egokia aipatzea ere ez legoke sobran.
- Kateazarre** (899-901. orr.): Paragogea ez da arauzko grafiara eraman behar eta *Kateazar* idatziko genuke, noski. Mugatzailerik gabe proposatzean, kontuan izan deklinabide jasoan, ahal dela, epentesirik gabe egitea gomendatzen dela: *Kateazar*, *Kateazarren*, *Kateazarko*, *Kateazartik*, *Kateazarrera*...
- Kolisone** (901-902. orr.): Guretzat argi dago babestu behar den baserriaren izena *Pepemozoena* (a) dela. *Kolisone* horren azalpena falta da oharretan. Haren txistukari bustiaren bazterketa ere ez dugu ulertzen. Etxearen goitizen mailako bezala, hala ere, *Kolixoena* (-a) eman liteke, paragogerik gabe.
- Komaistene** (902. or.): Goitizen hori –bigarren maila batean eta ez leman– paragoge gabeko *Komaistena* (-a) emango genuke guk arauzko grafian. Hala ere, etxearen izena babestu behar dugu maila jasoan eta hau *Mañuzarra-goikoa* (-a) da, gure ustez. Hauxe agertu behar litzateke lema bezala.
- Kristobalene** (902-903. or.): Dударик gabe, *Kristobalena* (-a) da toponimo horren arauzko idazkera.
- Landane** (903. or.): Guk *Landa* hutsa edo *Landena* (-a) idatziko genuke, ohiko -ena > -ene paragoge desitxuratzaila islatu gabe. Hemen egiten den aukeraren arabera jokatu behar da hurrengo bietan ere.
- Landanebeko** (903-905. orr.): Bistan da *Landabekoa* (-a) edo *Landenabekoa* (-a) idatzi behar dela leku-izen hau maila jasoan, beti ere, aurrekoari eman zaion soluzioari jarraituz. Ikus, beraz, *Landane* (903. or.).
- Landanegoiko** (905. or.): Arauzko idazkera *Landagoikoa* (-a) edo *Landanagoikoa* (-a) izan liteke. Aurrekoetan egindako aukeraren arabera. Ikus, beraz, *Landane* (903. or.).

Larre (906. or.): Ikertzaileek euskara estandarrean jarri nahi izan badute ere, bermeotarrek *Larra* dialektal jatorrari eusten diote. Guk ere, Bizkaiko aldaera jator hori hobetsiko genuke, noski. Ikus gorago *Araneko larre* (421. or.).

Lauziriko aresti (906. or.): Generiko horren idazkera jator jaso mendebaldean *aresti* da eta horrela eman behar da toponimo hau, dokumentazioarekin bat. Ikus gorago *Aresti* (422-423. orr.).

Leixarreta (906. or.): Guk *Lexarreta* nahiago genuke. Ikus gorago *Leixar-txueta* (466. or.) eta are gorago *Kerizeta* (461. or.).

Manutxuibarrene (907-909. orr.): Guk paragogerik gabe idatziko genuke euskaraz, hots, *Manutxuibarrena* (-a).

Mañugoiko (909-910. orr.): Baserri multzoa den aldetik eta ahoz ere hala jaso delako, mugatzailea ez genuke desagertutzat emango. Mugatzaile hori singularra nahiz plurala izan liteke, hau da, *Mañugoikoa* (-a) edo *Mañugoikoak* (-ak).

Mañugoikoatzeko (910. or.): Mugatzailea bizirik dago eta eutsi behar zaio. Arauzko grafia, beraz, *Mañugoikoatzekoa* (-a) da. Agian dokumentazioan gaztelaniaz jaso denaren euskal ordaina ere eskain liteke izen historiko gisara: *Mañunagusia* (-a).

Mañugoikoaurreko (911. or.): Mugatzaileari eutsi behar zaio, dokumentazioan eta erabileran egiten den bezala. Hortaz, *Mañugoikoaurrekoa* (-a) idatzi behar da.

Mastizarre (912. or.): Guk *Mastizarbarrena* (-a) aldaera osoagoa hobetsiko genuke. Lehen osagaiaren mugatzailea mantentzen duen *Mastizarbarrena* (-a) ere onargarria litzateke.

Mungiarrenebeko (916-917. orr.): *Mungiarrenabekoa* (-a) edo *Mungiarrena* (-a) hutsa emango genuke arauzko izen jaso gisa, paragogerik gabe baina mugatzaile eta guzti. Bigarren mailako deizio bezala *Laubidietabekoa* (-a) ere aipatu behar litzatekeela uste dugu.

Mungiarrenegoiko (917. or.): Aurrekoa ez bezala, badirudi kokatzailea beharrezkoa duela, mugatzaileaz lagundua beti ere, hots, *Mungiarrenegoikoa* (-a). *Laubidietagoikoa* (-a) ere aipa liteke aukera bezala.

Oiangorta (919. or.): *Abaroarrizurieta* izena ere ontzat eman liteke, aukera historiko bezala bada ere.

Sangresilla (928. or.): Dokumentatzen den bakarra *Sangrasilla* da eta guk horrela emango genuke, nahiz eta asimilazio arrunta izan litekeen (-a-e- > -a-a-). Kontrako bokalismoak ere (-a-i- > -e-i-) baluke azalpena, ondoko -i- bokalaren balizko eraginagatik.

Zabale (932. or.): Dударик ere gabe eta dokumentazioak argi erakusten duen bezala, *Zabala* (-a) da arauzko era. Dokumentazioan jaso den *Zabalabaso(a)(k)* (-a edo -ak) generikoduna ere egokia litzateke.

Zabalene (932-933. orr.): Dauden datuak ikusirik, guk *Mintegizabala* (-a) «osoa-go» emango genuke, erabileran laburtzeko aukera beti egongo da eta.

Zabaletxubaso (933. or.): Lehen osagaiaren -e paragogiko hori –epentesi bihurturik– ez da beti agertzen ahozko lekukotzetan, oraindik aldaera jatorra darabilen bermeotarrik badago eta. Beraz, *Zabaltxubaso* idatzi behar da toponimoa.

11. SAN PELAIO GIBELORTZAGAKOA AUZOA

San Pelaio Gibelortzagakoa (938-941. orr.): *Gibelortzaga* toponimoa birsortzeko ahaleginak ontzat ematen ditugu. Hala ere, izen luze hori egokiagoa iruditzen zaigu ermita ezaguna izendatzeko, auzunearen izentzat *Gibelortzaga* toponimo hutsa lagaz. Era honetako izenak birsortu nahi direnean, aldi baterako parentesia erabili ohi da, ezagunagoa den izena –ordezkatu nahi dena– agertzeko, erabiltzaileak ohituratzen diren artean. Hagionimoekin maiz gertatzen dira ordezkatzeko hauek eta atzera toponimo zaharrek errekuaratzea ontzat eman ohi da, santu izenak tenpluetarako utziz beti ere. *Gibelortzaga* (*San Pelaio*) emango genuke, alegia⁴².

Arezi (945. or.): Guk *Arestiena* (-a) edo *Arestiko soloa* (-a) emango genuke arauzko idazkera bezala, beti ere, -s-rekin. Ikus gorago *Arezi* (422-423. orr.).

Bistalegre (946. or.): Agian zuzenago –eta propioago– litzateke *Vistalegre* idaztea. Ikus gorago *Bistalegre* (832-833. orr.).

Donprimone (946-947. orr.): Bizkaiko usadioari jarraiki, guk dударик gabe *Donprimoen(a)* (-a) emango genuke arauzko grafia legez.

Ermu (947-948 eta 948-949. orr.): Dokumentazioa ikusirik, mugatzaileari atxikitzen saiatu behar dela dirudi, *Ermua* (-a) alegia.

Ermubeko (949. or.): Mugatzailearik eza azken orduko galera dela erakusten du dokumentazioak eta atxiki behar zaio, *Ermubekoa* (-a) arauzko idazkera normalizatzen saiatuz.

Ermugoiko (949-950. orr.): Id. *Ermugoikoa* (-a).

⁴²Euskaltzaindiak, hala ere, datu hauen berri izan baino lehen, *Doneperai* izena proposatu du auzo honen arauzko izen bezala, *San Pelaio* ere onargarria izanik. Onomastika batzordea: *Euskal Autonomia Erkidegoko biztanle-entitateak*, EUDEL, Bilbo, 2001.

Kontuan izan bedi, bestalde, *San*, *Santu*, *Done* eta *besteren* erabilera titulua daraman Euskaltzaindiaren 125. arauan, *Done Pelaio* era jasoa hobesten dela adibokazio honetarako.

Gaztelugatxe (950-953. orr.): Dokumentazioaren bilketa oparoak erakusten digunez, izen horretako paragoea moderno samarra da eta idatzizko mailan, hura gabeko aldaera gure egunetara arte heldu da. Dударik ere gabe, *Gaztelugatx* emango genuke arauzko era gisa.

San Juan Gaztelugatxekoa (950-953 eta 953-954. orr.): Ez genuke proposa-
mena aldatuko, baina kontuan izan behar da Euskaltzaindiak adbokazio
horren aldaera jaso bezala *Done Joane* eman duela⁴³ eta nonbait aipatu
behar litzatekeela, bide egiten joan dadin.

Gisastipe (955. orr.): Guk *-barrena* posposizioa hobetsiko genuke, tradizio
luzeagoa izateaz gainera, hain gardena –eta aldakorra– ez delako.
Proposatzen den *-pe* horrek ez du oinarririk bat ere, dokumentazioan *-ve*
delako ageri dena (euskaraz *-be* idatzi beharrekoa). Nolanahi ere, guk
Gisastibarrena (*-a*) hobetsiko genuke.

Goientzabale (955-956 eta 956-957. orr.): Paragoge berri hori gabeko izen
garbia da arauzkoa, *Goientzabal* alegia. Mugatzailea galdutzat emango
genuke, alegia. Erabaki honek deklinabidean dituen ondorioez, ikus go-
rago *Aritatzugane* (363. or.).

Goientzabaleburu (957. or.): Tarteko *-e* hori babes lezaketen lekukotzak
daudela ere, guk *Goientzabalburu* proposatuko genuke arauzko grafia
legez.

Irabiaga (958-959. orr.): *Irabien* eta *Ibadiaga* lekukotzak formalki erlaziona-
tzen dituen bilakaera hori ez zaigu sinesgarria egiten. Elkarretatik eratorri
ez baina elkarren interferentzia izateak errazago azalduko luke gertatu-
rikoa. Etimo ilunekoa izanik ere, guk *Ibadiaga* emango genuke arauzko
lema bezala, ahoz *Ibijaga* ematen duena. *Irabien* aldaera historiko gisa
aipatuko genuke bigarren maila batean.

Iratzgorri (959. or.): Ohar linguistikoetako hipotesia oso egokia da, baina
hipotesia azken finean. Bera frogatzen duen daturik ageri ez den bitartean,
Itzgorri utzi behar da.

Kukutze (959-960. or.): Itxuraldatu gabeko *Kukutza* darabilen bermeotarrik
badago oraindik eta halaxe idatzi behar da errepikatutako toponimo hau.
Kasu honetan paragogerik ez baina *-u-a* > *-u-e* bokalismo arrunta dagoela
pentsa daiteke, amaierako bokala ez baita mugatzailea, berezkoa baizik.

Luisen arezti (960. or.): Generiko horren aldaera tradizionala mendealdean
aresti da. Ikus gorago *Arezti* (422-423. orr.). Gainera, mugatzaileari eutsi
behar zaio dokumentazio modernoan ez ezik, ahoz ere jaso da eta. *Luisen*
arestia (*-a*) da, beraz, arauzko forma.

⁴³ *San, santu, done eta besteren erabilera* izenburua daraman Euskaltzaindiaren 125.
araua.

Motze (961. or.): Paragoge hori ez genuke onartuko, nahiz eta lehenbiziko lekukotzan (1895) *-e* ageri. Guk *Mo(to)tza* emango genuke arauzkotzat, amaierako *-a* hori mugatzailea den ala ez ez dakigula.

Pozuillune (963-964. orr.): Lehen osagaiaren mendealdeko aldaera jatorra, Bizkaiko toponimian oso ugaria, *Pozo* da. Dokumentazioan jasotakoa, beraz, ez da gaztelaniagatiko «kultismoari» bakarrik egotzi behar, euskaraz ere hala ibiltzen baita, ahozko lekukotzek ahobatez frogatu duten legez. Ikus gorago *Pozubaltze* (618. or.). Paragogerik gabe *Pozoilluna* (*-a*) idatziko genuke guk, noski.

Pozusikatu (965. or.): Id. Arauzko grafia, beraz, *Pozosikatu* da.

San Pelaio (965. or.): Ermitaren *Done Pelaio* adbokazio jaso⁴⁴ nonbait aipatzea ez legoke gaizki, lema bere hartan utziko bagenu ere.

Sanjuanalde (966-967. orr.): Guk *Erkoreka* izena hartuko genuke etxerako, *Sanjuanalde* parajea badago eta izen hori ez delako galduko.

Sanjuanoñetze (967. or.): Bistan da bigarren osagaiak pairatu dituen bokalis-
moak eta paragogeak ez dutela lekurik arauzko grafia jasoan. *Sanjuanoña-
tza* (*-a*) litzateke, beraz, lema zuzena.

Txarale (968-969 eta 969-970. orr.): Hartatik sortu diren zenbait eratorri ikusita (*Txaralondo*, *Txaralpe*...), bistan da *Txaral* dela sakonean dagoen hitza eta *-e* hori paragoea. Hala ere, 1816an dokumentatzen da lehenengoz eta ia ahobatez jaso da idatzizko lekukotzetan. Guk *Txaral* hobetsiko genukeen arren, ulertuko genuke *Txarale* uztea.

Urotze (974. or.): Etimoari buruzko hipotesia ondo dago, baina ausartegia iruditzen zaigu arauzko grafia uste horretan oinarritzea, jasotako dokumentazioa kontra dagoelako. Guk honi kasu egin eta *Urutza* idatziko genuke. Uste dugunez, ez dauka erlazio geografikorik San Andresen dagoen *Urotze* (1041. or.) izeneko errekarerekin.

Zezilioneke errekartea (974. or.): Ikus gorago *Txaoletabeko* (515. or.) izeneko lekuan eskaintzen den *Zezilioena* (*-a*) alonimoa. Ondorioz, bokal guztiak dituen *Zezilioeneko errekartea* idatzi behar da.

12. KOSTALDEA

Akatxe (978-979. orr.): Guk dudatu ere gabe *Aketx* idatziko genuke. Hipotesia bezala, etimoa eta bilakaera azaltzeko saioa egitea zilegi da: «Bigarren osagaia '(h)atx' denez, kontsonantez amaitutakoa, bokal paragogikoa hartzen du, baina kaletarren artean, amaierako bokal hau gabeko aldaera ere

⁴⁴ *San, santu, done eta besteren erabilera* izenburua daraman Euskaltzaindiaren 125. araua.

ezagun-ezaguna da». Datuek erakusten dutena ez da, ordea, bokal paragoge bat, lehenbiziko lekukotzetan badagoen amaierako *-e* baten galera baizik. Galera XIX. mendearen amaieran gertatu zela ere zehaztu liteke. Gainera *Aketxe* izena errepikatua ageri da Bizkaiko toponimia nagusian ere (Leioako auzunea) eta ez da *-e* gabe dokumentatzen. Bestalde, *A-e-* > *A-a-* asimilazioa ez da idatzi behar, jatorri etimologikoa balu ere (1634ko *Aqueache*). Ikus ere gorago *Salbatxe* (277-278. orr.).

Akaxpe (979. or.): Aurrekoari segituz, guk *Akexpe* idatziko genuke, noski.

Aritzatxu (979-980. orr.): Dударik gabe, *Areatzatxu* idatziko genuke, *-ea-* > *-ia-* eta *-ia-* > *-i-* bokalismoak ez direlako inoiz ere idazten. *Areachachu* era gardena 1958an ere dokumentatzen da.

Atatalle (981. or.): Lekukotza bakarra badago ere, guk *Atatalla (-a)* idatziko genuke.

Erleko punta (983. or.): Guk genitiborik gabeko aldaera hobetsiko genuke, ahoz eta idatziz jaso dena, hots, *Erlepunta*.

Farolpe (984. or.): Dokumentaziorik ez dagoen arren, ahoz behin jaso den mugatzaileari eutsiko genioke, *Farolpea (-a)* alegia.

Gibelpe (984-985. orr.): Mugatzaile eta guzti emango genuke, hala esan eta dokumentatzen delako, *Gibelpea (-a)* alegia.

Karatxe (985. or.): Paragoge moderno hori gabeko *Karatx* emango genuke arauzko gisa edo, nahi balitz, mugatzailedun *Karatxa (-a)*. Kasu batean eta bestean, deklinabidea oso differentea da.

Lazaretoko punta (986-987. orr.): Guk *Lazaretoko puntea (-a)* mugatzaileduna emango genuke. Halakoen deklinabide konplexuaz ikus gorago *Bañera* (248-250. orr.).

Matxitxako (987-989. orr.): Dokumentazioak frogatzen duenez, eta txistukariak ezbaian, *Matxatxako* litzateke erarik jatorrizkoena, ahoz ere, haplogia gora behera, kontserbatzen dena. Dena dela, izen «nagusia» izateak atzerarazten gaitu aldaketa proposatzetik.

Talape (992-993. orr.): *Talapea (-a)* mugatzaileduna hobets liteke.

Ugarrai (996-997. orr.): Oharretan aipatzen den bokalismoa posible bada ere, datuek erakusten duten aldaera zaharrena –eta gehien ageri dena– *-e-* duna da. Hortaz, *Ugerrai* idatziko genuke.

13. IZARO

Madalenako ermita (1001-1002. orr.): Guk *Magdalena* osorik idatziko genuke leku historiko honen izena. Azken finean, *-gd-* > *-d-* sinpleketa gaztelaniaz ere gertatzen da, baina ez da hizkuntza idatzira eramaten. Adbokazio

jasoa, hala ere, *Andra Maria Magdalena* (edo *Magdalakoa*) izango litzateke eta non edo non aipatzea ez legoke gaizki.

Arriederra (1004. or.): Bigarren aukera gisa *Potorroarriandia* (-a) emango genuke, beharago dagoen *Potorroarritxiki* (1005. or.) izenekoarekin bikote egiten duena.

Madalenape (1005. or.): Guk *Magdalenape* idatziko genuke. Ikus gorago *Madalenako ermita* (1001-1002. orr.).

Potorroarritxiki (1005. or.): Guk mugatzaileari eutsiko genioke eta *Potorroarritxikia* (-a) proposatuko, bere bikotea litzatekeen *Potorroarriandia* (-a) izenarekin egin bezala. Ikus hau gorago *Arriederra* (1004. or.) izeneko oharretan.

14. GAINAK

Arballo / Axnabarre (1009. or.): Bigarren izena *Axnabar* idatziko genuke guk, paragoge berririk gabe. Hala ere, lema nagusi bakarra utziko genuke *Arballo* izenarekin.

Astazabale (1012-1013. orr.): Guk *Astazabalaga* hobetsiko genuke, bide batez, paragogearen zabalkunderako bidea itxirik.

Astazabaleburu / Pastitxuburu (1014. or.): *Pasteitxuburu* izen bakarra eman-go genuke leman. Ikus *Pastitxu* (617. or.). Hala ere, hemen ageri diren lekukotza dokumental guztiek *Pasto*- hasiera iradokitzen digute... Beste izena bigarren mailan utziko genuke eta *Astazabalagaburu* idatziko genuke. Ikus *Astazabale* (1012-1013. orr.).

Burgo (1013-1015. orr.): Dokumentazioak argi erakusten duen bezala *Burgoa* (-a) da arauzko aldaera. Ikus gorago ere *Burgo* (409. or.).

Goikogane (1018. or.): Paragogerik ez da idatzi behar. Kasu honetan, -a-dun aldaera dokumentalak duela gutxira arte jaso dira. Gainera, Onomastika batzordearen irizpideak eskuan, *Goiko gana* (-a) bereiz idatzi behar litzateke, kriterio hori eztabaidan dagoen arren.

Kurtzezarre (1020. or.): Guk *Kurtzezar* idatziko genuke, noski, paragoge berririk gabeko forma. Bigarren aukera gisa *Gibelmendi* ere eskainiko genuke.

Masugoiko (1023. or.): *Masugoikoa* (-a) mugatzaileduna ere kontsideratuko genuke. *Otalarra* ere emango genuke bigarren aukera gisa.

Truboietagane / Kurtzemendi (1026-1027. orr.): Guk *Truboietagan* hutsa lagako genuke paragogerik nahiz ondoko kontu gehiagorik gabe (-gan > -gane > -ganea > -ganie). *Kurtzemendi*, bigarren mailako goitizen moderno da eta oharretara baztertuko genuke.

15. SARE HIDROGRAFIKOA

San Martineko erreka (1035-1036. orr.): Guk *Sanmartinerreka* hidronimoa eraiki edo, bestela, *San Martin* hutsa lagako genuke. Saihestuko genuke hagianimoari lekuzko genitiboa eranstea, problematikoa dena, bestalde. Honen gainean, gogoan izan epentesirik gabeko aukera deklinatiboa hobesten dela, *San Martineko* baino *San Martingo* nahiago dela, alegia.

Baltzaneko erreka (1037-1038. orr.): *Baltzeneko erreka* deklinatu behar da hori.

Santunatxe (1038. or.): Paragoge eta guzti jaso da beti (1895etik aurrera bakarrik, hori bai). Guk, etimoari sinesgarritasunik ematen bazaio, *Santuenatx* idatziko genuke, noski. *Santunatxe* (578-579. orr.) izenaren oharrean esaten den legez, ez da ahaztu behar *Santuenatxe* aukera ere ezkuta lezakeela.

Altziko erreka (1039. or.): Ahoz bakarrik jaso da izena eta, segur aski, *Altzegiko erreka* (edo *Altzadiko erreka*) desitxuratu baten emaitza baino ez da.

Lantzabideko erreka (1040. or.): Bigarren aukera gisara *Arestierreka* eskainiko genuke. Ikus gorago *Arezi* (422-423. orr.). Bitxia egiten zaigu oharretan bigarren aukera horren ondoan *Areztiko erreka* ere idatzita ikustea.

Urotze (1041. or.): Guk *Urotza* (-a) proposatuko genuke normalizaziorako. Ezin da geografikoki erlazionatu San Pelaio aldean dagoen *Urotze* (974. or.) izenarekin.

Frantzuerreka / Arranotegiko erreka (1045-1046. orr.): Lema bezala *Frantzuerreka* bakarrik eskainiko genuke guk. Ikus gorago *Frantzunatxeta* (256-258. orr.).

Kantaratxuko erreka (1046. or.): Arauzko grafian ez dugu -a-e-a- > -a-a-a- asimilazioa aintzat hartu behar eta *Kanteratxuko erreka* da zuzena. Ikus gorago *Galdizko kantarak* (443. or.).

Arrilabane (1046-1047. orr.): Paragogerik gabeko *Arrilaban* izango litzateke arauzko era jaso. Ikus gorago *Arrilabane* (831. or.).

Motortzeko erreka (1047. or.): *Motortzako erreka* idatziko genuke guk, noski. Ikus gorago *Motortze* (736. or.). Alonimoen artean *Bolintxuaga* bezala, *Akulategiko erreka* (-a) ere aipa liteke, beti ere lematik kanpo.

Leixarretako erreka (1048. or.): Mendebaldeko tradizioari kasu eginik, guk *Lexarretako erreka* idatziko genuke. Ikus gorago *Leixartxueta* (466. or.).

Ezkiagalarreko erreka (1049. or.): Ikus *Ezkiagalarre* (715. or.). Halakoen deklinabide jatorraren moduan, -larra osagaiak -larrako eskatzen du genitiboan. Ikus *Bañera* (248-250. orr.). Arauzko era, beraz, *Ezkiagalarreko erreka* litzateke.

Kantara (1051. or.): Asimilaziorik gabeko *Kantera* hobetsi behar da. Ikus gorago *Galdizko kantarak* (443. or.).

Iturizarre (1051-1052. orr.): Guk paragogerik gabeko era jatorra hobetsiko genuke, hots, *Iturizar*. Ikus, hala ere, gorago *Iturizarregane* (655. or.) izenean planteaturiko erreserba.

Arruane (1052-1053. orr.): *Arruena* (-a) izango litzateke egokiena. Hala ere, agian arauzko beste soluzioren bat bila liteke. Ikus gorago *Arruane* (791. or.).

Lamiaraneko erreka (1053. or.): Leku-izenen deklinabide mugagabea, ahal dela, epentesirik gabeko aukera hobetsi ohi dugu. Ikus horretaz *Aritza-txugane* (363. or.) izenerako esandakoa. Gure izen honetan, ahoz ere halaxe jaso da eta (*Lamiangué*), arrazoi handiagoz, *Lamiarango erreka* litzateke normalizaziorako arauzko proposamena.

Kukutzeko erreka (1054. or.): *Kukutzako erreka*, noski. Ikus gorago *Kukutze* (959-960. orr.).

Errekabaltze (1054-1055. orr.): Izen hau *Errekabaltz* idatziko genuke guk. Hala ere, lema bezala dokumentaturiko *Sagarraga* hobetsiko genuke. *Urbaltza* (-a) ere aipatuko genuke alonimo bezala.

Urotze (1055. or.): San Pelaioko hau izen bereko lekuarekin erlazionatu behar da. Ikus *Urotze* (974. or.). Hortaz, soluzio grafiko bera eman behar zaio, hau da, *Urutza*. Kontrara, ez da nahastu behar *Urotze* (1041. or.) izena duen antzeko bestearekin.

Biorgortako erreka (1059. or.): Arauzko era *Biorretako erreka* izango litzateke, goragoko *Biorgorta* (872-873 eta 873. orr.) eta *Biorgortaburu* (874. or.) leku-izenekin erabakiarekin bat.

Errekalabane (1059. or.): Paragoge modernorik gabeko *Errekalaban* idatzi behar da.

Landaneko erreka (1061. or.): *Landeneko erreka* deklinatu behar da. Ikus gorago *Landane* (903. or.).

BASERRIAK

Bakioko San Pelaio auzoa

Hemendik aurrerako zerrenda landugabeetan, arautze-aurrean xumeago bat ere egin daiteke, bildutako corpus dokumentalak horretarako aukera polita ematen duelako.

Amutxebarri (1065. or.): Guk *Amutxebarri* osoagoa hobetsiko genuke.

Elezpuru (1067. or.): *Elespuru* idatziko genuke dudarik ere gabe.

Jolapitzene (1068. or.): *Joanlopitzena (-a)* izango litzateke gure ustez era arauzkoa.

Gortene (1068. or.): Izen hori *Gortena (-a)* idatzi behar litzateke baina, beharbada, *Gort(a)eta* izango litzateke egokiagoa.

Olazarre (1069. or.): *Olazarra (-a)*.

Ostiene (1069. or.): *Ostiena (-a)*.

Perditzene (1069. or.): *Perditzena (-a)* edo *Perditxena (-a)*.

Sanjuanalde (1069. or.): Agian *Erkoreka* izango litzateke egokiagoa. Ikus gorago *Sanjuanalde* (966-967. orr.).

Bakioko Bentalde auzoa

Besandona (1071. or.): Oso litekena da euskarazko aldaerak bokalarteko *-n-* hotsa galdu izana. Kasu horretan *Besandoa* idatzi behar genuke, noski.

Gorrondona (1072. or.): Izen honek bokalarteko *-n-* hotsa galtzen du euskaraz eta *Gorrondoa* idatzi behar da, beraz. Gaztelaniaz ere *Gorróndos* herri-aldaera omen du, ahoz bildua baina liburuan jaso ez dena.

Larrezko barri (1072. or.): Aurreko erregistroko Larraskoaga (1072. or.) ize-narekin erlazioan egongo balitz, *Larraskoagabarri* idatzi behar litzateke.

Minitua (1073. or.): Eratorri guztiak bat eginik idatzi behar dira, hurrenez hurren, *Minituandikoa*, *Minituatzekoa*, *Minituaurrekoa*, *Minituabekoa*, *Minituaemendikoa*, *Minituanagusia* eta *Minituatxikerra*, denek mugatzailearen *(-a)* oharra daramatela.

Ojinaga (1073. or.): *Oxinaga* grafia –eta segur aski ahoskera– egokiagoa izango litzateke, gure ustez.

Ojinaga (1073. or.) bigarrena: Id. *Oginaga Garai maior* bezala dokumentatzen denez gero, *Oxinagagarainagusia (-a)* idatziko genuke guk, informazio guztia emanik.

Orube (1074. or.): Guk epentesirik gabeko *Orue* hobetsiko genuke.

Pozuaga (1074. or.): Bizkaiko aldaera jatorra, baita Bermeon ere, *Pozo* da. Ikus gorago *Pozuillune* (963-964. orr.). Hortaz, *-oa-* > *-ua-* bilakera ohiko bokalismo moduan ulertu behar da (*etxekoa* > *etxekua*) eta fenomenoen hori ez da idazten.

Uribarri beko (1075. or.): *Uribarribekoa* (-a).

Uribarri goiko (1075. or.): *Uribarrigoikoa* (-a).

Zubiaur auzoa

Andramarieta (1076. or.): Guk ere honela idatziko genuke. Hala ere, erlazioan egon liteke eta ikus gorago *Andiriminieta* (860-861. orr.).

Iñigo Zubiaur (1079. or.): Etxea da eta irizpide nagusiari jarraiturik, *Iñigozubi* idatziko genuke guk.

Jauregi (1079. or.): Dokumentazioan ageri dena segurtasunez honi badagokio eta zaharra izanik ere, guk *Zubiaurjauregi* idatziko genuke, ahoz era laburtua erabiltzea beti izango baita zilegi.

Juan de Muxika (1079. or.): *Juanmuxika* edo *Juandemuxika* idatziko genuke guk.

Kitruene (1079. or.): Guk hori *Kitroena* (-a) edo *Kitorena* (-a) idatziko genuke.

Saitu goikoa (1080. or.): *Saitugoikoa* (-a) idatzi behar da, noski. Ikus hurrengo *Saitua*- (1080-1081. orr.).

Saitua- (1080-1081. orr.): Jatorrizko izenaren -a amaiera berezkoa ala mugatzailea den erabaki behar litzateke, baina eratorri guztien dokumentazioa aldi berean ebaluatuz, aukera bakoitzaren ondorioez ondo jabetuz eta erabaki egokiak hartuta. Guk -a hori mugatzailea dela pentsatzen dugu eta horregatik eratorriak *Saitugoikoa* (-a), *Saitubeaskoa* (-a), *Saituetxebarria* (-a), *Saitumuxika*, *Saitutxikerra* (-a), *Saituena* (-a) eta *Saitutxu* idaztea proposatzen dugu.

Ugarte barri (1082. or.): Bat eginik *Ugartebarri*, noski.

Zubiaur nagusia (1082. or.): *Zubiaurnagusia* (-a).

Zubiaur (errenterikoa) (1082. or.): *Zubiaurerrenteria* idatziko genuke guk. Zenbaitetan -rr-rr- errepikapen kakofonikoari -r-rr- soluzioa eman zaio eta, orduan, *Zubiaurerrenteria* idatzi behar litzateke. Guk ontzat emango genuke bietarik edozein.

Zubiaur- (1082-1083. orr.): Genitibo markarik ez daramaten eratorriak hitz bakarrean idatzi behar dira, hots, hurrenez hurren *Zubiaurraurrekoa* (-a)⁴⁵, *Zubiaurbekoa* (-a), *Zubiaurgoikoa* (-a) eta *Zubiaurraurrekoa* (-a) / *Erederoena* (-a).

⁴⁵ Edo *Zubiaurraurrekoa* (-a), ikus gorago *Zubiaur (errenterikoa)* (1082. or.).

Zubiaurreko- (1083. or.): Oinarrian dagoen izena *Zubiaur* –eta ez *Zubiaurre*– izateak ondorio batzuk ditu deklinabide jasoan. Lehena da *-e-* epentesirik ez jasotzean, *Zubiaurko* deklinatzea dela egokiena. Hortaz, *Zubiaurko burdinola* eta *Zubiaurko errota* lirateke izenon arauzko era.

Etxeak eta Bentak

Garai (1083. or.): Dokumentazioari kasu eginik, *Garaizabala (-a)* idatziko genuke guk.

Migel Anton (1083. or.): Etxe edo benta bat den aldetik, *Migelanton* idatzi behar litzateke. Dena dela, segur aski euskaraz *Migelantonena (-a)* edo antzeko zer bait bilakatuko zen.

Arezti (1083. or.): *Arestti*. Ikus gorago *Arezti* (422-423. orr.).

Benta motza (1084. or.): *Bentamotza (-a)*, noski.

Tabernatxu (Zubiaur) (1084. or.): *Zubiaurtabernatxu* litzateke hurrenkera tradiziozkoa, baina *Zubiaurko tabernatxu* ere atondu liteke edo, nahi bada, *Tabernatxu* hutsa laga.

Zubaiur [sic] (1084. or.): Akatsa da eta *Zubaiur* irakurri behar dugu, noski.

Ermitak⁴⁶

San Esteban (1084. or.): Leku-izena bere horretan utz daitekeen arren, ad-bokazio jaso *Done Eztebe* da.

San Kristobal (1084. or.): Leku-izena bere horretan utz daitekeen arren, ad-bokazio jaso *Done Kristobal* da.

San Martin (1084. or.): Leku-izena bere horretan utz daitekeen arren, ad-bokazio jaso *Done Martie* da.

San Pelaio (1084. or.): Leku-izena bere horretan utz daitekeen arren, ad-bokazio jaso *Done Pelaio* da.

Errekak

Gaztelu-iturri (Katillu) (1085. or.): Genitibo markarik ez du eta *Gazteluiturri* idatzi behar litzateke. Zalantza dugu ez ote den *Kastilluiturri* izan behar

⁴⁶ Adbokazioetarako, *San, santu, done eta besteren erabilera*, Euskaltzaindiaren 125. araua kontsultatu da.

(> *Katillu*), kontsonante talde horiek sinpletzeko errekkurrentzia ezaguna delako antzeko testuinguru fonikoan. Cf. *Isuskitz*a > *Isukitz*e Plentzian.

Jaumartin goikoa (1085. or.): Bat eginik idatzi behar da, hots, *Jau(n)martin-goikoa* (-a).

Kontxa (1085. or.): Generiko arrunta da eta guk ez genioke toponimo estatutik emango. *Estepona* izeneko ibaia da, zerrendan ere ageri dena.

Pozuaga (1085. or.): Lehen osagaiaren Bizkaiko aldaera jatorra *Pozo-* da. Ikus gorago *Pozuillune* (963-964. orr.). Beraz, *Pozoaga* idatzi behar litzateke. Ikus gorago *Pozuaga* (1074. or.) ere.

Txatxaerreka (1085. or.): Datu bakarra ikusirik, *Txantxaerreka* idatzi behar genuke.

Iturriak

Katilu iturri (1086): Guk hau *Katilluiturri* idatziko genuke. Agian gorago aipatu den *Gaztelu-iturri* (1085. or.) delakoarekin erlazionatu behar da, han hartutako erabaki berberari jarraitzeko.

Bideak

Andramarieta (1086. or.): Guk ere honela idatziko genuke. Ikus gorago *An-diriminieta* (860-861. orr.) eta *Andramarieta* (1076. or.).

Mintegi (1086. or.): Dokumentazioan ageri den *Muntegi* hori ere posible da eta dokumentazio gehiagorik ezean, guk *Muntegi* emango genuke, noski.

Meatzak

Atzulo (1087. or.): Guk *Atxulo* idatziko genuke dudarik ere gabe, Bizkaiko usadioari kasu eginik.

Inguruak

Andramarieta (1088. or.): Guk ere honela idatziko genuke. Ikus gorago *An-diriminieta* (860-861. orr.) eta *Andramarieta* (1076 eta 1086. orr.).

Antonsolo (1088. or.): Ondo idatzita dago, baina datu bakar horrekin *Aran-tzadi* izango litzateke logikoa.

Aranbaltz barrena (1088. or.): Arazoak dakartzan arren, bat eginik idatzi behar da eta horretarako legeak oso finkoak izan ohi dira. Guk *Aranbaltz-barrena* (-a) emango genuke dudarik ere gabe.

Aretximieta (1088. or.) eta **Aretzimieta** (1088-1089. or.): Guk kasu bietan *Aretx-* hasiera emango genuke, noski. Bermeoko toponimoekin segitu den irizpidea izan da hauek guztiak *-imieta* legez arautzea. Etimoa ez ezik, datu batzuen gainean ere mantentzen zen hipotesi hura. Haren ondorioz, *Aretximieta* idatzi behar lirateke hauek biak, baina hemengo dokumentazioa urria da eta, beraz, aukera hori ausartegia.

Arezti Iluneko gorengo partia (1089. or.): *Arestilluneko gorengo parte*a (-a) idatzi behar litzateke, noski. *Aresti-* horri buruz, ikus gorago *Arezti* (422-423. orr.).

Areztia (1089. or.): Id. *Arestia* (-a).

Arizti eta **Ariztienea** (1089. or.): Id. *Aresti* eta *Arestiena* (-a).

Arkatxope (1089. or.): Segur aski Bakion badabilen *Arkotxa* toponimoaren eratorri desitxuraturua izango da eta *Arkotxape* idatziko genuke guk.

Arkotxa-erdikoa (1089. or.): *Arkotxaerdikoa* (-a).

Arriandi-ondoa (1089. or.): *Arriandiondoa* (-a).

Arrilabane (1089. or.): Paragogerik gabeko *Arrilaban* idatziko genuke, noski. Ikus gorago *Arrilabane* (831. or.).

Aume (1090. or.): Ikus *Amutxebarri* (1065. or.), zeinetan *Aume-echebarri* aldaera dokumentala baztertu den. Hala izatekotan, *Amua* (-a) izango genuke era arauzkoa.

Batekolanda (1090. or.): *Landa* bat bada, grafia arauzkoa *Bateko landa* izango litzateke, irizpide hori eztabaidan dagoen arren.

Benta-aurre (1090. or.): *Bentaurre* idatzi behar da, noski.

Bentakolanda (1090. or.): *Landa* bat bada, grafia arauzkoa *Bentako landa* izango litzateke, irizpide hori eztabaidan dagoen arren.

Elixelde (1091. or.): Bizkaiko era jator jaso *Elexalde* izango litzateke. Ikus gorago *Elizbide* (534. or.).

Elorrieta barrena (1091. or.): *Elorrietabarrena* (-a).

Elorrieta-azpi-altzadi (1092. or.): *Elorrietazpialtzadi*.

Etxezuri (1092. or.): Dokumentazioan ageri den informazioa askoz aberatsagoa da. Guk *Etxezurioiera* (-a) emango genuke eta, bigarren aukera gisa, *Landeta*.

- Fagaza** (1092. or.): Esanahia gardena da eta atzizki hori *-tza* dela argi samar dago, grafia gaztelaniartzailan *-za* ageri dena. *Fagatzza* idatzi behar da, beraz.
- Gainbiribil** (1092. or.): Bakion *Gain-* bat aurkitzea neotoponimia estandarzalean bakarrik da posible. Dokumentazioaren arabera ez da hori kasua eta *Ganbiribil* idatzi behar da. Beherago *Ganbiribil* (1092-1093. orr.) zuzena ere ageri da, segur aski leku berbera izanik.
- Gaztainatueta** (1093. or.): Guk *Gaztañatueta* idatziko genuke.
- Gaztañedi** (1093. or.): Segur aski *Gaztañadi* izango da.
- Golunburu** (1093. or.): Seguruagoa litzateke, gure ustez, *Gollenburu*. Kontu egin dezagun *-o-e-u-u-* > *-o-u-u-u-* asimilazioa esplika daitekeela, baina kontrako norabidean bilakatzea ez dela erraza. Ikus beherago *Kollenburu* (1095. or.), segur aski leku bera dena.
- Idarraga** (1094. or.): Dokumentazioa ikusirik, guk *Irarraga* hobetsiko genuke.
- Iruaretzeta** (1094. or.): Dударик ere gabe *Iruaretxeta* idatzi behar da. Ikus gorago *Arezi* (422-423. orr.).
- Kalderu-iturri** (1095. or.): Guk *Kalderoiturri* idatziko genuke.
- Kanpo Santo** (1095. or.): Oso generiko hedatua da eta guk *Kanposantu* idatziko genuke.
- Kantarape** (1095. or.): *Kanterape*, noski. Ikus gorago *Galdizko kantarak* (443. or.).
- Katilu-iturri** (1095. or.): *Katilluiturri*. Ikus gorago *Gaztelu-iturri* (*Katillu*) (1085. or.) eta *Katilu iturri* (1086. or.).
- Kollenburu** (1095. or.): Segur aski goragoko *Golunburu* (1093. or.) berbera da. *Gollenburu* idatziko genuke.
- Landasolo-barrena** (1095. or.): Bat eginik idatzi behar da, noski, *Landasolo-barrena* (-a).
- Larrasiñe** (1095. or.): Datu horiekin guk *Larrazain* idatziko genuke, parago-gerik gabe eta txistukari egokiaz.
- Larrene** (1096. or.): Dokumentazio guztia (hiru lekukotza) modernoa da (1910) eta guk, tradizioari kasu eginik, *Larrena* (-a) idatziko genuke.
- Luisenarezti** (1096. or.): Dударик ere gabe, *Luisenaresti* idatziko genuke. Osagai bien artean ez dago genitibozko erlazioa, konposizioa baizik. Egitura honetaz ikus gorago *Katuen erreka* (658. or.). *Aresti* grafiaz, ordea, *Arezi* (422-423. or.).
- Matxarraka** (1096. or.): Guk datu horiekin *Matxierreka* idatziko genuke.

- Munarri-bizkarra** (1096. or.): Bat eginik, *Munarribizkarra* (-a) idatzi behar da.
- Ojinaga, Ojinagaburu** eta **Ojinalde** (1097. or.): *Oxinaga*- grafia dirudi ego-kiagoa. Ikus gorago *Ojinaga* (1073. or.).
- Pozuaga** (1098. or.): Guk duda gabe *Pozoaga* hobetsiko genuke. Ikus gorago *Pozuillune* (963-964. or.) eta *Pozuaga* (1074. or.).
- Saigana** (1098. or.): Dokumentazioari kasu eginik, *Sainaga* litzateke era arauzkoa.
- Sanjonalde** (1098. or.): Ikus gorago aldaera arauzkoa *Sanjuanalde* (966-967 eta 1069. or.) hartu duten izenak.
- Serralekutxu** (1098. or.): Guk *Zerralekutxu* idatziko genuke.
- Serralle Txikia** (1098. or.): Guk *Ze-* edo *Zarrallatxikia* (-a) idatziko genuke.
- Txaboletape** (1099. or.): *Txaola*- aldaera ontzat eman da Bermeoko lanean arauzko izen askotan. Hemen ere, dokumentazioak dakarrenez, arauzkotzat emango genuke *Txaoletape* era.
- Txatxaerreka** (1099. or.): Guk *Txantxaerreka* hobetsiko genuke. Ikus gorago *Txatxaerreka* (1085. or.).
- Ureta barrena** (1100. or.): Bat eginik, noski, *Uretabarrena* (-a).
- Uretas** (1100. or.): Izen horren euskal era zuzena *Ureta* litzateke, baina dokumentazioak besterik erakusten du, dagoen datu bakarra *Irxoreta* baita. Azken hau uztea beste biderik ez, beraz.
- Urotza** (1100. or.): Dokumentazioak erakusten duen bezala, *Urutza* idatzi behar genuke. Ikus gorago *Urotze* (974. or.).
- Zallualde** (1100. or.): *Zallo*- maiz ageri den osagai onomastikoa da eta, agian, izenaren atzean *Zallo-alde* legoke. Kasu horretan ez da -o-a- > -u-a- bilakaera idatzi behar eta *Zalloalde* litzateke arauzko grafia.

Gorliz, 2009ko otsailaren 14an